

goiena

Zu hemen zaude.



IKUSPUNTU KONTRAJARRIAK

Statkraft enpresa norvegiarrak Aramaion eta Eskoriatzan ezarri nahi duen Itsaratz izeneko parke eolikoaren gaineko azalpenak eman dituzte Aramaion enpresako ordezkariak; proiektuarekiko bestelako ikuspuntua azaldu dute hainbat herritarrek. /4

Argazki handian, Statkrafteko ordezkariak Aramaioko kultura etxean eguaztenean, azalpenak emateko gertu; txikian, Arabako Mendiak Aske plataformak kanpoaldean egin zuen protestaren irudi bat. XABIER URZELAI

puntua

Tokikom:
hamarkada bat
tokikoak saretzen

Goiatz Urkijori
elkarriketa,
Euskaraldiaz

SINADURAK

	LANDER BELOKI MENDIZABAL / 6		AINHOA PARDINA / 40
	ITSASO ERRETOLATZA / 9		ANDER ETXEBERRIA / 56

BLACK //
FRIDAY

2MÓ 79€
MONOFOKALAK

AZARO OSOAN ZE HAR



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua



Martitzenean egin zuen Mondragon korporazioak urteko batzar orokorra, Kursaalean, Donostian. MIKEL AGIRRE

Uzin: "Ulmaren eta Oronaren espazio naturala Mondragon da"

Mondragon korporaziotik irteteko asmotan dabilta bi kooperatibak, eta, beraz, ez zuten Kursaalean eginiko kongresuan parte hartu. Dena den, taldeko lehendakariak "elkarrekin" aritzeko dei egin die, banaketak "inori mesede egingo ez diola" erantsita

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria DEBAGOIENA

Mondragon korporazioak urteko batzar nagusia egin zuen martitzenean Kursaalean, Donostian, irizpideak eta helburuak ezartzeko, hain justu, Ulma eta Orona taldea uztea aztertzen ari diren aldi berean.

Baina ez bata, ez besteak; bietako batek ere ez zuen kongresuan parte hartu, eta gaia ere ez zen landu. Izan ere, orain dela lau hilabete egin zuten deialdia, eta orduko hartan ez

zegoen zerrendan. Hala ere, Iñigo Uzin Mondragon korporazio-ko lehendakariak gaiaren inguruko adierazpenak egin zituen batzarraren amaitzean.

Jakinarazi zuenez, gaur-gaurkoz, ez dute adierazpen ofizialik

"BI KOOPERATIBEN GEROA ETA BERTAKO PERTSONENA HOBEA IZANGO DA MONDRAGONEN"

jaso bi kooperatibek irekitako prozesuen inguruan, eta, beraz, ezin dute egoera horri buruz hitz egin: "Ez dakigu zein izan diren prozesu horiek abiarazteko benetako arrazoiak". Dena den, argi du geroa "elkarrekin bistaritzen" jarraitzen dutela, eta, euren ustez, Mondragon dela "Oronaren eta Ulmaren espazio naturala".

Gogoeta gehiago
Uzinek aitortu baitzuen "benetan" uste dutela "Ulmaren eta Oro-

naren etorkizuna eta bertako pertsonena hobea" izango dela Mondragonen egonda. "Balioak partekatzen ditugulako, lankidetzarako aukera erreal gehiago ditugulako eta elkarrekin indartsuagoak garelako". Gainera, nabarmendu zuen "negozioen autonomiarengatik, kudeaketen askatasunarengatik, elkartasunarengatik eta lankidetzarenengatik" izan dela hori guztia posible, eta, beraz, "funtsezko elementuak" direla negozioa hazteko.

Hala, gaineratu zuen "konpromisoa" dutela hori erdies-teko bidean aritu ziren eta negozioak martxan jarri zituzten belaunaldiekin, eta baita hurrengoei "ondare hobea" uztearekin ere. "Txikiago egiten gaituen, gure indarrak ahultzen dituen eta elkarrekin lankidetzan aritzeko gaitasuna kentzen digun edozein ikuspegik zaildu egiten du konpromiso horiei erantzutea".

Beraz, Uzinek argi du: "Nori egiten dio mesede egoera honek? Gu ziur gaude ez diela mesederik egiten ez Oronari, ez Ulmari, ez gainerako kooperatibei eta ez Mondragon osoari". Hori horrela, adierazi zuen Mondragoneko organoen atea zabalik daudela eta hitz egiten jarraitzeko "erabateko prestutasuna" dutela. Halaber, bi kooperatibek hartzen duten erabakia edozein dela ere, eta "errespetatu" egingo duten arren, gaineratu zuen taldeak bere proiektuarekin aurrera jarraituko duela.

Batzarrak emandakoa

Dena den, oraingoz, behintzat, ez da jakinekoea zer egingo duten bi kooperatibek, baina Ulmak abenduaren 16an egingo du Mondragonetik irten edo ez erabakitzeke batzarra, orain arte auziari buruzko bilera informatiboak egiten aritu baitira haren baitako bederatzi negozioetako bazkideekin.

Horren esperoan, beraz, Mondragonek aurrez zerrendatutako gaiak landu zituen hilaren 15ean eginiko kongresuan, eta Uzinek adierazi zuen "ondo" joan zela.

"MONDRAGONEKO ORGANOEN ATEAK ZABALIK DAUDE ETA PRESTUTASUNA DUGU HITZ EGITEKO"

Guztira, taldea osatzen duten 95 kooperatibetako 650 konpromisario zeuden deituta bilera hartara, eta goizeko hamarrek alderako agertu ziren lehenak. Besteak beste, tartean zeuden Arizmendiko, Laboral Kutxako, Fagorreko eta Lanako bazkide batzuk, eta, akreditazioak jaso ostean, aretora sartu eta 10:30ean hasi zen kongresua.

Ordurako, mahai aurrean eserita zeuden Uzin bera, Mondragon Taldeko ordezkariak eta Leire Mugerza kongresuko lehendakaria; gainera, urtarri-lean hartu zuen kargua Mugerzak, eta, beraz, lehen kongresua izan zuen.

Landutako gaiak

Landutako gaiak dagokienez, Uzinen esanetan, Laboral Kutxa eta Mondragon taldeen arteko egungo harremanari eta lankidetzari mailari eusteko txostena izan zuten eztabaidagai, eta aho batez onartu zuten. Hain justu, txosten hori jo zuten Oronak eta Ulmak korporazioarekin duten desadostasunen adibide-tzat, Oñatiko kooperatiba taldeak bazkideei adierazi zenez.

Mondragoneko emaitzak "onak" dira

Korporazioko datuak eman zituen Iñigo Uzin Mondragoneko lehendakariak, eta, etorkizunari begira jarritz, azaldu zuen "oparoa" izango dela. "Mondragon ondo doa".

Haren arabera, 2021eko ekitaldia "bikaina" izan zen, salmentak %5 handitu ziren eta 11.400 milioi euroren langa gainditu zen.

Iraileko datuak oinarri hartuta, berriz, nabarmendu zuen bilakaera "positiboa" aurreikusen dutela oraingo aldirako ere. Fakturazioa 12.000 milioi eurotik gorakoa izatea espero dute, eta, enpleguari dagokionez, haztea da aurreikuspena. Gaur egun, 80.100 lanpostu zuzen ditu.

"Arizmendiarrietak zuen gaur bilatutako erantzuna"

Hilaren 29an, 46 urte beteko dira Arizmendiarieta hil zela, eta, kooperatiben ideologo eta sustatzailea gogoan izateko, haren pentsaerek gaurko ingurune sozioekonomikoan duten eraginaren gaineko gogoeta egin du Iñaki Gabilondo kazetariak Arrasaten

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ARRASATE

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartek antolatuta, hitzaldia egin zuen Iñaki Gabilondo kazetariak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan eguaztenean, Begoña Maraño kazetaria gidari lanetan zela, Arizmendiarrietaren pentsaeraz eta ekintzez jarduteko.

Gabilondoren arabera, garai batean "interesgarria" zen Jose Maria Arizmendiarrietaren pentsamendua. "Gaur egun, dagoen pentsamendurik abangoardistena da. "Ezagutu nuenean, atentzioa eman zidan nola pentsatzen zuen eta nola igarotzen zen ideietatik ekintzetara. Baina orain, harrigarria iruditzen

zait garai bateko ideia horiek indarrean egotea, eta, gainera, abangoardiaren puntan".

Horri lotuta, uste du gizartea "humanismo berri bat" bilatzen ari dela. "Mundu osoan bidaia-tu dut askotariko alorretan adituak diren pertsonak elkarriketatzen. Denak ari dira humanismo berri baten bila. Arizmendiarieta datorkit niri burura, eta konturatzen naiz orain bilatzen dugun erantzuna Arizmendiarrietaren ideietan aurki dezakegula". Hala, erantsi zuen gizon hark idatzi zituela "humanismoaren gakoak".

Enpresa ereduaz aztergai

Egungo erronka globaletako bat enpresei "beste zentzu bat" emate

tea dela adierazi zuen Gabilondok, gizartea aldatu behar dela, eta baita konpainiak ere. "Buru-belarri ari dira mundu osoan gai honekin; milaka ekimen ari dira sortzen errentagarritasunetik harago begiratzen duten enpresa-ereduak sortzeko".

Dena den, pentsamendu neoliberalak baztertzen duen hausnarketa hori Arrasaten eta Debagoienean "aspaldi" egin zela nabarmendu zuen. "Argi esan zuen Arizmendiarrietak: pertsonak eta gizartea oinarri dituen enpresak behar dira".

Are gehiago, nabarmendu zuen irakurketa hori "geroz eta hedatuago" dagoela, baina oraindik "oso gutxi" direla gizartearen zerbitzura dauden enpresak.



Iñaki Gabilondo eta Begoña Maraño kazetariak, eguaztenean, Arrasaten. UXUE IGARZA

"Gehiengoak makillatu egiten du bere enpresaren irudia, gizarteari ekarpena egiten diotela erakusteko, baina, betiere, etekin ekonomikoak daude horren atzean".

"Anbizio izugarria"

Hori horrela, Gabilondoren esanetan, Arizmendiarrietak "anbizio izugarria" zuen: "Ez zuen

enpresa lagunkoi eta gizatiar bat sortu nahi bakarrik; *demonkrazia* hitza txertatu zuen egitekoetan". Horrez gain, gaineratu zuen emakumeen askatasunaren eta hezkuntzaren garrantziaz ere idatzi zuela, eta, beraz, euskal gizarteak "aitortza" egin behar diola. "Denek ezagutu behar dute Arizmendiarrietaren filosofia eta praktika".

Euskal eduki sortzaile berrien kabia

"ARNASETIK" BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnaguneetara bisita egin die "Arnasetik" bideosormen lehiaketak. Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen lehen edizio hau arnaguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteak zuzendu zale, bai eta arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleak ere. Irailean abiatutako "Arnasetik" sormen



lehiaketak urriaren 28an izan zuen amaiera gara, Arnasa-Villabonako Gurea Antzokian. Lehiaketaren lehen edizioa arrakastatsua izan da. Adinaren arabera hiru kategoria izan ditu lehiaketak, eta kategoria bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenari lotuak.

Sari banaketa

Julen Portillo euskal eduki sortzailea izan zen gidaria, eta Sara Alonso musikariak hiru

pieza eskaini zituen teklatuarekin. Julen Portillo zarauztarra da, eta Sara Alonso aramaiocarra; biak udal euskaldun batean eta arnagune batean jaioak, eta biak ala biak euskaldun sortzaile dotoreak.

Arnasa Gara ekimena euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrek ahalduzko helburuarekin jalo zen, UEMAk, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Arnasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako

10-16 urte bitarteko gazteak zuzendu zale.

99 lan jaso ditu epaimahaiak eta haien kalitatea azpimarratzekoa izan da.

Arnasa Gara ekimenak arnaguneetako gazteei esperientzia berriak eskaintzen jarraitzeko asmoa du.

gazteak izan dituzten jomugan, haien hizkuntza ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

Etorkizunera begira

Gazteak edukien sorkuntzarako duten grinaren erakusle izan da "Arnasetik" bideosormen lehiaketaren lehen edizioa. Hori dela eta, Arnasa Gara ekimenak arnaguneetako gazteei gogoeta piztu eta hizkuntza ohituretan eragiten jarraitzeko asmoa du.

Info gehiago: www.arnasagara.eus

Eolikoarekiko kezak azalera

Energia berriztagarrien sektoreko Statkraft enpresa norvegiarreko hiru ordezkari azalpenak eman dizkiete aramaioarrei asteen, Itsaraz proiektu eolikoaren gainean

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Aramaioko kultura etxeko are-tora jende ugari bertaratu zen joan den asteazkenean, 200 metroko altuerako zortzi aerosorgailu eraikitzea aurreikusten duen Itsaraz proiektuari buruzko xehetasunak entzuteko -zazpi Aramaion eta bat Eskoriatzan-. Batzarra hasi baino ordu erdi lehenago Arabako Mendiak Aske plataformak deitutako protestan atzeman zitezkeen kultura etxe barruan sortuko zen tentsioa. Elkarretaratzean Makro proiektuak ez! Energia eredu deszen-

tralizatu eta autokontsumoaren alde! zioen pankarta erakutsi zuten, eta zera adierazi: "Energia kutsakorrek saldu zizkiguten horiek berdez mozorrotutako eredu berberarekin datoz orain, gure beldur eta ziurgabetasunarekin etekin oparoak lortzen jarraitzeko; trantsizio ekologiko bat saldu nahian datoz, baina guk argi daukagu: ez Aramaio ez Euskal Herriko mendiak ez daude salgai".

Bilkura informatiboa Zure etorkizuna erabaki ideia nabarmentzen zuen bideoa proiektatuta

hasi zuten Statkrafteko ordezkariak. Jarraian, argindarraren faktura murrizteko modelo dela azaldu zuten, eta interesatuak proiektuaren jabetzaren parte izan zitezkeela. Aramaio eta Eskoriatza artean eraikitzea aproposa iruditzen zaie "haizea dabilelako, EAEn gaur egun ekoizten den energiaren erdia ekoiztuko lukeelako eta ezer ez egiteak ere kalteak izango lituzkeelako, hemendik urrun eta baita hemen bertan".

Itsarazentzako 60 milioi euroko inbertsioa aurreikusten dute,

"2026 bukaerarako aberastasuna sortzen hasteko". 25 urtean usiatuko lituzkete zortzi aerosorgailuak. Epe horretan Statkraft enpresak "energiaren sozializazioa eta komunitatearekiko konpromisoa" sustatuko lituzke.

Dena den, Itsaraz garapen fasean dago, eta, beraz, "oraindik ezer ez dago finkatuta". Izan ere, lehendabizi ingurunean, biodibertsitatean eta biztanlerian eragingo lukeen inpaktua neurtzeko ikerketak egin behar dituzte. Behin datuak eskuan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eman beharko luke proiektu eolikoaren eraikitze baimena.

"Sinesgarritasun falta"

45 minutuko aurkezpen horren ostean, hamabi hitzartze inguru egin zituzten entzuleak. Era guztietako ekarpenak egon ziren, eta guztietan sumatzen zen en-

presarien eta herritarren arteko adostasun falta. Statkraften egitasmoek Norvegiako saamiei eta Txileko maputxeei eragin dieten kaltea mahai-gaineratu zuten zenbait herritarrek; egingo dituzten ikerketen egiazotasuna zalantzan jarri zuten beste batzuek; ironiaz, etorkizuna erabakitze tresnak zeintzuk izango diren galdetu zuenik egon zen, eta Itsarazek sortuko duen energiaren balioa, kualitatibo zein kuantitatiboa, oraindik ez dakitela ere aipatu zuten, besteak beste.

AHTaren esperientzia

Gainera, "modelo demokratiko" gisa aurkeztu dutenez, zera galdengin zieten: "Aramaioarrei hitza emanez gero, eta aurkako jarrera nagusituko balitz, zer egingo luke enpresak, proiektuarekin jarraitu ala ez?". Statkraftekoek erantzun zuten erakunde publikoek ordezkatzan dituztela herritarrak. Era berean, demokrazia falta leporatu zieten, "lehenengo erakunde eta enpresa handiengana eta azkenik herritarrengana" zuzendu direlako, "ordena horretan".

ITSARAZENTZAKO 60 MILIOI EUROKO INBERTSIOA AURREIKUSTEN DU STATKRAFTEK

**ALMACENES
ARRASATE**

BLACK FRIDAY
Azaroaren 21etik 28ra

399€	439€	345€	305€	359€
585€	459€	510€	335€	659€

Eskaintza paregabeak! (Stocka amaitu arte)
Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Etxetresna etxera eroan, martxan jarri eta zaharra erretiratu 40€

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:15-13:00 / 15:30-19:30 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Batzerrera bertaratutakoak, azalpenak adi entzuten X. URZELAI

Aurkezleen argudio asko Abiadura Handiko Trenaren proiektuarekin alderatu zituzten bertaratutakoek, esaterako, tokiko enplegua sustatuko lukeela eztabaidatzerakoan: "Orduan ere esan ziguten AHTak lanpostuak sortuko zituela herrian, baina ikusi dugu kanpoko langileak ekarri dituztela, eraikuntza kostuak murrizteko".

Zenbait unetan txalo zaparradak ere entzun ziren, besteak beste, herritar batek "proiektu narrasekin esperientzia dugu" adierazi zuenean.

Bestalde, lurzoruen jabeekin "laster" harremanetan jarriko direla aipatu zuten Statkraftekoek, eta orduan jakinaraziko dietela lursailak alokatzearen jasoko luketen diru-kantitatea.

Beste bilkura bat

Aramaioko udal ordezkariak urtarril hasieran herri mailako batzar bat egingo dutela adierazi zuten bilkuran, herritarren iritzia zeintzuk diren jakiteko. Balorazio orokor bat egiteko eskatuta, "oraindik azkarregi" dela aipatu zuten.

EKKO programa komunitatera irekiko dute abendura arte

10-12 urte artekoengana eta herritarrengana helduko da Eskola, Kirola, Komunitatea eta Osasuna egitasmoa

H.L. DEBAGOIENA

EKKO proiektuaren barruan, azaroaren 30etik aurrera, *Ilusioa/inklusiua* izenpean, Aretxabaletan eta Eskoriatzan mahai-inguruak eta kirol jarduerak antolatuko dituzte bi herrietako udal eta ikastetxeek, Mondragon Unibertsitateak, UDak eta San Juan de Dios ospitaleak. Proiektua ikastetxeetan garatzen ari dira, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleen eta haien gurasoen trebetasun sozialak indartzeko. Orain, "seme-alaben osasun osasun fisiko, psikiko eta sozialak guztion helburu izan behar duela" kontzientziatu nahi dute komunitatea. Lau mahai-inguru egingo dituzte, guztiak 18:00etan hasita. Hilaren 30ean "seme-alaben osasun egoera" eta abenduaren 15ean "Industria eremuan aurreikusten den etorkizuneko



Proiektuko eragileak, taldean. I. BELOKI

lanbide eskaria" aztertuko dituzte Eskoriatzako Huhezin; Aretxabaleako Komunikazio fakultatean, ostera, abenduaren 14an "gazteen osasun mentala" jorratuko dute, eta abenduaren 20an "kirolaren garrantzia". Datu gehiago, *Goiena.eus*-en.

Mauricio Arregui izango da Gipuzkoako Bazkundeko burua

Bergararra izendatu dute, asteon, Gipuzkoako 75.000 enpresa, negozio eta saltoki baino gehiagoren interesak ordezkatzeko eta defendatzeko dituen Bazkundeko lehendakari. Ormak enpresako kontseilari ordezkaria da gaur egun, eta enpresa horren sortzaileetako bat izan zen duela 30 urte Donostian. Kargua hartzean, Arreguik erakundearen balioak azpimarratu ditu: "Zintzotasuna, ahalegina eta lanaren kultura dira gure ezaugarri nagusiak. Horri gehitzen badiogu gure enpresek lehiakortasun handia dutela, argudioak ditugu egungo egoera ekonomiko eta geopolitikoak planteatzen digun ziurgabetasunari baikortasun moderatu batekin aurre egiteko".

Bazkundearen Osoko Bilkura Konstituziogilean, 55 kideetatik hogeit berriak izanik, presidenteari gain, Batzorde Betearazle berriko beste bederatzik kide ere hautatu zituzte; tartean da, Fagor Arrasate S. Coop-eko Juan Etxeberria.

Leintz Bailerako Ekiola Kooperatiba

Eguzkia berdea da

ARRASATE
BAZen, Arano eta Garcia maisu-maistren kalea 8
astearte, ostegun ostiraletan 08:30-19:00

ARETXABALETA
Murruxikoko egoitzan, Durana kalea 13
asteazkenetan 08:30-19:00

ESKORIATZA
Udaletxean, Fernando Eskoriatza plaza, 1
astelehenetan 08:30-19:00

www.ekiola.eus/leintz-bailara

Eman izena Leintz Bailerako Ekiolan

Gure bulegoetan edo online

www.ekiola.eus/leintz-bailara

Zure energia, sortu, kontsumitu
eta kudeatzeko aukera

Eguzki energia kontsumitu ● Kooperatibako
barkide izan ● Erosia, obrarik egin gabe



ZABALIK

LANDER BELOKI MENDIZABAL

Negua badator ala badoa?

Ezaguna egingo zaizu *Games of Thrones*-en Starktarrek hainbat aldiz aipatzen duena, negua badatorrela. *Negua joan da ta*, aldiz, Zea Maysek abesten du. Ekonomiari dagokionez, negua badator ala badoa? Pandemiak sortutako kalteei aurre egiteko, zorpetzea izugarri handitu behar izan zuten gobernuek. Ukrainako gerrak energiaren merkatua erabat desorekatu du, eta gobernuen lehentasunak zeharo aldatu. Ondorioz, ia ahaztua genuen arazo ekonomiko klasikoetako bat gure artean dugu: inflazioa. Prezioen igoerak sortzen du, eta prezioak igotzeko arrazoi nagusiak bi dira: kostuen igoera eta eskaria eskaintza baino handiagoa izatea. Energiaren kostuen igoerak eragin duen inflazioa. Prezioak goraka doaz, eta inflazioak izango duen bilakaerari buruzko espektatibetan oinarritzen dira. Espektatibak. Ekonomia mugitzen duen kontzeptu garrantzitsuetako bat. Ekonomian prezioak erabakitzen

SOLDATEI DAGOKIENEZ, ZAILA IZANGO DA PREZIOEN HAZKUNTZA BERA IZATEA

dituztenek inflazioa igo egingo delako espektatiba badute, beren eskumeneko prezioak ere igo egingo dituzte. Prezioak igo badira, langileek soldaten igoera eskatuko dute; beren soldaten eros ahalmena mantent dadin. Ondorioz, langile horien enpresen kostuek gora egingo dute. Eta hala jarraituko du, neurriak hartzen ez diren arte. Munduko Ekonomia Foroak atera duen inkesta batek dioenez, %64k uste dute 2023an atzeraldi ekonomikoa izango dela. Ez gune ekonomiko konkretu batean, munduan baizik. Interes tasen igoera derrigorrezkoa izan da prezio hazkuntza moteltzeko. Zorpetze maila handiak albo-kalteak eragingo ditu. Soldatei dagokienez, zaila izango da prezioen hazkuntza bera izatea, eta langileen eros ahalmena gutxitzeko arriskua nabarmena da. Gobernuak hainbat erabaki zail hartu beharrean daude. Moneta politika eta politika fiskalari dagokionez, neurri efektiboak behar dira inflazioa kontrolpean jartzeko, eta atzeratze ekonomiko ahalik eta txikiena izatea lortu beharra daukate, kaltetuenak izango direnei laguntzak bideratuz. Ez dira erronka gutxi. Starktarren esamoldetik gertuago gaude Zea Maysen abesti ederretik baino. Ea oker nabilen.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Arangurenen

EIDER GOENAGA LIZASO
'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/9LAQT

Esku, eskubide, eskuin, esku huska, esku hartu, eskupeko, eskuko, eskumen, eskutik eutsi, eskuak jo, eskumotz, eskukada, eskuarki, eskuare, eskualde, eskularru, eskua eman, esku bete, eskua luzatu, eskua sartu, eskuada, eskumutur, eskubakar, eskubaloi, eskuratu, eskuoihal, eskubidedun, eskutik irabazi, eskudiru, eskuetsi, esku gain, esku ahur, eskuila, eskuin mutur, eskupaper, eskulangile, eskuliburu, esku beltz,

eskuorri, eskuzabal, eskuragarri, eskuraezin, eskusoinu, esku artean, eskutik eskura, eskumuturreko, eskutitz, esku zapi, eskuduntza...

Esku hitza osorik edo erro gisa hartuta, dozenaka hitzeko zerrenda topa daiteke euskaraz, eta askotariko esanahia hartzen du batera edo bestera eginda.

Euskara bera *eskuara* gisa idatzi eta abestu izan da, eta baita Euskal Herria *Eskual Herri* gisa ere.

Irulegiko eskua deiturikoan, baskonikozko idatzi batean, brontzean zizelkatuta topatu dute hainbat bider ahoskatu,

idatzi, irakurri eta abestutako hitz horien guztien idatzizko lehen arbasoa.

K.a. I. mendekoa, hain zuzen ere.

Inork ezin du zalantzan jarri aurkikuntza garrantzitsua denik:

Atzoko berripaper guztietako azalean agertu zen.

Garrantzia du eskua aurkitu izanak, baita topatu duten tokiak ere.

Erabilera politikorik ez egiteko eskatu badute ere, ez baita hutsala idatzi hori Nafarroan, garai batean eremu ez-euskaldunean zegoen Aranguren ibarrean, topatu izana.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereziibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Aurkikuntza oso inportantea da Arangurengo ibarrekoa"

JUAN MARTIN ELEXPURU HIZKUNTZALARIA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Arantzadi Zientzia Elkarteko ikerlariak *Irulegiko eskua* topatu dute Arangurengo ibarrean (Nafarroa). Zeresan handia eman du. Juan Martin Elxpuru hizkuntzalariak gaiari buruz aritu da *Hemen Debagoiena* saioan.

Aditu ugari eman du iritzia egun hauetan. Aurkikuntza historikoa da. Euskararen aurrekari izan daitekeen hizkuntza baten aztarnarik zaharrena?

Aurkikuntza oso inportantea da. Euskararen aurreko hizkuntza batena ote den? Baskonikoa izena jarri diote. Lehenago, akitaniera asmatu zuten. Ez zait iruditzen beharrezkoa zenik termino berri hori asmatzea. Azken finean, euskara zaharra edo euskara arkaikoa edo protoeuskara zergatik ez zaio deitzen? Arazoak ekarriko ditu *baskoniko* hitzak. Demagun Azpeitian agertzen dela Arangurenen topatu den honen modukoa. Nola deitu behar zaio: barduliarra? Edo Elorriren beste bat; eta karistiera deitu behar zaio? Esan nahi dut: ez dakit ez dabilen hor azpian konplexu bat euskaldunok geure hizkuntzari dagokion moduan deitzeko. Greziera zaharra ere zaila da ulertzen, baina greziera deitzen zaio.



Juan Martin Elxpuru. KONTRAPROGRAMA

Zientzialariei, ikertzaileei, beren lana egiteko denbora utzi behar zaiela uste duzu?

Bai. Ikerlari espezialistei utzi behar zaie beren lana egiten. Baina kontuz ikerlari profesional eta betierekoekin. Izan ere, esperientzia txarrak ere baditugu. Beti daukagu oinezkook ustea zientzialariak ia santuak direla eta beti egiazat ematen dugu jakinduriaren arabera epaitzen dituztela gauzak. Zoritzarrez, ez da hala izaten beti. Interesak izaten dira

tartean: ospea, boterea, dirua. Eta objektibitatea ez dute aintzat hartzen.

Onespen guztiak lortuko balitu pieza honek, gaur egun euskararen jatorriaren gainean dauden teoriak aldatuko lirateke?

Euskalduntze berantiarraren teoria txatxu hori lurperatuko luke. Behintzat, [Alberto] Santanaren dokumentalaren [Una historia de Vasconia] ikuspuntua. Haren eta beste batzuen arabera, baskoiek ez zuten euskararik egiten. Jakina, ezta barduliarrek eta

karistiarrek ere. Horretaz gain, haien arabera, VII. mendean Akitaniatik etorri zirenek euskaldundu zituzten baskoiak. Eta ostean, beste guztiak. Teoria hori Euskal Telebistak ehun aldiz zabaltzen badu, ba, hor geratzen da. Bitxia da ETB ze ondo portatu den oraingoan, eta, oster, tristea ikustea nola ibili den dokumental horrekin bueltaka, nahiz eta esan zitzaaien behin eta berriro kontuz ibiltzeko, gauzak ez zirela horrela.

Idatzizko forma uste baino lehenagokoa dela agerian utziko luke aurkikuntza honek?

Badirudi baietz. Orain arte, garai hartako aurkikuntza gutxi egin da. Zaharrena dela esatea zalantzan jarri behar da. Badago Andeloko mosaikoa deitzen zaiona, eta, aditu batzuen ustez, euskaraz idatzita dago. Beste batzuen ustez, iberiarra ote den... Garaitsu berekoa da. Bai erakusten du orduko baskoiek idazkera erabiltzen zutela. Iberiarren keinu sistema erabilia, baina baita euskararen fonetikara egokituta ere.

Eztabaida dezente irekiko du aurkikuntza honek. Baita politikoa ere. Euskara ofizial ez den eremu baten aurkitu dute pieza...

Nafarroako Gobernuaren bereizketaren arabera, eremu mistoan dago Aranguren. Izango du eragin politikoa, nolabait, Nafarroako parte bat euskararen etsai amorratua delako. Nafarroaren euskalduntasunarentzat hauspoa izango da.

Iruña-Veleiaren kontuan buru-belarri zabiltza. Aurkikuntza hau dela-eta, zerbaitek atentzinoa eman dizu?

Iruña-Veleia ez dute aipatu aurkikuntza honen berri ematerakoan. Eta nire arreta piztu du Joaquín Gorrotxategiren jarrerak. Dio emozionatuta dagoela, baina urduri ere bai. Iruña-Veleiaren kontua hor dago. Espainiako Konstituzionalaren epaiaren zain gaude, baina epaileen aldetik ez dugu ezer espero. Gure ustez, injustizia handia egon da, pieza horiek ezin dira faltsuak izan. Gaian sakondu duten guztiak heldu dira ondorio horretara.

Iruña-Veleiarekin gertatutakoa gerta daiteke kasu honetan ere?

Ez. Arantzadi Zientzia Elkartekoek gauzak oso ondo egin dituzte. Gainera, babes instituzional guztiarekin. Diplomazia eta komunikazio lanak ere ondo egin dituzte. Halere, oraingoan, pieza bat aurkitu dute. Iruña-Veleian, 300-400.

"EUSKARAREN ETSAI AMORRATUA DA NAFARROAREN PARTE BAT; IZANGO DU ERAGIN POLITIKOA"

"EUSKALDUNTZE BERANTIARRAREN TEORIA TXATXU HORI LURPERATUKO LUKE AURKIKUNTZA HONEK"

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



39.662.000 euroko udal aurrekontu proposamena

2023rako aurrekontu proposamena aurkeztu du Udal Gobernuak, abenduko osoko bilkurara eramango duena; hala, 2022koak baino ia bi milioi gehiago izango lituzke (%5,15); Ondasun eta Zerbitzuen sarrerek eta inbertsioek eragingo lukete igoera hori

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Ondasun eta Zerbitzuen sarretara 1.350.000 euro bideratu gura ditu Gobernu taldeak eta inbertsioetara, berriz, 645.000 euro gehiago. Maria Ubarretxena alkatearen esanetan, gizarte zerbitzuak eta sustapen ekonomikoa bultzatzeko ekimen eta proiektuak indartu gura dituzte, eta "proiektu estrategikoei" bide eman. Honako hauek nabarmendu ditu: "Batez ere, Santa Teresako igogailu sistema publikoa bukatzea eta hura berroneratzera bideratutako diru partida eta Etxe Txikien berrurbanizaziora bideratutakoa. Halaber, trantsizio energetikoan sakondu eta kirol azpiegituren prozesua garatu gura dugu. Behin kultura eraikinak amaituta, seriotasunez ekingo diogu kirol azpiegituren planari".

Dirulaguntzak eta Foru Funtsa

Gobernua diru publikoaren kudeaketa "zuhurra baina ausarta" gauzatzen ari dela adierazi du Ander Garayk, Ogasun zinegotziak. "Horren erakusle da urte hauetan lortutako dirulaguntza kopurua. 2015ean Udalak 216.000 euro jasotzen zituen batez beste eta 2023an 2.100.000 jasoko ditu". Halaber, Foru Funtsak ere "igoea nabarmena" ekarri du, bost

milioi euro gehiago, "ekonomia- ren martxa onari esker". Hori hala izanik, Udalaren finantza egoera "oso osasuntsua" dela dio Garayk. "Aurrekontu proposamen honek ez dakar inongo zorpetzerik; beraz, *zero zor* egoeran jarraituko dugu".

Giza garapenera %6,6 gehiago

Garapen Komunitarioko Sailak %6,6ko igoera izatea gura du Gobernuak, 4.156.000 euro bideratuta. "Gizarte kohesioa bermatzea dugu jomuga, laguntza eta programa sozial oro mantenduz eta, beharra izanez gero, horiek handitzeko konpromisoarekin", dio alkateak. Beritasunei dagokienez, droga-mendekotasunari aurre egiteko bi partida berri ezarriko lirateke: alde batetik, dirulaguntzetarako 18.000 euro eta, bestetik, droga-mendekotasuna prebenitzeko EKKO proiekturako 92.000 euro. Horrez gain, Garibai etorbideko eguneko zentro berriko arreta zerbitzua martxan jartzeko eta zerbitzua eman ahal izateko 61.500 euro bideratuko lituzke Gobernuak.

Hirigintzara %26 gutxiago

Hirigintza Sailak 3.981.000 euroko aurrekontua izango luke, 2022an baino %26 gutxiago. San-

ta Teresako igogailuetara 1.210.000 euro bideratuko lirateke; Etxe Txikiak berrurbanizatzeko, 750.000 euro; Gorostiza auzorako igogailu sistemaren proiektua egiteko, 40.000 euro; Jose Luis Iñarrako obrak hasi ahal izateko, 35.000 euro; Grupo San Juaneko proiektua egiteko, 30.000 euro; San Andresen, Takoloko biribilgunerako bidean, bidegorria egiteko proiekturako, 25.000 euro; Mugikortasun Planaren berrikuspenerako, 22.000 euro; bidegorri sarearekin jarraituz, San Frantziskotik Musakolarako *Ekobulebar*-aren proiektua egiteko, 20.000 euro, eta San Andresko Gudarien plaza berrurbanizatzeko proiekturako, 20.000 euro, besteak beste.

Obra eta Zerbitzuetara gehien

Aurrekonturik handiena Obra eta Zerbitzuen Sailak izango luke: 13.979.000 euro, iaz baino %12,62 gehiago. "Parke eta lorategien mantentzerako kontratua handitu egin da, lorezain-

MARIA UBARRETXENA: "AZKEN HAMAHIRU URTEETAKO UDAL AURREKONTURIK HANDIENA LITZATEKE"



Ander Garay, Maria Ubarretxena eta Victoriano Fuentes, Herriko Plazan. IÑIGO BARRENA

tzako langileekin akordioa lortu ostean. Partida 1.037.500 eurokoa izango da 2023. urterako, 300.000 euro gehiago", azaldu du Victoriano Fuentesek, Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak. Era berean, Santa Teresan eta Doneztebe Portukon birgaitze proiektua gauzatu ahal izateko 1.000.000 euroko partida ezarri gura du Gobernuak. Haurrei begira, hiru parketan esku hartu gura du: Aprendices kaleko parkea estaltzeko, 100.000 euro; Santa Barbaran natur jolasparke bat egiteko, 100.000 euro; eta Obenerrekako parkea berritzeko, 50.000 euro. Azkenik, Musakola auzoan aterpe bat jartzeko 50.000 euro bideratu gura ditu Gobernu taldeak.

Kirol azpiegiturak indartu

Kirol Azpiegituren Planaren garapenari "seriotasunez" helduko diotela dio alkateak. "Prozesu parte-hartzailea burutu ostean eta plangintza zehaztuta, lehen inbertsioak egingo ditugu 2023an". Kirol instalazioen mapa

osatzen hasteko, 200.000 euroko partida bat jasotzen du aurrekontu proposamenak. Era berean, datorren urtean Iturripeko kiroldegia berritzeko proiektua egiteko eta obrak esleitu ahal izateko partida bat sortu gura du Gobernuak. Horrez gain, Mojatetik atletismoko pista aldatzeko 520.000 erabili gura ditu eta Uarkapen LED argiak jartzeko, 50.000 euro.

Trantsizio energetikoa

Arrasateko argiteria publikoaren %60k LED sistema duela dio Fuentesek. "Halaber, eraikin publikoak jasangarriago egiteko pausoak eman dira, udal ordenantzak aldatu dira energia berriztagarrien aldeko hobariak eskaini ahal izateko eta Ekiola abian jarri da". Bestalde, ur-kontagailu "inteligenteak" jartzeko 1.300.000 euro inbertitu gura dituzte lau urtean -2023an, 300.000 euro-, auto elektrikoendako lehen karga puntua jartzeko 40.000 euro eta Uarkapen plaka fotovoltaikoa jartzeko beste 40.000 euro.

Agurtzane Arregi gogoan

Agurtzane Arregi Letamendiren senideek Arrasateko Udalaren aitortza jaso zuten Memoriaren Egunean, haren eraiketa gertatu eta 44 urtera. "Ekitaldi honekin ziklo bat ixten da. Keinu bat da. Ez dugu ahaztuko eta ez dugu barkatuko, baina, akaso, balioko digu ama zen moduan oroitzeko, ez haren heriotza gogoratzeko", zioen Izar Etxabe Arregik, alabak.



E.A.B.

Arrasate Zientzia Elkarteak: "Ez dugu tratu hau merezi"

AZEK erabaki du udalerrian urtero egin ohi dituen arkeologia jarduera gehiago ez egitea. "Udaleko Hirigintza Saileko arduradunek Arrasateko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hitzez hitz aplikatzea da arrazoa. Jarduera horiek egiteko udal-lizentzia bat lortzea eskatzen zaigu, edozein eraikuntza-obra-ri dagozkion eskakizunekin eta

horrek dakartzan tasak eta kostuak ordainduta". Diote sentitzen dutela Udalak ez duela balioesten azken urteotan egin duten "etengabeko lan altruista", doakoa. "Arrasate Zientzia Elkarteak ez du merezi aipatutako sailetik jasotako tratua, hainbeste urtean egindako ekarpenak ez baititu aintzat hartzen. Hala eta guztiz ere, aurrerantzean ere Arrasateko historia eta ondarea hobeto ezagutzeko lanean jarraituko dugu", azaldu dute (Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en).

Santa Teresan birgaitze lanak egingo ditu Udalak

Planaren aurrekontua 11.198.341 eurokoa da eta Eusko Jaurlaritzak 7,37 milioi euro jarriko ditu. Eraikinetan, hiri-ingurunean eta gizarte eremuan esku hartzea sustatzen duen plana da, irisgarritasuna eta etxebizitzak hobetzeko asmoarekin

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Arrasateko Udalak ia 7,4 milioi euro jasoko ditu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Siletik, Santa Teresa auzoko hiri-berrorenatze integralari aurre egiteko. Martxoan ireki zuen Jaurlaritzak laguntzak eskatzeko epea eta Arrasateko Udalak Santa Teresa auzoa berroneratzeko proiektua aurkeztu zuen, 11.198.341 euroko aurrekontuarekin. Jaurlaritzak proiektua aukeratu eta laguntza horiek ematea erabaki du.

Proiektuaren kostua lau zatitan banatzen da: 6.227.181,34 euro, etxebizitzaren birgaitze integralerako, besteak beste, irisgarritasuna, bizigarritasuna eta eraginkortasun energetikoari lotutakoak; 2.293.000 euro, igo-gailu publikoetarako, herritarren irisgarritasuna hobetzeko; 58.000 euro, 2005etik Udalak duen urbanizazio-proiektua eguneratzeko; eta 2.293.097,97, euro urbanizazio-proiektua eguneratzeko.

Era berean, proiektuak gizarte-arloko esku-hartze bat jasotzen du, auzo horretarako enplegu-plan espezifiko batean islatzen dena, 309.396 euroko zenbatekoarekin. Kasu horretan, auzo-koak diren edo Arrasatekoak diren hamar pertsonari formakuntza berezia eskainiko zaie igeltserotzan, eta urtebeteko kontratu bat Arrasateko brigadarekin batera lan egiteko.

Herritarrentzako dirulaguntzak Berroneratze prozesu horretan, 96 etxebizitzatan eragitea aurreikusten dute Eusko Jaurlaritzak eta Arrasateko Udalak. Etxebizitza bakoitzean egingo diren lanen %70 finantzatzeko dituzte diruz, eta eman daitekeen diru kopuru handiena 50.000 euro izango da. Santa Teresa bezalako auzoetan jende zaurgarria egon daitekeela kontuan izanik, herri bakoitzak funts



Aritz Murua, Maria Ubarretxena, Miguel de los Toyos eta Matilde Martin. GOIENA

SANTA TERESA AUZOA BERRONERATZEKO LANAK 2024AN HASTEA ESPERO DU ARRASATEKO UDALAK

batzuk izango ditu, Gobernuaren errekurtsioetatik, aurretik aipatutako etxebizitzaren erdientzat laguntza %100ekoa izateko aukera egoteko. Herritarrek informazio hau guztiau jaso ahal izateko, Udalak bilerak egingo ditu bizilagunekin eta bulego bat jarriko du martxan Santa Marinako alkatetzan.

Kudeaketa-batzordea

Lanak aurrera eramateko kudeaketa-batzorde bat sortu beharko da auzoan. Bertan egongo dira Eusko Jaurlaritzako Planifikazio Sailekoak, Arrasateko Udala eta bizilagunen komunitateko ordezkaria. Haien lanen artean egongo dira lanen lizitazioak ateratzea, birgaitzea nork egingo duen erabakitzea eta kontratazio prozesua. Lizitazioak 2023ko bigarren seihilekoan kaleratzea espero dute, eta lanak 2024an hasia.

Avesantes elkartekoak ere pozik

Avesantes elkartetik ere pozarren hartu dute proiektuaren albistea. Juankar Davila kideak adierazi duenez, aukera "ezin hobea" da, eta, era berean, "beharrezkoa" auzoarentzat: gainera, elkartearen izenean dei egiten die auzotarrei aukera honetan parte hartzera.

Hala ere, Davilak berak argi utzi izan nahi du denbora luzea daramatzatela horren zain. "Triste da Europatik etorritako funts batzuei itxaron beharra izatea, urteetan eskatzen genuena aurrera eramanez ahal izateko". Avesantesetik espero dute prozesuaren barnean egotea, eta bulegoa jartzeko elkarteko lokala uzteko prest daude.

Harremanek 2.950 euro bildu ditu Ukrainara bidaltzeko

"Gerra krudela pairatzen ari den ukrainar herriarentzat laguntza ekonomikoa biltzeko" kanpainaren bitartez 2.950 euro batu ditu Harremanek, eta Alboan gobernu kanpoko erakundeari helarazi dio diru kopuru hori, "gatazka-eremuan egiten ari den lan humanitarioa indartzeko". "Beste behin ere, eskerrak eman nahi dizkiegu eskuzabal izaten dakiten herritar guztiei. Eta Arrasateko herriari gogorarazten diogu bankuko kontuek irekita jarraitzen dutela ukrainar herriari laguntzen jarraitzeko", nabarmendu dute Harremaneko kideek. *Goiena.eus* webgunean daude ikusgai kontu korronteetako zenbakiak.

OHARRAK

Babak protagonista

Bihar goizean, bertako produktuen azoka egingo dute Seber Altuben.

Hitzaldia Iratin

Askapenak antolatuta, brigadetan parte hartu dutenek eta Rene Behotegyk hitzaldia egingo dute domekan, 18:00etan, Brasilgo, Venezuelako eta Boliviako egoera politikoaz.

1942koen kintada

Hilaren 26an izango da. Izena emateko, Izadi belar-dendan.

Gaztaina erre festa

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkartek egingo du, Biterin, hilaren 25ean.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Konpetentzia

Behar bat egiteko orduan, izan trebetasuna zein ezagutza, besteekiko diferentzia neurtzean datza gizarte honen azken boladako gaixotasuna.

Osasuntsua dela eta, kirolera buru-belarri jo dugu, ezinezkoak imajina genitzakeen balentriak osatzeraino, zein baino zein azkarrago, zein baino zeinek ordu gehiagoan ekinean.

Ikasketetan ere bertsua da egoera, selektibitatea helburutzat zein baino zeinek nota altuago, gutxieneko nota igoaraziz, arrainaren buztanarekin jiran.

Asteburuan, aldiz, egin dugu ekintza gogoangarria, taldean abiadura berean eta batera egin dugu korrikaldia Arrasatetik Gatzagara, garai bateko zortasun-bidetik. Gozatu dugu, Irulegiko *eskuaraz* bidean kontu kontari eta dutxa beroaren ondotik ere.

Urtero, feria egunez, Yoli eta Gerrari otu zitzaienetik egiten da, dortsal baten prezioan bazkaltzea hobetsita. Honela, urtez urte jende berria batzen jardun dute, ezezagun izateari utzi eta gehiago erakartzeko asmoarekin.

Amorerik eman gabe taldearen beroan, nork bere konpetentziak komunitatearen baitan garatzea... zer hoberik?



AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK



Maider Morras, EH Bilduren bozeramailea, Arrasateko Portaloia atzean duela. E.A.B.

"Udal Gobernuak ez du dagokion maila eman egoera zailetan"

MAIDER MORRAS EH BILDUREN BOZERAMAILEA ARRASATEKO UDALAN

Agintaldi "berezia" izan dela aitortu du Morrasek, pandemia eta krisi ekonomiko eta energetikoagatik. Halere, Gobernu "herritarren beharretatik urrun" egon dela uste du

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Agintaldiak orain arte emandakoari buruz aritu da Maider Morras (Arrasate, 1976).

Nola laburbilduko zenuke agintaldiak orain arte emandakoa?

Agintaldi berezia izan da, pandemiagatik eta orain daukagun krisi ekonomiko eta energetikoagatik. Guk lankidetzarako jarrera izan dugu batzorde guztietan, proposamen ugari eginez eta ideia asko elkarbanatuz. Udal Gobernuaren lana fiskalizatu dugu eta sail bakoitzean

gure ekarpenak egin. Gero, gure lanak izan du isla Gobernuak hartu dituen erabaki batzuetan. **Nola baloratzen duzu Udal Gobernuaren kudeaketa, oro har?**

Herritarren beharretatik urrun egon da. Egoera konplexu, zail

"ALDEBAKARREKOAK DIRA GOBERNUAREN ERABAKIAK; GU BIGARREN MAILAKOAK GARA HAIENTZAT"

edo gatazkatsuak gertatu direnean, ez du dagokion maila eman eta beste aldera begiratu du. Jendeak babesa eta zaintza behar izan ditu, eta hor huts egin du Gobernuak; desagertuta egon da. Behin eta berriz esan dute ez dutela inor atzean utziko, eta, azkenean, pertsona eta familia asko geratu dira atzean, krisiarekin ikusten ari garen moduan. **Zertan huts egin du Udal Gobernuak?** Ez du hitza bete. Zuntza hilabeteetan jartzea, erdiguneko gaztelekua aste pare batean birko-

katzea, bidegorri sarea osorik eraikitzea eta abar. Zer esanik ez, haren proiektu izarra: kiroldegia. Ezerezean dago.

Eta zertan asmatu du?

Asmatu du kultura eta musikarako bi azpiegitura eraikitzen, baita TAO sistema ezartzen ere, nahiz eta guk ez genukeen horrela kudeatuko. Ekiolako diruzko parte-hartzea ere positiboa da herriarentzat, baina herritar guztien eskura egon beharko luke, ez soilik bazkidetza ordaindu dezaketenen eskura.

Aldebakarrez jokatzeari leporatu izan diozue Gobernuari.

Hor arazo bat dugu, EAJren eredia eta EH Bildurena guztiz kontrakoa baita. Erabakiak hartzerakoan ez dute inolako ahalginik egiten gurekin ezer partekatzeke, hausnarketa komun bat lantzeko eta gehiengoz erabakiak hartzeko. Gobernuaren helburuak izan beharko luke oposizioaren ekarpenak barnebiltzea, eta hori ez da egiten hemen. Ez dute ikasi denok garaia arrasatearren ordezkari eta badaudela gai asko elkarrekin landu daitezkeenak. Erabakiak aldebakarrekoak dira eta gu bigarren mailakoak gara haienztzat, ez dago benetako elkarlanik.

Nolakoa izan da TAOren gestioa?

Hasieran, TAO sistema oso konplexua zen, eta diru-biltzailea. Guk eredia sinplifikatzea eta gune batzuetan doakoa izatea planteatu izan dugu, eta aldaketa horiek egin dituzte, azkenean; horrekin pozik gaude. Ez, ordea, langileen eta isunen zerbitzuaren pribatizazioarekin; hori ez dator bat gure ereduarekin.

Ekobulebar-a. Garibai etorbidea oinezkoendako da orain.

Hasierako proiektuarekin, erdigunea autobusez beteko litzateke, eta guk Laubide proiektua aurkeztu genuen alternatiba gisa, baina Gobernuak ez zигun azaltzeko aukerarik ere eman. Zorionez, auzotarrak ere mobilizatu ziren, eta, azkenean, Garibai etorbidea oinezko eta bizikletendako da. Pena izan da Grupo San Juango bizilagunei

"FEMINISMOA ETA EUSKARA EZ DIRA UDAL GOBERNUAREN LEHENTASUNAK IZAN AGINTALDI HONETAN"

ez dietela kasurik egin, baina, bestela, oso pozik gaude.

Zalduspeko geltokia ondo ari da funtzionatzen? Geltokia erdigunean jartzearen aldekoak zarete oraindik?

Zalduspekoak abantailak ditu, baina baita arazoak ere. Esaterako, Gasteiz, Bilbo eta Donostiarako autobusak ezin dira sartu erdigunean eta San Andresen, eta horrek oztupo handiak ekartzen ditu, batez ere, pertsona nagusien egunerokotasunean, urrun geratzen baita Zalduspe. Beraz, geltokiaren balorazioa egin behar da, eta hori herritarrek egin behar dute, erabiltzaileek, auzoetako biztanleek. Hori oinarritzat hartuz jakingo dugu non kokatu behar den Arrasatek merezi duen autobus geltokia, duina, eroso eta praktikoa.

Nola kudeatu ditu Gobernuak herriko lan-gatazkak?

Gobernuaren eredia azpikontratazioarena da, eta horrekin ez dira lan-baldintza duinak lortzen. Gobernuak ez da langileen eskubideen alde agertu lan-gatazketan, ez ostalariekin, ez lorezainekin, ezta Aita Menniko langileekin ere, eta langile horietako asko arrasatearrak dira. **Juan Arzamendi Musika Etxea eta Kulturola. Funtsezko bi eraikin.**

Noski, baina ez eraikin polit eta berriak izateko, kultur taldeen, eragileen eta ikasleen arteko sinergiak sortzeko baizik. Dinamikak eta sinergiak landu eta bultzatu egin behar dira, ez dira bakarrik sortzen, eta Gobernuak ez dauka horretarako planik.

Diozue feminismoa ez dela Udal Gobernuaren lehentasuna.

Emakume Txokoak aspaldi eskatu zuen lekualdaketa, segurtasunik ezaren harira, eta ez da ezer egin. Halaber, eragile feministekiko harremana hutsaren hurrengoa da. Ez dago inolako anbizio politikorik feminismoa lantzeko. Eskerrak Emakume Txokoko langileek ateratzen dutela lan feminista aurrera. Feminismoa eta euskara ez dira izan Gobernuaren lehentasuna. **Euskara ere ez?**

Udal Euskaltegiari bere lekua eman zaio, baina hori bakarrik. Ez dugu ikusi kanpaina bakar bat ere euskara bultzatzeko.

Alkategai izango zara maiatzean? Estatutuen arabera, alkategaia bilkideek aukeratzen dute, eta horretarako prozesua martxan da. Momentuz, ez dago izenik.

N Line 30. Urteurrena gama.

Nabarmendu zaitez



i20 N Line 30. Urteurrena

100 €-tik
aurrera hilean

- 100 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 6.330,50 €
- Azken kuota: 8.426,63 €
- UTB: %9,89*
- TIN: %8,25

Oharkabea pasatzea gustatzen ez zaien horietakoa bazara, zorteko zaude. Hyundai N Line 30. Urteurrena Edizio Berezia heldu da. Horrekin, gozatu ahal izango duzu i20 N Line-ren emozio guztiaz, i30 N Line-ren kiroltasunaz, KONA N Line-ren prestazio harrigarriez eta TUCSON N Line-ren diseinuaz eta dotoreziaz, aparteko ekipamenduarekin, sekulako prezioan.

Nabarmendu zaitez N Line 30. Urteurrena gamarekin.



Oarso Car Arrasate - Mugarri

San Andres auzoa 6 (Mugarri eraikina). 943 67 40 29 www.oarsocar.com



Hyundai i20 N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 115-120. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,9-5,3.
Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 120-142. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-6,3.
Hyundai KONA N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 137. Kontsumo mistoa (l/100km): 6,1.

Hyundai Tucson N Line 30. Urteurrena berria. CO2 emisioak (gr/km): 155. Kontsumo mistoa (l/100km): 6,1.

WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo eta emisioen balioak.

Hyundai Nuevo i20 5 ATE MPI 1.2 85 ZP N LINE 30. Urteurrena autoarentzako finantzaketaren adibidea. PSP: 20.700 euro. Finantzatutako prezioa: 16.400 euro. Barne hartzen ditu BEZa, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantentze-lanen eskaintza eta Hyundai-en Renove Plana, Hyundai ibilgailu bat erosi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez eroslearen titulartasunpean erabiltzeko ibilgailu bat entregatzeagatik aplikatzekoa. Sarrera: 6.330,50 euro. Formalizazio-komisioa, eskura ordainduta (%3,75): 377,61 euro. Finantzatutako zenbatekoa: 10.069,50 euro. 100 euroko 47 kuota eta 8.426,63 euroko azken kuota. Interesak, guztira: 3.057,13 euro. Kredituaren kostua, guztira: 3.434,74 euro. Zor den zenbatekoa, guztira: 13.504,24 euro. Epeko prezioa, guztira: 19.834,74 euro. TIN: %8,25. UTB: %9,89. Frantziako amortizazio-sistema. Hyundai Finance-rekin finantzatua Cetelem Bankuaren bitartez 2022/11/30era arte. Iragarri honetan agertzen diren modeloak: i20 N Line 30. Urteurrena, i30 N Line 30. Urteurrena, KONA N Line 30. Urteurrena eta TUCSON N Line 30. Urteurrena. Hyundai Motor España SLU enpresak bere azken bezeroei eskaintzen dien 5 urteko kilometraje-mugarik gabeko merkataritza-bermea Hyundai sare ofizialak hasiera batean salduko dituen ibilgailuei soilik aplikatu dakieke, zerbitzuko pasaportearen baldintzen arabera. Informazio gehiago, Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es webgunean.



Mutiko eta Tatta kantuan, iaz Monterronen egindako jaialdian. IMANOL SORIANO

Doinu urbanoek eztanda egingo dute gaztetxean

Arrasateko eta Iruñeko rap eta trap mugimenduko zenbait artista gazte igoko dira gaztetxeko oholtzara bihar, zapatua, 22:00etan hasita. Herriko ordezkariak Janda, Tatta, Mutiko eta Denso izango dira eta Iruñekoak, Txandal Vandals eta Hofe 4:40

Hasier Larrea ARRASATE

Reggaeton, trap, rap eta drill estiloetako kontzertua egingo dute zapatu gauean gaztetxean, 22:00etan hasita. Ikusmin handia piztu du hitzorduak gazteen artean, eta, aurreikuspen guztien arabera, bete egingo da 400 lagun ingururendako edukiera duen aretoa. Lau txandatan igoko dira musikari gonbidatuak: Janda lehenengo, Txandal Vandals bigarren, Tatta, Mutiko eta Denso hirugarren eta Hofe 4:40 azkenik. Ostein, testigua hartuko diete Aramaio An2an eta Arrasateko DJ Urbe musika jartzaileek; festak gau osoa iraungo du, beraz.

Janire Davila *Janda* izango da jaialdia irekiko duen musikaria. Jendaurrean agerraldi laburrak egin ditu orain arte, eta dio zapatukoa izango dela azken urtean landutako guztia erakusteko lehen aukera. Haren alboan Denso musika ekoizlea izango du, eta baita bi dantzari ere, reggaeton eta trap kutsuko

zenbait kanturi koreografiak gehitu baitizkiete. "Arduraz prestatu dugu ikuskizuna, gaztetxeetan ez direlako ohikoak gurea moduko proposamenak; emakumezkoek egindakoak, gutxiago", aipatu du Jandak.

Aramaion aritu da entseatzen egunotan, hain justu, Denso, Tatta eta Mutikorekin batera. Sortzaile gazte horiek publiko fidela dute dagoeneko eta haien abestiak oso ezagun bilakatu dira denbora laburrean. Sarera igo duten azkenengo abestiak, *Alesardui*-k, adibidez, milaka entzunaldi izan ditu egun gutxian. Esan daiteke olatu aparretan daudela, gaur-gaurkoz, baina oraindik muga urruti dutela.

250 SARRERA EGUNEAN BERTAN JARRIKO DITUZTE SALGAI GAZTETXEKO ATEAN, BOST EUROTAN

Nafar ukitua

Arrasate eta Aramaio artistak horiek hirugarrenak igoko dira oholtzara, haien aurretik Txandal Vandals iruindarren txanda izango da eta. Atera berri duten diskoa aurkeztera etorriko dira; drill eta trap doinuak nabarmentzen dira lanean, nahiz eta punka oso presente eduki euren eraginetan zein jarreran.

Laugarren artista gonbidatua Nafarroako hiriburutik dator baita ere, eta aski ezaguna da tokiko raparen munduan. Chill Mafia talde entzutetsuarekin batera Iruñerrian jaio den eszena berriaren erreferenteetako bat baita Hofe 4:40, Espainia mailan ere hainbat kontzertu emandakoa. Jandak aipatu du asko gustatu zitzaioela Hofe hain ezaguna ez zenean ikusi zuen emanaldia, eta, beraz, "gustura" partekatuko duela harekin eszenatokia. Gauak luze joko du, kontzertua Aramaio DJ An2anek eta Arrasateko DJ Urbek borobilduko baitute.

Bueltan da Aba Taano afrikar gospel taldea, asmo solidarioekin

Mundukide elkarteak Mozambiken duen proiektua babesteko emanaldia egingo dute bihar Amaian

H.L. ARRASATE

Mundukidek eta Harremanek gonbidatuta, palmares izugarria daukan boskoteak berriz bisitatuko du Amaia antzokia, duela hiru urte egin bezala. Musika-eriek gogoan dute orduko hartan arrasatearren aldetik jasotako harrera beroa, *Haurtxo txikia*-ren bertsio afrikarra abestu zutenean "benetan" hunkitu baitzen publikoa. Bihar ere, 19:30ean hasita, lepo beteko da aretoa, ez baita egunero ikusten nazioarteko hamaika sari irabazi eta Europako hamahiru herrialdetan 1.500 kontzertu baino gehiago eman dituen talde bat. Gainera, Goikobaluko gazteek lagunduko diete une batzuetan koruekin.

Landa garapena bultzatzeko

Mundukidek landa inguruneko herritarren garapen sozioeko-



2019an, Amaia antzokian. GOIENA

nomikoa bultzatzeko proiektua du Mozambiken, pobreziaren kontrako borrokan laguntzeko eta biztanleen diru sarrerak modu sostengarri eta bidezkoan handitzeko anbizioarekin. Egitasmo horri bultzada emango diote zapatuko ekitaldian.

Santa Zezilia egunean kalera irtengo dira herriko abesbatzak

Hilaren 22an, martitzena, musikarien patroia Santa Zezilia omen dute Goikobaluk, AGAK, Goikobalu Txikik, Txorbelak eta Portaloi elkarteak. 19:00etan hasiko dira kalean kantari, eta 20:30ean batuko dira Herriko Plazan. Hilaren 25ean Arrasate Musikaleko banda gazteak kalejira; eta 27an, bandak kontzertua egingo du San Frantziskon.

Kalean da Asun Agirianoren poema ilustratua

Arrasateko bibliotekaria denak *Atzamarra* lana argitaratu du, Elkar argitaletxearen eskutik eta Marina Garciaren ilustrazioekin. Txikitako pasadizo batean oinarritzen da kontaketa, haur baten pentsamendutik abiatuta. Bailarako liburu-dendetan eskura daiteke, baita Kulturaten maileguz hartu ere (Gaurko *Puntua*-n elkarrizketa).

Ez Donk Amaituren panelak ikusgai bost erakusleihotan

Herrian gero eta lokal gehiago itxita daudela ikusita, hausnarketa bultzatu gura du kolektiboak, eta 80ko hamarkadari buruz Kulturaten iaz erakutsi zituzten panelak kalera aterako dituzte, zehazki, Aranzabal-Iturriotz 15-, Lanasa Stop-Okendo 5-, Koro-Otalaria 1- Zubizarreta Galeria-Zerkaosteta 6- eta Mabel-Olarte 2- dendetara.

OHARRAK

Liher taldea egunean

Hilaren 24an, 22:00etan hasita, Kooltur egitarauaren baitan joko du Lide Hernando buru duen musika talde donostiarrak.

Zarzuelarik ez aurten

Arrasate Musikalen talde den Izaskun Murgia Lirika Elkarteak ez du aurten sasoi honen bueltan egin ohi duen zarzuelarik eskainiko.

Indarkeria-mota guztiak salatuko dituzte

Azaroaren 25ean, barikua, elkarretaratzea egingo dute plazan, 18:00etan. Egun horren bueltan beste zenbait ekitaldi ere egingo dituzte. Lehena eguaztenean izango da: 17:30ean, gizonezkoei zuzendutako 'Parekidetasunerantz' tailerra egingo dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Azaroaren 25aren bueltan egi-tarau zabala prestatu dute Aramaioko Udalak, Itur Zuri emakume taldeak eta Talde Feministak elkarlanean. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen da; besteak beste, "oraindik ere gizartean dagoen eskubide desorekak indarkeria eragiten duelako emakumeengan".

Eguaztenean, tailerra

Gizonezkoendako tailerra egingo dute azaroaren 23an, eguaztena. Ez da ekintza puntuala izango; iazko abenduaz geroztik, gizonezko talde bat maskulinitatearen inguruko saioak lantzen ari da. Feminismoaren, genero rolen, indarkeriaren eta abarren inguruan hausnartzen dute. Eguazteneko saioa udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 17:30etik 20:30era.

Barikuan, azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo dute, plazan, 18:00etan. Itur Zuri emakume elkarteak Maider Bidaburu: "Beste ekitaldi bat ere egingo dugu, sinbolikoa. 2022an hil dituzten hiru emakume eta ume bat gogoan izateko. Herriko lau puntutan oinetako batzuk jarriko ditugu, jendeak kontzientzia izan dezan zer dabilen pasatzen".

Talde Feministako kide Sonia Etxenausiak hau gaineratu du: "Elkarretaratzearen ondoren, sinadurak batuko ditugu Immigrazio Legea aldatzeko eskatzeko".

Biolentzia obstetrikoa

Zapatuan, azaroaren 26an, biolentzia obstetrikorekin gaineko saioa egingo dute. Nerea Azkona eta Itziar Eizmendi izango dira hizlariak, Esku Hutsik elkartearen kideak. "Indarkeria matxista eta patriarkalaren beste forma bat da biolentzia obstetrikoa. Haurdunaldian hiltzen diren umeen inguruko tabua dago, adibidez; leku hori bete



lazko elkarretaratzea. A.E.G.

du Esku Hutsik elkarteak. Bestalde, erditzearen ondoren geratzen diren ondorio fisikoak, hormonak, menarkia, menopausia... landuko dituzte", dio Etxenausiak. Erditzeko garaian sortzen diren kezkek eta horien

kudeaketaz hitz egingo du duela urtebete pasa sortutako taldeak. Erretiratuen elkartearen izango da hitzaldia, 10:30etik 12:00etara. Herritarrek gonbidatu nahi dituzte ekitaldietan parte hartzera.

Bi zinema-ziklo feminista

Antolatu dituzten ekitaldien barruan, bi zinema emanaldi egongo dira. Itur Zuri emakume taldeak *Paulina* filma eskainiko du azaroaren 27an, domeka, 19:00etan, kultura etxean. 2015. urtean Santiago Mitrek zuzendutako filma da, eta Dolores Fonzi du protagonista. Paulina abokatu gazte bat da; abokatu lanak alde batera utzi eta irakasle hasiko da auzune apal batean. Han, gau batean, eraso eta bortxatu egingo dute.

Abenduaren 2an izango da beste zinema-ziklo feminista, 19:00etan, kultura etxean. Ikusiz Gozatu elkartearen eskutik. *5 lobitos* filma emango dute, eta, gainera, Zinhezba elkartearen kideek solasaldia dinamizatuko dute. Zinhezba 2004an sortutako elkartea da eta helburu hau du: zinemaren bidez giza eskubideetan hezte. *5 lobitos* filmak familia barruko erlazioak tratatzen ditu.



Paulina filmeko irudi bat.



JULEN ABARRATEGI

Aukeratu dituzte argazki onenak

Epaimahaiak dagoeneko jakinarazi ditu Aramaioko argazki lehiaketako irabazleak. Sari nagusia Julen Abarrategik irabazi du, *Anboto lainoen gainetik* argazkiarekin (Goiko irudian irabazlearen xehetasun bat). Guztira, 64 aurkeztu dituzte lehiaketara; horiekin osatuko dute 2023ko egutegia. Sari nagusiaz gainera, urtaro bakoitzeko argazki onena ere saritu dute.

Hiru txirlo txapelketako finala Etxaguenen izango da

Euskal Herriko hiru txirlo txapelketa azkeneko saiora iritsi da; bost saio jokatu ostean, finala jokatuko dute bihar, Etxaguenen bolatokia. 12:00etan izango da saioa. Izen-ematea 5 euro da, eta edonork parte har dezake. Txapelketan lehiatzeko, aldiz, federatuta egon behar da. Txukundu egin dute Etxaguenen bolatokia.

Etxeko txikienei zuzendutako bi saio egingo dituzte

Haziaraba in the mapping jaialdiaren barruan, bi ekitaldi egingo dituzte aste bukaeran: bihar, zapatua, *Xokolat* ikuskizuna egingo dute 2 eta 5 urte bitarteko umeendako, 18:00etan, kultura etxean; domekan, *Minimach animazioa* film laburrak emango dituzte, 18:00etan, kultura etxean. 2 eta 6 urte arteko haurrentzako emanaldia izango da.

Xaboi naturalen ikastaroa egingo dute abenduaren 1ean

Xaboi naturalen ikastaroa egingo dute abenduaren 1ean, sendabelarrak eta kosmetika naturala ardatz hartuta. Ekoudalatx mintegiko arduradunak izango dira ikastaroa gidatuko dutenak. Aurrez eman behar da izena, 665 70 21 92 telefono zenbakian. Ordainketa egunean bertan egingo da: 15 euro orokorra; eta ekonomatuko, bazkideek 10 euro.

Erretiratuek "denek denen aurka" egingo dute musean

Erretiratuen elkartearen "denek denen aurka" mus txapelketa egingo dute datozen asteetan. Zortzi bikotek eman dute izena; beraz, zazpi lehia jokatu beharko ditu bikote bakoitzak. Asten bi partida jokatuko dituzte. Antolatzaileek azaldu dute txapelketaren helburua dela erretiratuak elkartzea eta euren arteko harremanak lortzea.



Marianela, Petri, Casilda, Rafa, Arantxa, Julian, Maite –irakaslea– eta Cris joan den astean, eskolak hasi aurretik. MIRARI ALTUBE

Erretiroa hartu ostean euskaraz ikasten

Hamabi laguneko taldea astean bi egunetan elkartzen da Leintz Udal Euskaltegian Maite Uranga irakaslearen esanetara. Orain dela hiru urte sortu zuten taldea, baina pandemiak etenaldia ekarri zuen, eta berriro ekin diote lanari; gogotsu ekin ere

Mirari Altube ARETXABALETA

Leintz Udal Euskaltegiak hara eta hona zabaltzen du euskaraz ikasteko eskaintza, urtero, ikasturte hasieran: etxeetara, lantegietara, ikasleen artera... Eta 2019ko irailean, eskaintza horri heldu eta herriko hainbat erretiratutako eskolara itzultzea erabaki zuten.

"Sasoi hartan euskaraz ikasten zegoen ikasle bat Basotxo erretiratuen taldeko zuzendaritza batzordean sartu zen. Ohiko talde horretako erritmoa biziegia zela iritzita, beharbada, erretiratuen talde bat sortzea proposatu zuen; baita beste erretiratu batzuk animatu ere izena ematera", azaldu du Gurutze

Larrinagak, euskaltegiko irakasleak.

Siestara beharrean, eskolara

Orain dela hiru urte sortu zen talde hori pandemiak bete-betean harrapatu zuen, eta eskolak bertan behera utzi beharrean izan ziren 2020ko martxoan. Urtebete geroago, etxetik *online*

jarraitzeko saiakera egin zuten, baina ez ziren ondo moldatu, eta etetea erabaki zuten.

Aurten berrekin diete eskolei eta hamabi laguneko taldea osatu dute. Astelehen eta eguaztetenan elkartzen dira; siesta egiteko tarterik hartu barik, fin-fin joaten dira bazkalostean bi orduz euskaltegira. "Gogotsu daude eta polito dihardute lanean", dio Maite Urangak, haien eskolen ardura duen irakasleak. Gehienak aretxabaletarrak dira, baina badago eskoriatzar bat, eta Gatzagatik datorren beste bat ere bai.

B mailan daude eta euskarara hurbiltzea da helburua. "Horretarako, ezagutza orokorrak lantzen ditugu, hiztegia... Murgiltze prozesuan gaude, hasierako fasean", azaldu du Urangak, eta gaineratu: "Ulermen eta eguneroko jardunean euskara erabiltzeko gaitasuna eskuratzea da haien erronka; erosketak egiteko, adibidez. Askok ilobak dituzte eta haiekin euskaraz jardun gurako lukete".

Merienda "asko"

Ikasleak "pozik" agertu dira irailetik hona egindako lanarekin; horien artean daude Arantxa eta Rafa senar-emazteak: "Aurten hasi gara gu, eta, erretiratuta egonda, denbora dugulako gatoz. Askok gabiltza ikasten, baina poliki-poliki. Gure helburua da kalean eta lagunartean euskaraz hitz egitea". Petri ere

gustura dago oraindik ondo ez moldatu arren eta dio idatzizkoari baino gehiago hitz egiteari ematen zaiola garrantzia taldean; horregatik, gehiago dabiltzala ikasten: "Baina hitz egiterakoan urduri jartzen naiz, eta ezin asmatu!".

Taldekieken artean erretiratua ez den bakararra dago: Perutik etorritako Marianela. Dagoeneko bi urte daramatza euskaltegian: "Orain dela lau bat urte etorri nintzen Aretxabaletara, eta zerbait ulertzen dut".

Ikastea garrantzitsua izanik ere taldean sortu den giroari eman diote balioa guztiek: "Herrikideak izanik elkar ezagutzen dugu, eta giro polita sortu da. Gainera, oso irakasle jatorra dugu!". Larrinagak berretsi egin du hori: "Sarri dute urtebetetze bat edo ospakizun bat... Eta beti dago merienda gela horretan!".

Euskaraldia berbetagai

Abiatu berri den Euskaraldia berbetarako gai izango dute egunotan: "*Belarriprest* txapak ekarri eta Euskaraldiarekin bat egitera animatuko ditugu". Taldekide gehienendako lehenengo aldia izango da.

"EGUNEROKOAN EUSKARAZ MOLDATZEKO GAITASUNA ESKURATU GURA DUTE"

Aste honetan azken faseko lanei ekin diete Santakurtz kalean

Expres tabernatik Otalora kalera doan tartean jardungo dute lanean, baita Kurtzebarri eskola inguruan ere

M.A. ARETXABALETA

Santakurtz kalearen berrurbanizazioari amaiera emateko geratzen diren azken bi faseetako lanei martitzenean eman zieten hasiera. Obra-zuzendaritzak erabaki du laugarren eta bosgarren faseak aldi berean egitea, lurpeko azpiegitura sarearen banaketa kontuan hartuta. Hala, Sasoi Eraikuntzak enpresako makinak Expres tabernatik Otalora kalera doan tartean jardungo dute lanean datozen asteetan, baita Kurtzebarri eskola inguruan ere.



Expres eta Otalora arteko gunea. M.A.

Horren ondorioz, zirkulazioan hainbat aldaketa egin dituzte. Kurtzebarri eskolaren eraikina igaro ondoren, ibilgailuek Arkupe ondoko tunela zeharkatuko dute Otalora kalera joateko –beheranzkoa izango da zirkulazioa–; eta tunela ezin izango dute zeharkatu 2,6 metro baino gehiagoko altuera duten ibilgailuek.

Gabonetarako bukatuta

Hirugarren faseko lanak, bestalde, azaro amaierarako bukatuko dituzte eta bizilagunek Iparragirre eta Sarasate artean aparkatu ahal izango dute orduan.

Santakurtz kalearen lanen helburua da hornidura eta saneamendu sareak ordezkatzeta eta kalea berriz urbanizatzea. Xabi Otxoa Hirigintza zinegotziak adierazi duenez, Gabonetarako amaituko dituzte, ondo bidean.

GORA ETA BEHERA



Zabor-poltsa lurrean botata, katuen gozagarri

Bizkaia kaleko edukiontzi baten alboan birgarroz betetako zabor-poltsa bat agertu zen joan den astean. Katuek apurtu eta zikinkeria zabaldu zutela salatu du bizilagun batek: "Hegazti gaixoak akabatu lehenengo; zaborretara bota gero; eta gainera, edukiontzian sartu ez poltsa. Halakorik gero!"

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



Zinema aste bukaeran iritsiko da Arkupera

Arteman agentziari eman dio zinema proiektzioaren ardura Udalak; urtebeterako, luzatzeko aukerarekin. Hala, apirilera bitartean emango dituzte filmak, gaur hasita: helduek, 'El cuarto pasajero' izango dute eta haurrek 'Orkestra lurtarra'

Mirari Altube ARETXABALETA

Bueltan datoz filmak Arkupera zinema proiektzioaren zerbitzua esleitu ondoren. 60.487 eurotan -BEZa barne-, Arteman komunikazio agentziari eman dio Udalak horren ardura, urtebeterako; ondoren, beste bi epealdi luzatzeko aukera egongo da. Apirilera arte iraungo du zinema denboraldiak, beste urte batzuetan legez.

"Lehentasuneko gaia"

Irailean hutsik geratu zen udal zerbitzu horren lehen lizitazio deialdia, eta horrek zerbait atzeratu du filmen proiektzioa. Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak horren arrazoia azaldu ditu: "Aurkeztu zen enpresa bakarrak ez zuen eskaintza ekonomikoa jaso kontratazio pleguetan eskatzen zen bezala". Urrian bigarren deialdia egin zuten: "Gaiari lehentasuna eman diogu eta urrian beste deialdi bat egin zen, prozesua bizkortzeko epeak egokituta. Ostiral honetatik au-

rrera, beraz, zinema Arkupera itzuliko da".

EH Bilduk zinema denboraldiaren atzerapenaren berri eman zuen orain dela hilabete inguru, "esleipen prozesua garaiz ez abiarazi izanagatik". Caberok deitoratu egin du "hedabideetan eta beste kanal batzuetan adierazpen publikoak" egin izana: "Urtarrilerako edo otsailerako arte zinemarik ez genduela izango ziurtatuz, herritarren artean ezinegon sortzeko eta Udal Gobernu honen kudeaketa zalantzan jartzeko asmoarekin".

Era berean, gogorarazi dute "zerbitzu honen aldeko apustuan" Udalak 45.000 euro inbertitu dituela aurren, zinema-proiektore bat erosteko: "Horri esker,

ALEX DE LA IGLESIAK ZUZENDUTAKO 'EL CUARTO PASAJERO' FILMA IZANGO DUTE HELDUEK

Zaraia aretoa ekipo digital batez hornitu ahal izan da".

'El cuarto pasajero' eta 'El vasco'

Alex de la Iglesia zuzendari eza-gunaren *El cuarto pasajero* filmak abiaraziko du zinema denboraldia gaur, egubakoitza (22:00); Blanca Suarez, Alberto San Juan, Ernesto Alterio eta Ruben Cortada ditu protagonista. Filma emango da zapatuan (19:30) eta astelehenean, ikuslearen egunean (16:00). Umeek, oster, *Orkestra lurtarra* filma ikusi ahal izango dute, zapatuan (17:00).

Azken aste bukaeran Jabi Elortegi zuzendari bermeotararen *El vasco* izango dute helduek, Joseba Usabiaga eta Itziar Aizpuru protagonista izanik; hilaren 25ean (22:00), 26an (19:30), eta 28an (16:00) emango dute. Umeek, oster, *Dc Supermaskoten liga* ikusi ahal izango dute zapatuan (17:00). Domeketan, hilaren 20an eta 27an, ez da zinema emanaldirik izango, beste ikuskizun batzuk daudelako.

Argazkia eta dantza Euskaraldiari indartsu ekiteko

Iritsi da Euskaraldia eta Aretxabaletan ia 1.000 lagunek egin dute bat. Dinamikari indartsu ekiteko horiek guztiak elkartu gura dituzte. Hala, gaur, egubakoitza, argazki erraldoia aterako dute, 17:30ean, Herriko Plazan; ondoren, dantzan egingo dute Euskaraldiko kantuarekin Pirritx eta Porrotx pailazoez sortutako koreografiari jarraituta.



Aretxabaletako batzordeko kideak. M.A.

Azaroaren 25aren harira hainbat ekitaldi datozen egunetan

Indarkeria matxistaren arloan kontzientzia sustatze aldera hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak. Hala, *Me quiere, no me quiere* lana ekarriko du El Terral antzerki konpainiak, domekan (19:00). Indarkeria matxista pairatzen duten hainbat pertsonaia-aren bizitzaren berri emango du, tratatu txarretatik onetara bidaia eginez, eta arreta jarriko dute

bikote-harreman osasuntsuetan. Eta egunean, hilaren 24an, *Zarata* erakusketa eskainiko dute Arkupen (16:00-19:00). LGBTI+ kolektiboaren gaineko ikuspegia zabaltzea du helburu eta entzumenaren bidez hamar istorio ezagutu ahal izango dira.

Bestetik, eguaztenean, hilaren 23an, *Coreografías de la transgresión* dokumentala emango dute Arkupen (18:00). Erdu talde feministak antolatu du eta filmaren ondoren solasaldia eta afari-merienda egingo dituzte.

Kalean ospatuko du musika eskolak Santa Zezilia eguna

Musikariaren zaindaria Santa Zezilia izango dute gogoan martitzenean, azaroaren 22an, Leizarra musika eskolako kideek. Trikitilariak, Banda, dantzariak eta Musika Hezkuntzako ikasleak elkartuko dira Herriko Plazan, 18:00etan. Ordu erdi inguruko saiotxo bat eskainiko dute, eta ospakizuna txokolate beroa hartuta bukatu.



Musika eskolako trikitilariak. M.A.



Artemaneko Arantzazu Lagunilla, Kultura teknikari Inma Miguel eta Kultura zinegotzi Ainhoa Cabero, Zaraia aretoan. KOLDO ZUBIA

Jou Díaz

Karakina

Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Joserra Zubizarretak (Eskoriatza, 1955) zortzi urte beteko ditu alkate jardunean.

Nola baloratzen duzu agintaldia?

Agintaldi gorabeheratsua izaten ari da. Alde batetik, zaila, gainditzeko ari garen pandemia eta sufritzen ari garen Ukrainako inbasioaren ondorioak direla eta. Baina, bestetik, gustura, zailtasunak zailtasun, aurrera egiten jakin izan dugulako. Lasai asko esan dezaket, esan genuena egingo genuenari heldu eta irtenbide aproposenak bideratzen saiatu garelako. Bestalde, herritarren animo eta gertutasuna sentitu dudalako eta dugulako eta nahi izan duen guztientzat irekita egoten jakin dugulako.

Bete dira agintaldi hasierako helburuak?

Hauteskundeetan hamar ekin-tzako programa aurkeztu genuen eta ia denak aurrera eraman ditugu, kanpoko igerilekua eta pilotalekuko berrikuntza izan ezik. Baina aurrerapauso handiak eman ditugu etorkizunean gauzatu ahal izateko; pilotaleku berriaren aurreproiektua dagoeneko eginda dago eta igerilekukoari urtea amaitu baino lehenago heltzeko asmotan gaude. Horretaz aparte, hiritarrek eskatuta edo lagunduta hainbat proiektu berri martxan jarri ditugu: San Pedro goiko parkea berritzea eta txakurren txokoa. Eta agintaldia bukatu baino lehenago beste batzuekin arituko gara: skate parke berria eta muskulazio-gimnasioa egiteko proiektua.

Zenbateraino baldintzatu du pandemiak Udalaren lana?

Ba, asko, nahiz eta hasieratik Udalaren ia zerbitzu gehienak herritarren zerbitzura egon ziren. Udala gutariko etxe bakoitzera eraman genuen, herritarren zerbitzura egon ahal izateko. Eskertu egin nahiko nuke Udaleko langileek egindako ahalegin berezia. Gure errekursoak herrian sortzen ziren beharrei erantzuteko jarri genituen, hala nola gizarte zerbitzuak indartu eta zeuden protokoloak egokitu, taberna eta langile autonomoentzat dirulaguntza bereziak jarri, erosketa-bonuak, behar zutenetxera laguntzak bideratu... Pandemiak ohiko diru-sarrerak baldintzatu zituen eta geneukan



Joserra Zubizarreta, Eskoriatzako alkatea, alkatetzan. IMANOL BELOKI

"Nahi izan duenarentzat irekita egoten jakin dugu"

JOSERRA ZUBIZARRETA ESKORIATZAKO ALKATEA

Herritarrek eskatuta edo lagunduta hainbat proiektu berri martxan jarri dituztela adierazi du Zubizarretak; agintaldia amaitzean, balorazio positiboa egin du

dirua momentuko lehentasunei dedikatu genien. Ondorioz, hainbat proiektu gelditu edota atzeratu egin behar izan genituen. **Zeintzuk izan dira zuen lan-ildo nagusiak?**

Bi ardatz izan ditugu nagusiki: bat, herritarren arreta zerbitzu hobeagoa martxan jartzea; eta bigarrena, berriz, hauteskundeetan esandakoak markatu dizkigu agintaldiko ildo nagusiak. EAJ bezala hainbat konpromisorekin aurkeztu ginen, eta zailtasunen gainetik horiek betetzea izan da gure helburua. Hori, eta aipatu dudan moduan, herritarrek edota herriko kolektibo desberdinek eskatuta-

koari kasu eginez. Garbi dugu herritarra gure ardatza dela. Horrexegatik, herritarren arreta zerbitzu hobeagoa martxan jarri dugu: *H@zi* arreta zerbitzua. Eta emaitzak hor daude; udaletxera etorri direnek al daketa izugarri igarri dutelakoan nago. Horrez gain, gauzatutako beste proiektu batzuen artean, Luis Ezeiza eskolan egindako hobekuntza guztiak, Bidebarrieta eta Gatz Bideko berrikuntzak, San Pedroko parkean aisialdi-gune berria, elizateetan garatutako proiektua eta abar.

Proiekturen bat geratu zaizue martxan, bukatu gabe?

Skate park berria maiatza baino lehen gauzatzea aurreikusten dugu; baita hainbat elizateetan argiteria publiko sare guztiak borobiltzea; eta zebra-bideen berrikuntza egitea Aranburuzabala kalean. Beste batzuek, berriz, hurrengo agintaldira arte itxaron beharko dute: pilotalekuaren berrikuntza, muskulazio-gimnasioa eta musika eskola berria egiteko proiektua. Ez ahaztu hauteskundeak datozela, eta horrek etorkizuna markatuko du.

Nolakoa izan da oposizioarekin harremana agintaldi honetan?

Normala. Eragin gutxikoa; datu batzuk emango dizkizut: 2021eko

eta 2022ko osoko bilkurak kontuan hartzen baditugu, 25 bilera izan dira eta euren parte-hartzea hau izan da: batean, haiek laurrek parte hartu dute, bederatzitan bat falta izan da, hamabitan bi falta izan dira eta hirutan hiru falta izan dira; beraz, uste dut hitzak sobran daudela. Baina beste datu bat emango dizut: 2022ko aurrekontua, hasiera batean, 5.321.120 eurokoa izan zen; euren ekarpenak 17.873 eurora mugatu ziren. Hau da, aurrekontu osoaren %0,34.

Eta nolakoa izan da Eskoriatzako Elizateen Elkartearekin?

Aurreko agintaldian lagundu ziguten eta oraingoan hasieratik eskaini genien gurekin akordioa egitea; alde biek onartu genuenez, aurrera. Eta emaitza oso baikorra izan da. Alde batetik, sinatutakoa bete egin dugulako, eta, bestetik, beste talde politiko batekin gobernatzeak norberaren ikuspuntua zabaldu eta aberastu egiten duelako. Elizateetako errealitatea hobetzen ulertzen lagundu digute. Aprobetxatu nahiko nuke agintaldi hasieran utzi gintuen Iñaki Kerejeta gogora ekartzeko. Pertsona zintzoa eta langilea. Haren ordezkioak, Leire San Vicentek, lan bikaina egiten dihardu, eta hori aipatzekoa da.

Intxaurtxuetako lanak, Dorletako zubikoak, Dorleta haur parkekoak... Noiz hasi eta bukatuko dira lan horiek?

Proiektu horietan herritarrek eman dizkiguten aholkuak jarraitzen saiatu gara. Dorleta eta Huhezi arteko zubia eta Intxaurtxuetako arrapala egiteko lanak batera hasi ziren, irail bukaeran, eta azaro bukaera inguruan amaituko dira. Dorletako haur parkea berritzeko lanak orain hasi dira eta Gabonak arte-edo iraungo dute.

Statkraft energia berriztagarrien ekoizpeneko enpresakoekin batu zineten. Zein itxura hartzen diozue proiektuari?

EAJn beti egon gara energia jasagarriaren alde, eta euskal erakunde publikoetatik beti babestu eta bultzatu ditugu horrelako ekimenak. Energiaren Euskal Erakundeak bultzatutako kanpainak eta Ekiolak, adibidez, argi eta garbi adierazten dute gure nazio proiektua etorkizuneko proiektua dela. Norvegiarren proiektuari buruz esango nuke

oraindik hasierako faseetan da goela; bideragarritasun ekonomiko eta teknikorik, guk daki-gula, behintzat, oraindik ez daukate. Eta, gainera, haren tamainagatik, Espainiako Gobernuaren menpe dago eta Euskadin oso ondo dakigu Espainiako Gobernuak zer-nolako kudeaketa egiten duen; beraz, pazientzia.

Energiarekin jarraituz, Gabonak gertu daude; aurrezteko ze beste neurri hartu dituzue?

Gabonetako argiak beranduago piztuko ditugu, abenduaren 15ean, eta argi guztiak LEDekoak izango dira. Baina energiaren gaia dela eta, geotermia ezartzeko gauzatzen ari garen proiektua aipatu nahiko nuke. Energiaren Euskal Erakundearen laguntzarekin garatu nahi dugu eta haren helburua gasaren dependentzia jaistea da hainbat eraikin publikotan: kiroldegian, Luis Ezeizan, liburutegian... Aurrezpen ekonomikoa ekarriko du, baina, bereziki, Errusiarekin eta Aljeriarekin daukagun menpekotasuna txikitu egingo dugu. Proiektua urtarilean esleitu nahi dugu, eta 2023ko negurako martxan egotea espero dugu.

Abenduan onartuko dituzue aurrekontuak? Zeri emango diozue garrantzia?

Udal langileen ekarpenak jasota, alderdi politikoek jasoko ditugu, eta abenduan aurrekontuak onartzea aurreikusten dugu; horrela, 2023ko hasieran diru-partidak erabilgarri egongo dira. Gizarte babesa eta inbertsioak izango dira ildo nagusiak. Aurreikusitako inbertsio nagusiak, berriz, geotermia proiektua, skate parke berria eta elizateko azpiegiturak.

Bi agintaldi alkate gisa; zerrendaburu aurkeztuko zara hurrengo udal hauteskundeetan ere?

Orain dela gutxi hasi da EA Jren barne prozesua, hautagaiak aurkeztu eta aukeratzeko. Eta ni neu prozesu horrekin errespetutsua naiz.

"SKATE PARK BERRIA MAIATZ AURRETIK GAUZATU NAHI DUGU"

"GEOTERMIA PROIEKTUA DUGU ESKU ARTEAN"



Astehenean, Olazar Erretiratuen Elkarteko zenbait kide, tabletan eta eskuko telefonoen hastapen ikastaroan. IMANOL BELOKI

Teknologia berrietan sakontzeko saioak

Gurutze Gorriak antolatuta, Olazar Erretiratuen Elkarteko kideentzat tabletan eta eskuko telefonoen hastapen ikastaroa hasi dute, talde txikietan banatuta; parte-hartzaile bakoitzaren beharretara egokitutako saio pertsonalizatuak izango dira

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Ez da lehenengo aldia Debagoieneko Gurutze Gorriak Olazar Erretiratuen Elkarteko kideentzat tabletan eta eskuko telefonoen hastapen ikastaroa antolatzen duela. Eskoriatzako erretiratuek eskatuta, eta Olazar Erretiratuen Elkarteko Juntakoek beharra ikusita, berriz ere ikastaroa antolatzea erabaki dute, pandemiaren ondorioz behar hori handitu egin dela ikusita.

Teknologia berriak erabiltzeko zailtasunak dituzten edo teknologia berriak erabiltzeko gaitasun digitalik ez duten 65 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago ikastaroa. Aste honetan hasi dira, eta datorren astean

ere batuko dira zenbait lagun, bi taldetan banatuta, egunero-kotasunean erabiltzen diren gailuen gainean gehiago ikasteko asmoz.

Talde txikietan ikasten

"Lau orduko ikastaroa ematen ari gara Olazarren Erretiratuen Elkartean. Batez ere, tableta erabiltzen erakutsiko diegu partaideei, nahiz eta mugikorrarekin dituzten zailtasunak guztiak ere argituko dizkiegun. Pandemiak erakutsi digu gailu hauen beharra dutela nagusiek, eta, beraz, oinarritzko kontzeptuak irakatsiko dizkiegu", adierazi du Alba Casaresek, Debagoieneko Gurutze Gorriko teknika-

riak. Gaineratu du zortzi laguneko taldeetan banatuta ari direla ematen saioak. Horrela, ikastaroan tableta erabiltzeko garaian maila ezberdinak dituzten kideak egon arren, hein batean, ikastaro pertsonalizatua eskaintzeko aukera ematen da.

Besteak beste, helburu ugari ditu tailerrak: tramite digitalak egitea –prestazioak eskatzea, kudeaketa administratiboak eta abar–; gailu teknologiko bat nola erabili jakitea; online kudeaketak egiteko konektibitatea izatea; eta ezagutza digitalak eskuratzea. Hala ere, partaideen beharretara egokituko dira saioak. Oinarritik hasi, eta ahal dutenera arte.

Elkartearentzat aberasgarria

Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek begi onez ikusten dute horrelako tailerrak izatea, eta adin nagusiko jendeak zailtasunak dituela adierazi. "Hutsetik hasita, tabletan eta mugikorraren erabilera ikasten hasi gara, parte-hartzaile bakoitzak ikasi ahal duen neurriraino. Mugikorrerako pantailaren atzeko horma-irudia aldatzea, Whatsapppe argazkiak eta bideoak bidaltzea, Facebook erabiltzea, aplikazioak jaistea, banketxearekin egin beharreko eragiketak egitea... Beharrezkoa da jakintza", adierazi du Jasone Orbegozok, Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak.

Era berean, Olazar Erretiratuen Juntan aldaketak egin behar direnerako ere garrantzitsua dela uste dute erretiratuen kopuru handi batek teknologia berrien jakintza minimo bat izatea. "Erretiratuen elkarteko batzordea bi urtetik behin aldatu egiten da. Kontua da sarritan izaten dugula jendea Internet eta gailuak ez dituen erabiltzen, baita ez dakitela erabiltzen esaten dutenak ere. Hori horrela, kezka bat ere kendu nahi dugu ginetik, beti pertsona berak ez izateko bueltara batzarrean".

Izen-ematea zabalik dago

Ikastaroak Olazar Erretiratuen Elkarteko sukalde pareko gelan ari dira egiten, eta, dagoeneko ikastaroa hasita dagoen arren, saioetan parte hartzeko aukera dagoela gaineratu du Jasone Orbegozok. "Kurtso motzak eta jende gutxiak izatea nahi dugu, hobeto ikasteko. Hala ere, zabalik gaude, eta, hain zuzen ere, ondo funtzionatzen badu, gehiago eta gehiagotan antolatuko ditugu halako saioak".

EUSKARALDIA

Mintzodromoa, Euskaraldiari ongietorria egiteko

Euskaraldiaren hirugarren edizioa gaur hasiko da. 500 eskoriatzarrek eman dute izena. Fernando Eskoriatza plazan karpa jarriko dute aurtengo Euskaraldiak iraun bitartean, eta musika eskolako ikasleek irekiko dute karpa, gaur, 17:00etan, Santa Zezilia eguna-

ren baitako emanaldiarekin. Ondoren, mintzodromoa egongo da, Eskoriatzako Berbalagunak taldeak antolatuta, eta asmoa da euskarazko mintzapraktika egitea; euskara praktikatu nahi dutenek aukera izan dezaten, eta, euskaraz ondo egiten dutenek besteei euskaraz hitz egiteko aukera emateko. Gaurko ekintzez gain, bihar, zapatua, Euskaraldiaren Herri Eguna izango da.

'Kontzientzia eguna feminismotik' saioa azaroaren 23an

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoek *Kontzientzia eguna feminismotik* hitzaldia antolatu dute hilaren 23rako. Saioa 18:00etan izango da, kultura etxean, eta SAP (Guraso Alienazioaren Sindromea) indarkeria sufritu duten emakumeak izango dira hizlari, instituzioen babesgabetasuna eta indarkeria hizpide, hain zuzen ere.

OHARRAK

Bisita gidatua

Domekan, 10:00etan, Fernando Eskoriatza plazan elkartuta, Axtrokiko ontziak aurkitu ziren parajea ezagutzeko bisita eta museoan dauden erreplikak ikusteko bisita.

Dantzaldia plazan

Imanol eta Larrañaga musikariek dantzaldia egingo dute domekan, 18:00etan.

Ekofaxismoaren gaineko ohartarazpenak

Eguaztenean 40 bat lagun elkartu ziren ESK sindikatuak antolatuta Carlos Taibok Elgetan egindako hitzaldian. Planetaren kolapsoa saihestezin ikusten du, eta ekofaxismoaren arriskuaz ohartarazten du. Hainbat gogoeta-ildo planteatzen ditu

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

2016an argitaratutako *Colapso* liburuan jaso zuen lehen aldiz *ekofaxismo* hitza Carlos Taibok (Madril, 1956). Gaian sakontzen duen *Ecofascismo* liburua kale-ratu du orain. "Ekofaxismoa mugimendu bat da zeinaren bidez klima-aldaketaren ondorioez eta lehengai energetikoen agortzeaz jabetuta munduko klase agintari batzuek nabarmen urriak diren baliabideak gutxiengo batentzat babesteko lanari ekingo dioten", azaltzen du. "Planteamendu horren atzean ideia bat dago: munduan jendea soberan dagoela, eta soberan daudenak baztertzea litzateke helburua –hori egiten dute dagoeneko-. Ekofaxismoaren bertsio muturrekoenean legoke soberan ikusten diren populazio horiek sarraskitzea".

Hainbat gogoeta-ildo

Gaia oinarri hartuta hainbat gogoeta-ildo aurkeztu zituen Taibok Elgetan. "Badakit termino honen *eko* aurrizkiak harri-dura ere sor dezakeela; izan ere, aurrizki horrek errealitate osasungarriak edo, gutxienez, errealitate neutroak adierazi ohi ditu (...) Ekofaxismoa ez da proiektu ukatzailea; ez du klima-aldaketa ukatzen. Ekofaxismoa kolap-



Carlos Taibo eguaztenean Elgetan. L.Z.L.

"EKOFAKISMOA KOLAPSOARI EMANDAKO ERANTZUN BAT DA; KOLAPSO MODU BAT"

soari emandako erantzun bat da; hobeto esanda, kolapso modu bat da".

Horregatik dio Taibok ez dela zuzenean eskuin muturreko mugimenduekin lotu behar. Botere politiko eta ekonomiko

nagusien baitan ikusten du ekofaxismoaren indar hartzea. "Batez ere, mendebaldeko eliteak ditu gune nagusitzat. Entzuten dudanean norbait esaten –asmo onez, akaso– klima-aldaketari edota lehengai energetikoen agortzeari aurre egiteko neurri autoritarioen alde egin behar dela, dardarka hasten naiz, ikusitakoak ikusita uste baitut neurri horiek nekez izango dituztela helburu filantropikoak edo sozialak. Gutxiengo baten interesen alde izango dira, seguruenez".

Kiroldegia beste solairu bat egiteko aukera, mahai gainean

Proiektua bideragarria dela azaldu du Udal Gobernuak eta entzute fase bat iragarri du abendutik aurrera

L.Z.L. ELGETA

"Denbora daramagu kirol instalazioen inguruko lanketa egin nahian; batez ere, kiroldegiko eraikinari loturiko azterketa", azaldu du Kiroletako zinegotzi Ibai Etxanizek. "Jakinekoa da kiroldegiko instalazioak ez direla nahikoa herrian dugun kirol eskariari erantzuna emateko. Udaleko arkitekto eta teknikariekin azterketa sakona egin ondoren, eraikinari beste solairu bat ateratzea bideragarria dela ikusi dugu". Orain, entzute fase bat zabalduko dute.

Entzute fasea abenduan

Udal Gobernuak abenduan zehar egin nahi ditu entzute faseko aurreneko bilerak, eta hainbat eragilarekin hasiko da. "Herri Eskolarekin, herriko kirol elkarteekin, zerbitzua eskaintzen duten monitore guztiekin, kiroldegiko erabiltzaileekin, batzordeetara proposamen ezberdinekin etorri diren herritarrekin, garbitzaileekin... Eta gonbita egin nahi genioke proiektu honetan interesa duen eta parte hartu nahi duen herritar orori", azaldu du Etxanizek.



L.Z.L.

Aitortza bost odol-emaileri

Gipuzkoako Odol Emailen Elkartearen errekonozimendua eta esker ona jaso dute odola emateko duten konpromisoagatik. Gorka Buruaga Arteaga, Iratxe Bravo Sanchez, Iñaki Regidor Herrasti, Ane Aranzabal Villar eta Eli Aranzabal Villar izan dira aitortza jaso dutenak. Lehenengo laurek 25 alditan eman dute odola eta Eli Aranzabalek, 40 alditan.

Aretoa bete egin zen Taibo entzuteko

Etorkizunean kontrol demografikoa areagotu egingo dela dio Taibok, eta periferiak herriei atek gehiago itxiko zaizkiela. "Populazioaren %1k kontrolatzen du aberastasunaren %92 eta desoreka egoera horrek ez du atzera egiten", esan zuen. Bete egin zen aretoa Taibo entzuteko. Gainera, eztabaidarako tartea izan zen amaieran.



Taibo hitzaldia egiten 40 bat lagunaren aurrean. L.Z.L.

EUSKARALDIA

Umorezko bakarriketa domekan Espaloian

Garazi San Martin aktore iruindarrak egingo du, 18:30ean. Euskaraldiaren harira egindako proposamena izanik, euskara, Euskaraldia eta antzerako gaiak izango ditu umore egiteko gai. Udalak antolatutako saioa da. Sarrera doan izango da.

OHARRAK

Bola-botatzea

Bolatokiak antolatuta, hiru txirlo bola-botatzea, zapatuan, 19:00etan. Parte hartze irekia.

Azaroaren 25a

Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Egunerako bilkura deitu dute Udalak eta Emakume Taldeak. Bezperan, eztabaidagune feminista izango da liburutegian, 18:30ean.

EUSKARALDIA 2022



TXAPAK PAPARREAN JARRI ETA EUSKARA AHO-BELARRIETAN

10.000 debagoiendarrek hartu dute konpromisoa 'ahobizi'
edo 'belarriprest' izateko gaurtik abenduaren 2ra arte

XABIER URZELAI



Hasier Larrea DEBAGOIENA

2018an estreinatu eta 2020an pandemia bete-betean garatutako egitasmoak beste aldi bat beteko du aurten; ekitaldi baliagarria den seinale. Oraingoan, 2.500 arrasatear inguruk eman dute izena, 2.000tik gora bergarrek, 1.600 oñatiarrek, 900 aretxabaletarrek, 800 antzuolarrak, 500 eskoriatzarrek, 150 elgetarrek eta 300 aramaiorrek. Nor bere eragin esparrutik, daukan gaitasunaren eta prestutasunaren arabera, egunerokotasunean euskarazko harremanak areagotzen saiatuko dira.

Herritarrei euskaraz hitz egiteko aukerak bermatze aldera, duela bi urteko formula bera errepikatuko du Euskaraldiaren kudeatzaile nagusia den Euskaltzaleen Topaguneak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Euskarabidea, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskal Elkargoak erakundeekin koordinatuta. Hau da, parte hartzen duten norbanakoek *ahobizi* zein *belarriprest* txapa eramango dute soinean, eta entitateek ariguneak sortu-



Arrasateko entitateetako ordezkariak, Euskaraldirako gertu. XABIER URZELAI

Hitzez ekiteko garaia hasi da

Hirugarren Euskaraldia gaur abiatu da, euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko helburuarekin. 'Belarriprest'-ek eta 'ahobizi'-ek osatzen duten ariketa sozial masiboak hamabost egun iraungo du, abenduaren 2ra arte

ko dituzte. Topagunetik esker oneko azaldu dira, bereziki, euskalgintzako eragile, herrietako batzorde eta boluntarioekin, haiek ibili direlako izen-emateak eta ekintzak sustatzeko lanean, "Euskaraldia lau haizeetara zabaltzeko milaka bilera eta ekimen eginez".

Nobanakoetatik entitateetara

Bigarren aldian ariguneak izan ziren eta aurtengo berrikuntza partaideei erronkak proposatzea izan da, baita aurreko bi aldietan lortu dutenaren kontzientzia hartzea ere. *Hitzez ekiteko garaia* lelopean asko izan dira sare sozialetan Euskaraldiarekin lotutako erronka eta lorpen pertsonalak zerrendatu dituztenak, ariketa kolektiboa dela ulertuta. Entitateetan, izan erakunde publiko, gizarte eragile, enpresa, establezimendu, kultur talde edo kirol elkarte, ahalegin berezia egin dute ahalik eta arigune gehien jartzeko martxan, euskaraz aritzeko "espazio osoak" eskaintzeko. Uztailean, esaterako, Bankoa-ABANCA, BBVA, Caixabank, Nafarroako Rural Kutxa, Kutxabank eta



UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Zutaz arduratzen gara
Guk ere euskaraz!!












Audi Q2

VW Caddy

VW T-Roc

Skoda Kodiaq

Seat Arona

Tel.: 943 71 18 70 | Faxa: 943 71 18 71 | udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com



25th
Mondragon
Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatea
arigune eta harnasgune

Hitzez ekiteko garaia

www.mondragon.edu




Laboral Kutxako ordezkariak ariketa sozialean eragile aktibo izateko konpromisoa hartu zuten, eta beste horrenbeste egin zuten joan den astean azalera handiko bost saltoki handik: El Corte Inglesek, Carrefourrek, Uvescok (BM), Mercadonak eta Eroskik.

Izan ere, ariketa jendetsua izateari garrantzi handia eman diote Euskaraldiaren sustatzailerik, parte hartzaileen hizkuntza ohiturak aldatzeko "inguruan *belarriprest* eta *ahobizi* ugari" izatea lagungarria dela iritzita. Hori baita asmo nagusia, baina ez bakarria, Euskaraldiarekin "norberaren hizkuntza portaera eta ohituren inguruan gogoeta eragitea, inertziak apurtzea, gizartean eragina duten era guztietako entitateek hizkuntza ohitura aldatetan babes neurriak hartzea, gizartea aktibatzea, herriz herriko euskaltzaleen artikulazioa bultzatzea eta euskararen aldeko eragileak ekimen bateratu baten bueltan antolatzea" ere bilatzen baitute.

Ikuspegia zabaltzeko, datuak

Euskaraldia ere bada informazioa eskuratzeko aukera aproposa.

Aldi bakoitzeko txosten bana kaleratu du ikerketa aplikatua espezializatutako Siadeco enpresak. 2022koarekin eguneratu egingo ditu aurreko edizioetako datuak, eta ikusiko da zer-nola-ko irakurketak egin daitezkeen.

2020ko ariketen emaitzek partaideen azterketan, partaideen jardunean eta batzordeen eta prozesuen azterketan jarri zuten fokua. Pandemia urteko ariketa izan zela kontuan hartuta, norbanakoen kasuan 178.184 lagunek eman zuten izena –2018an baino 47.000 gutxiago–, eta 8.309 entitatek. Dena den, ikerketak ondorioztatu zuen Euskaraldiak erakartzen ere jakin zuela, bostetik batek lehen esperientzia izan zuela arrazoituta. Gipuzkoarrak izan ziren txapa jantzi zutenen %43, bizkaitarrak %34, nafarrak %11, arabarrak %8 eta Iparraldekoak %2.

9.000 DEBAGOIENDAR INGURUK PARTE HARTUKO DUTE AKTIBOKI ARIKETA SOZIALEAN



Ahobizi eta belarriprest txapak. GOIENA

Desberdintasunak roletan

Rolari erreparatuta, berriz, %77 izan ziren *ahobizi*-ak; *belarriprest*-ak, beraz, %23. Era berean, konturatu ziren *belarriprest* euskaldun osoen gorakada txiki bat gertatu zela: "2020an *belarriprest* rola hartu duten bostetik batek dio 2018ko edizioarekin alderatuta rola aldatu duela; beraz, *ahobizi* izatetik *belarriprest* izatera igaro dela".

Belarriprest-en artean, %23 izan zen gai euskaraz ondo hitz egiteko; eta ulertzeko, berriz, %45,4. Bestalde, *ahobizi* izan

zirenen %93,2k ulertzen zuten ondo euskaraz, eta %83k ondo hitz egin. Labur esateko, euskaraz ongi moldatzen denak *ahobizi* rola hartu zuen; eta zailtasun gehiago duena, aldiz, *belarriprest* izan zen. Hartara, jabetu ziren askok oraindik hizkuntza-gaitasunarekin lotzen dituztela rolak, 2020ko Euskaraldiak hizkuntza-jokabideekin lotzeko saiakera berezia egin zuen arren.

Arigune ugari bailaran

Entitateen arloan, berriz ere Gipuzkoak aurkeztu zuen kopururik handiena, ariguneak 3.798 egoitzatan martxan jarrita. Egoitza bakoitzean bat baino gehiago egon daitezkeela jakinda, Debagoienean 1.645 arigune sortu ziren –%6,8–; Bilbo Hiriko, Donostialdeko, Urola-Kostaldekoko eta Goierriko eskualdeetan

ORAINGOAN, AHALEGINA EGIN DUTE BANKU ETA KOMERTZIO HANDIAK ERAKARTZEKO

bakarrrik gailendu zen kantzitate hori.

Bestalde, banaketa orekatua gertatu zen barne –entitateko kideen arteko– eta kanpo –publiko orokorrari begirako– ariguneen artean, kopuruei erreparatuta. Baina agerian geratu zen entitateei, oro har, kanpo arigunea sortzea errazagoa egin zitzaizela, eta barne ariguneek lanketa sakonagoa behar izan zutela. Bestela esanda, inguru euskaldunetan barne arigunearen ariketa errazago egin zuten, "barne baldintza egokiagoak" medio, eta kanpo ariguneetan moldatu dira hobeto ingurune erdaldunetako entitateak, "euskaldunen aurrean *belarriprest* rola jokatzeko errazagoa egin zitzaizelako erdarazko erabilera-ohiturak dituen entitatean hizkuntza-dinamikak aldatzea baino". Gainera, ikerlariak esan gura izan zuten elkarriketa elebidunak edukitzea errazagoa iruditu zaiela guztiaren erdaldunetan euskaldunetan baino.

Gaur hasitakoak ea lortzen duen herritarrek, ariketa amaitzean ere, euskarari lehentasuna ematen jarraitzea.

Txantxiku Ikastola
HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA

EUSKARALDIA

ERREKA

Euskara da gure hizkuntza, berrikuntza gure bidea.

EUSKARALDIA

www.erreka.com

ERREKA SARBIDE AUTOMATIKOAK | FINKAPEN SOLUZIOAK | PLASTICS | CARE

Ariketa ondo egiteko aholkuak

Euskaraldiaren Arrasateko taldeko koordinatzaile Ikuska Lizarralde zenbait aholku errebasatu ditu, datozen hamabost egunotako ariketa arrakastatsua izan dadin

Xabier Urzelai ARRASATE

Hastera doa Euskaraldia eta rolak aukeratuta daude. Eta rol bakoitzarendako Euskaralditik kontuan hartzeko moduko zenbait aholku eman dituzte: "Hasteko, lagun artean konturatu naiz oraindik rolak aukeratzeko orduan jendeak zalantzak izan dituela. Euskaraz ondo egiten dutenek *ahobizi* rola aukeratu dute eta horren ondo moldatzen ez direnek, *belarriprest*. Eta ez dauka zertan horrela izan. Izan ere, *ahobizi* izatea aukeratu duten batzuk, akaso, konturatu

dira aurreko edizioetan euren jarrera ez dela egokia izan. Eta, euskaraz ondo jakinda ere, *belarriprest* izatea aukeratu dutenek talde horretakoak indartu ditzakete. Hau da, *belarriprest*-ekoek hiltun guztiei euren euskaraz egiteko eskatuko die eta euren ere horrela egingo dute nahi bestetan. Hau da, gakoa jokaeran dago, eta ez gaitasunean. Horregatik, rola aukeratzeko orduan nork bere buruarekin egin beharreko hausnarketa garrantzitsua da, eta horretara animatzen dugu

jendea", dio Arrasateko taldeko koordinatzaile Anuska Lizarralde. "Hau da, *belarriprest* txapa eramatea aukeratu dutenek adierazten dutena ez da ez dakitela euskaraz berba egiten, baizik eta *niri egin euskaraz*, hori da adierazten dutena".

Ez aldatu hizkuntzez; eutsi!

Ahobizi rola aukeratu dutenendako lehenengo aholkua da dituzten ohiturak aztertzeke. Aztertzeke norekin eta zertarako erabiltzen duten euskara: "Eta hor, lehenengo berba euskaraz

egitea ezinbestekoa da, eta, ondoren, nahiz eta berbalagunak erdaraz erantzun, eutsi diezaioala euskarari. Noski, lagunak ez badu ulertzen, komunikazioa ez badago bermatuta, ezingo du euskaraz berba egiten jarraitu, baina ulertzen badu lasai asko jarrai dezake batek erdaraz eta besteak euskaraz. Hori da, hain zuzen, euskaraz berba egin ez baina ondo ulertzen dutenekin izaten den arazo handiena, erdara gailentzen dela. Gainera, esango nuke harreman handia edo konfiantza maila handia dugun jendearekin ohitura horiek aldatzea gehiago kostatzen dela, gazteleraz egiteko ohitura oso errotuta izaten dugulako. Baina *ahobizi* aukeratu duenak egin dezala ahalegina! Hor dago gakoa".

Eta saiakera horretan, garrantzitsua da Euskaraldia hasiurretik ingurua prestatzeko eman duten aholkua: "Alegia, etxekoei, lagunei, lankideei... Ingurukoei azaldu Euskaraldiko ariketa egiteko gertu zaudetela eta asmo hori duzuela. Horrela, inor ez da deseroso sentituko, eta errespetuz hartuko gaituzte". Hain

zuzen, Lizarralde garrantzia eman dio ingurukoei ariketa azaltzeari: "Positiboa da inguruak jakitea zer den egin behar duguna, zer-nolako ariketa den. Batetik, Euskaraldia bera zabaldu egingo dugulako, eta, akaso, inguruko horrek ez du nahiko aurten parte hartu, ez duelako bere burua prestatuta ikusten. Baina, ariketa azalduta, akaso, etorkizunean animatuko da".

Sare sozialen bultzada

Emandakoen gomendioen artean dago Euskaraldia bera janztearena; alegia, hamabost egun hauetan zabalkundea ematearena: "Guk bereziki txapa soinean eramateari ematen diogu garrantzia, baina, hortik harago, badakigu gaur egun sare sozialek zer-nolako garrantzia duten, zer-nolako indarra, eta hor ere Euskaraldia egotea garrantzitsua da. Egunerokoan egiten ditugun gauza asko sare sozialetara igotzen baditugu, zergatik Euskaraldia ez? Baina ez gaitezen txapen argazki politak sarera igotzearekin konformatu. Gure eginbeharrekoak horretara mugatzen baditugu,

bertako
igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA
943 903 450
BIZKAIA
946 523 935
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917
www.bertako.eus

Bazenekien?

Umeak elkarrizketan parte hartzen daudenetan, helduen euskararen erabilera Antzuolan %72,4koa da. Umerik tartean ez dagoenean berriz %47,3koa.

(2021eko datuak)

ANTZUOLAKO UDALA

Euskaraldirako gomendioak, labur

Ahobizi aukeratu dutenek egin behar dutena: hasi lehen hitza euskaraz egiten; adierazi euskarari eutsiko diozula; solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean, adierazi beste modu batean. Eta *belarriprest* rola aukeratu dutenek: adierazi euskara ulertu eta jaso nahi duzula; hasi ahal duzun guztietan euskaraz egiten; ulertzeko zailtasunak dituzenean, beste modu batean esateko eskatu.

Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari

- Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara.

Ingurua prestatu

- Ariketa hasi aurretik ingurukoekin aurreikusi eta adostu ohitura aldaketak.

Jantzi Euskaraldia

- Txapa, sare sozialetako argazkiak... Adierazi Euskaraldian parte hartzen ari zarela..

Ahobizi rola aukeratu dutenendako: elkarrizketa elebidunetan, euskaraz

- Komunikazioa bermatuta dagoenean, eutsi euskarari!

Belarriprest rola aukeratu dutenendako: adierazi euskararekiko prestutasuna

- Jakinarazi solaskideei euskara jaso nahi duzula, eta zeuk ere nahiz eta ahal beste erabili. Zure euskara da euskararik onena.

Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari

- Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Ziur pentsatu baino gehiago egin dezakezula euskaraz.



Ahobizi bat eta belarriprest bat. ENEKO AZKARATE

hor geratzen bagara, ez dugu askorik lortuko. Jantzi ditzagun txapak eta egin dezagun Euskaraldiaren zabalkundea, baina garrantzitsuagoa dena, egin dezagun euskaraz". Eta egun bakoitzean egindakoren gaineko hausnarketa egitea komeni da: "Txapa jarri baina gero ez badugu rola eskatzen diguna betetzen... Alferrik ari gara".

Zurea da euskararik onena

Euskarak duen erronka handietako bat da lotsarena; euskaraz ondo egiten ez dutenek, edo uste

hori dutenek, baztertu egiten dute erabilera, hanka sartuko duten beldur. Alegia, lotsagarri geratzeko beldurragatik: "Horregatik eman diegu *belarriprest* izatea aukeratu dutenei gomendio hori. Alegia, jakinarazi dezatela euskara jaso nahi dutela eta eurek ere nahi eta ahal beste erabili dezatela. Euren euskara da euskararik onena; egiten dena, azken batean".

Aurreiritziak gainditu

Eta, azkenik, Euskaraldian izango den beste erronka bat izango

da aurreiritziak gainditzeara: "Zenbat bider gertatu zaion jendeari leku batera joan eta euskaraz jakingo ez dutelakoan erdaraz berba egiten hasi eta, ondoren, solaskidearen erantzuna euskaraz jasotzea. Bada, hori ekiditea ere bada helburua, eta, horretarako, gure aurreiritziak zelan gainditu aztertu behar dugu; izan ere, aurrez uste duguna baino askoz ere gehiago egin dezakegu euskaraz, eta uste duguna baino askoz ere jende gehiagorekin. Hor ere badugu zer hausnartu".

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Guk ere euskaraz!!

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

goieskola

debagoleneko euskal
eskola publikoa



Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Iritsi da eguna, hasi da Euskaraldia.

Iritsi da, bai, espero genuen eguna. Izan ere, egun honen atzean dago ilusio handia, kementa eta lana. Eta orain hama-bost egun ditugu ariketa praktikoa egiteko, disfrutatzeko, ezerosotasuna gainditzeko, eta, bereziki, euskararen erabileran jauzi bat emateko.

Hitzez ekiteko garaia da.

Halaxe da, eta lelo horrek oso ondo adierazten du 2022ra begira zer nahi genuen. Egin kontu pandemiatik gatzela eta bigarren edizioa egin ahal izate hutsa nahiko arrakastatsua izan zela. Korrikaren edizio bat atzeratu behar izan zen... Horregatik, uste genuen 2022ak ostera ere euskararekin kaleak hartzeko urtea izan behar zuela, berrakibatuzko urtea izan behar zuela eta euskara ostera ere agenda sozial eta politiko-komunikatiboaren erdigunera eramateko urtea izan behar zuela.

Nola iritsi gara hirugarren ariketa sozial honetara?

Esango nuke indartsu iritsi garela. Izan ere, beldur ere baginen; halakoetan, ahaztu egiten

"Euskaraldia ez da euskararen aldeko kanpaina bat"

KIKE AMONARRIZ EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA

Iritsi da askoren egutegian gorritz markatuta zegoen eguna. 'Hitzez ekiteko garaia' lelopean, gaur, egubakoitza, hasi da Euskaraldiaren hirugarren edizioa

zaigu iaz data hauetan non geunden. Eta, hain justu, iaz ez genekien Korrika egin ahal izango genuen edo ez, arma sozialak berreskuratu ahal izango genituen, eta ze neurritan. Horregatik diot uste dudala indartsu gaudela, baina, neurri berean, ahulago ere bagaude. Eta azalduko dut: pandemiak eragin du harreman sozialetan,

baina baita egituretan ere. Esaterako, gure elkarteak ahulago daude. Hala, Euskaraldiko batzordeak martxan jartzea kosta egin da, gehienak uda ondoren aktibatu dira, eta aurrekoetan baino esprint handiagoa egin behar izan da. Horrekin batera, sorpresa faktorea ere galdu egin da, baina, kontrara, irailetik hona ikusi dugu egunez egun

herri, hiri eta auzoetan Euskaraldiaren makineria zelan joan den indarra hartzen.

Ahobizi eta belarriprest rolaren hautaketa oraindik ere hizkuntza gaitasunarekin dago presente. Zer izan beharko genuke kontuan rola aukeratzeko orduan?

Askotan aipatu izan dugu, konpromiso mailaketa bat dago. Denok ez dugu maila bera, bai-

na denok ere ez dugu bizi egoera berbera. Eta *belarriprest* edo *ahobizi* rolaren aukeraketa oinarritzen da nork bere burua ze neurritan ikusten duen konpromiso batzuk hartzeko gai edo ez. Lehendabiziko hitzak euskaraz esateko gai ikusten duzu zeure burua? Bada, orduan, *ahobizi* izango zara. Ez duzula zeure burua hori egiteko gauza ikusten? Bada, orduan *belarriprest* izango zara. Baina *belarriprest*-a ez da rol pasibo bat, rol aktibo bat da. *Belarriprest*-a ez da ulermenerako gaitasuna izatea soilik. Euskaraldia ez da eta euskararen aldeko kanpaina bat. Euskaraldia da norberak, bai maila indibidualen, bai maila kolektiboan, euskaraz egiteko ze aukera dituen aztertu eta horiek optimizatzeko ariketa. Baina modu errealean. Horregatik, errealitate irizpideetan oinarrituta dago bai rolen aukeraketa eta baita ariguneen osaketa ere.

Euskaraldiaren bigarren edizioaren ondoren egindako azterketek erakutsi zuten ahobizi-ek eta belarriprest-ek badutela gaitasuna euren inguruan eragiteko. Eta hori izango



EUSKARALDIA 2022

AGA

SARRAILAGINTZAREN INDUSTRIA

SEGURTASUNA GURE DNAn,
BAITA EUSKARA ERE



AZK

Euskararekin, markak hazten eta indartzen

Hitzez ekiteko garaia

ARIGUNEA

#KomunikazioaGertu

f y i n t w i

www.azk.eus



Kike Amonarriz, aste barruan Goiena telebistako platoan. GOIENA

da hirugarren edizio honetarako helburua.

Nik uste dut geroago eta aktibatuago eta prestatuago gaude-la. Eta aktibazio horrek ingurua ere berraktibatu egiten duela. Horregatik, aurten garrantzi handia eman diogu inguruneak

"EUSKARA BIZIBERRITZEKO, GIZARTEAK EGIN BEHAR DU PROZESU HORRETATIK BULTZA"

"EUSKARALDIA EZ DA POSIBLE EUSKARA BATZORDERIK GABE, TALDEAK EGONKORTU NAHI DITUGU"

Euskaraldiz janzteari. Horrek errazten duelako partaideek eta partaide ez direnek ere erabileran urratsak egitea. Euskaraldiak frogatu diguna da sortzen dugunean giro babestu bat euskararen erabileran urratsak egiteko urrats horiek errazago egiten direla. Hau da, denda batera sartu eta han ez baduzu euskararen arrastorik inon ikusten, kosta egiten da lehen hitza euskaraz egitea. Eta, bereziki, hiriburuetan gertatzen da hau. Baina denda berberera sartu eta ikusten badituzu pare bat saltzaile *ahobizi* edo *belarriprest*-en txapekin, edo Euskaraldiaren banderatxoa zintzilik, lehenengo hitza automatikoki euskaraz egingo duzu. Eta hori gertatzen da kalean, lantegian... Eta hori dakar Euskaraldiak, euskararen erabilerarako aukerak optimizatzea.

Herriz herri antolatu diren batzordeak dira Euskaraldiaren bihotza, ala?

Bihotza, eta oinarria. Eta uste dut garbi izan behar dugula euskararen biziberritze prozesua prozesu sozial bat dela. Herri-tarrek eta gizarteak prozesu hori bultzatzen duen neurrian egingo dugu aurrera. Ezinbestean behar dugu, noski, erakundeen inplikazioa. Behar dugu babes politikoa eta ekonomikoa, baina oinarrian, hizkuntzaren biziberritze prozesua prozesu sozial hori izango da. Herriar inpli-

katuak izatea da euskarak aurrera egin dezan bermerik onena. Baita Euskaraldiak aurrera egin dezan ere. Eta Euskaraldia ez da posible batzorde horiek gabe. Hain zuzen, horregatik da estrategikoa euskara elkarteak ez dauden herrietan edo euskalgintza antolatuta ez dagoen herrietan batzorde horiek egonkortzea era iraunaraztea.

Bigarren edizioiko nobedadea izan ziren ariguneak, euskaraz lasai jarduteko guneak. Horiek finkatzeko edizioa izango da hau?

Bai, aurrekoan pandemia bete-betea geundelako. Eta ariguneek aukera handiak eman-go dizkigute urratsak egiteko. Ariguneak egongo dira kirol elkarteetan, udal bateko sailetan, elkarte batean... Eta arigune horiek euskararen erabilera dinamikak egonkortzeko, handitzeko edo martxan jartzeko aukera eskainiko dute. Horregatik uste dut aurten ariguneak euskararen erabilera sustatzeko abiapuntu sendoak izango direla.

euskara edo lana?

nire aukera da!

euskaraz lan egitea

ULMA AUKERATUZ GERO BIAK EGIN DITZAKEZU

ULMA

Lanketa ugari gurean, hitzez ekitera bultzatzeko

Iritsi da ariketaren hasiera, eta 15 egunez 'belarriprest'-ek eta 'ahobizi'-ek beteko dituzte Euskal Herriko txokoak. Erakunde, elkarte, enpresa zein norbanakoak aktibatu dira, herrietan egindako lanketei esker, hein handi batean. Hemen dira gurean aktibazio prozesuan jazotakoak.



Eskoriatza Euskaraldirako hamabikoa osatu dute aurten Eskoriatzan eta haiek izango dira gaurtik aurrera *enbaxadore* gisa jardungo dutenak.



Oñati Euskaraldiaren aurkezpenean hikaldia ere aurkeztu zuten Oñatin. Txaparen gainean *h* bat edukiko du parte hartzaileak, parte hartzen dabilela adierazteko.



Elgeta Goibeko Euskaltzaleen Topagunearekin elkarlanean, Euskaraldikoek patata-tortilla lehiaketa egin zuten Elgetan. Herritar mordoa batu ziren plazan.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

EUSKARALDIA

HITZEZ
EKITEKO
GARAIA

Aretxabaletako campusa
Otalora 31
20550 Aretxabaleta

Eskoriatzako campusa
Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriatza

AS Fabrik
Olagorta kalea, 26
48014 Bilbo

943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu
www.mondragon.edu



Bergara Euskaraldia girotzen joateko herritarrek ariketara batzeko helburuarekin, kontzertua egin zuten Bergarako Irala kalean Diablues eta Bluecifer eta Karena taldeek.



Aramaio Herriko plazan elkartu ziren aramaioarrak joan den egubakoitzean, ariketarekin bat egiteko. Taldeka argazkiak egin zituzten, Euskaraldiari babesa erakusteko.



Aretxabaleta Aretxabaletarrek, eskoriatzarrek eta gatzagarrek bat egin eta Euskaraldia aitzakia hartuta irteera egin zuten Aretxabaletatik Leintz Gatzagara.



Leintz Gatzaga Aretxabaletatik Leintz Gatzagara egin zen ibilalditxoa baliatu zuten gatzagarrek ere Euskaraldiari bultzadaxoa emateko.



Arrasate Euskaraldiari esker lortutakoei balioa emateko, kalejira egin zuten Arrasaten uztailan. Hala, goiz ekin zieten motorrak berotzeko lanei.



Antzuola Euskaraldiarekin bat eginez, gaztetxeko, AKEko, Elayko, Landatxoeko, Anelkarko, Herri Eskolako, Udaleko eta Euskaraldiko Batzordeko kideek argazkia atera zuten.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen



Industria



Ihiztadura



Bioteknologia

Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofiaren parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, Ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.



www.goizper.com



Euskara ahoan zein belarrian bi asteko ariketan

Debagoieneko 9 herrietako 'ahobizi' edo 'belarriprest' bana batu ditu GOIENAK. Zergatik ariko dira Euskaraldian? Aurretik aritu dira? Zergatik aukeratu dute rol bat edo bestea?...



ZIGOR ORUNA
ARRASATEKO 'BELARRIPREST'-A

"Orain arte 'ahobizi' izan naiz, baina ez dakit benetan parte hartu izan dudan edo ez"

Mondragon Unibertsitateko irakaslea da Zigor Oruna arrasatearra eta 53 urte ditu. Euskaraldiaren orain arteko bi edizioetan hartu du parte, *ahobizi*, baina konturatu da ez dakiela benetan parte hartu duen edo ez. "Euskaraldia zetorrenean, ez nuen zalantzarik egiten, eta *ahobizi* rola hartzen nuen. Izan ere, nire gurasoak euskaldunak dira, ikastolan ikasitakoa naiz eta betidanik euskaraz egin izan dut. Hala ere, aurtan, Herri Batzordean egoteko aukera izan dut eta rol bakoitza zertan datzan ondo aztertu dudanean konturatu naiz ariketa ez dudala ondo egin orain arte. Hau da, *ahobizi* izatea ez da euskaraz jakitea, baizik eta euskara dakitenak bultzatzea euskaraz egitera, eta nik ez nuen hori egiten, nahiz eta euskaraz asko hitz egin jende askorekin. Gaztelaniaz egiteko ohitura daukadan jendearekin ez nuen *ahobizi* rola ondo erabili, gaztelaniaz egiten jarraitu bainuen".

'Belarriprest' rola, ariketa ondo egiteko helburuarekin

Hori dela eta, uste du *belarriprest* rola gehiago dela hark egiten duena, eta aurtan, beraz, txapaz aldatzea erabaki du. "Besteekin gaztelaniaz egiten badut eta euskaraz dakitela baldin badakit, haiek bultzatuko ditut nirekin euskaraz egitera, ez baita esfortzu handiegia izango haientzat".



Bi erronka jarri dizkio bere buruari

Arrasatearrak bi erronka jarri dizkio bere buruari: "Batetik, *belarriprest* rola ondo betetzea. Hau da, euskaraz dakitenei nirekin euskaraz egiteko eskatuko diet edo, behintzat, aukera hori eskainiko diet, nahiz eta gaztelaniaz egiteko ohitura izan gure artean; beste erronka garrantzitsu bat da *ahobizi* zein *belarriprest* rolak zertan oinarritzen diren ondo azaltzea. Esaterako, badaude batzuk *ahobizi* izanda gaztelaniaz hitz egiten dutenak, euskaraz jakinda, nik egiten nuen moduan. Horiei azalduko diet hori ez dela *ahobizi* izatea. Azken batean, gurako nukeena da rol bata edo bestea aukeratu ariketa soziala ondo egitea".



ekidegroup

EUSKARALDIArekin bat

www.ekide.es

Ingeniaritza + fabrikazioa



Kontrol tresnak



Ikusmen artifiziala





EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA







IONE IGARTUA
'AHOBIZI' BERGARARRA

"Txapa soinean ikusten zigutenean bezeroak animatzen ziren lehen hitza euskaraz egitera"

Ione Igartua ezaguna da Bergaran, Igaro lurrindegian urte luzez aritu zen-eta lanean. Euskaraldiaren aurreko bi edizioen oroitzapen onak gordetzen ditu: "Txapa soinean ikusten zigutenean bezeroak gehiago animatzen ziren euskaraz egitera lehen hitza; bereziki euskara ondo menperatzen ez zutenak; eta, horregatik bakarrik, ekimen ederra da. Gazteleraz nahiago zuen bezeroari gazteleraz egiten genion, uste dudalako garrantzitsua dela eroso sentiaraztea, pixkanaka ikasten joan daitezen".

"Bide luzea dugu aurretik oraindik"

Etxean ia dena euskaraz egiten du Igartuak, baina lagunekin oso bestelakoa da egoera: "Seme-alabekin dena egiten dut euskaraz, haiekin ezin dut gazteleraz egin. Lagunekin, berriz, gehienok euskaraz jakin arren, joera nabarmena dugu gaztelerara jotzeko. Izan ere, Euskaraldia bada modu bat norbera behartzeko euskaraz egitera. Dakigunok gehiago egin behar dugu, eta ez dakitenak anima daitezela egitera".



DAVID VERNAZA
'BELARRIPREST' OÑATIARRA

"Jantzita izango dugu 'belarriprest' txapa, eta hitz egiguzue euskaraz, mesedez"

Duela 22 urte iritsi zen Oñatira David Vernaza, Ekuadortik. *Belarriprest* rola hartu zuen lehen Euskaraldian eta baita aurtengoan ere; erronka du, baina, *ahobizi* rola hartzea. "Oso pozik bizi naiz. Hemen jaiotakoak ditut kuadrillakoak eta eurekin batera ikasi dut euskara, euskaltegian ere ibili naizen arren. 15 urteko semearekin ere euskaraz hitz egiten dut. Herriko futbol txapelketan hartzen dut parte eta taldekoekin, ordea, gutxiago egiten dut, gehienak kanpotik etorritakoak dira eta. Ikasteko, baina, hanka sartu behar da. Lotsa alde batera utzi behar da eta euskaraz hitz egin".

Ostalaria da Vernaza, Iturritxon egiten du lan, eta sumatu ditu bezeroak Euskaraldiaz berba egiten, "jantokian eta txikiteroen artean". Dio hark bezala gainerako langileek ere euskaraz ulertzen dutela, eta eurengana zuzentzean euskaraz hitz egiteko eskatu gura die herritarrei: "*Belarriprest* txapa jarrita izango dugu, eta, mesedez, hitz egiguzue euskaraz".



ALVARO DEL BLANCO
'BELARRIPREST' ARETXABALETARRA

"Lagunen berotasuna pauso garrantzitsua izan zen euskara gehiago erabiltzeko"

Toledokoa jatorriz, Bartzelonan neska aretxabaletar bat ezagutu zuen eta hona etortzea erabaki zuten orain dela bost urte. Hasieratik eman zuen izena euskaltegian: "Bizi izatera zatozen herri horretako kultura ezagutzea garrantzitsua dela uste dut". Lagunek egindako harrera beroari oso eskertuta dago: "Ez nuen inor ezagutzen hemen eta oso ondo hartu ninduten. Pauso garrantzitsua izan zen hura euskara gehiago erabiltzeko nik".

Psikologoa da eta UDAn dihardu entrenatzaile eta beste hainbat lanetan: "Nire helburua litzateke psikologo saioak, elkarrizketak eta entrenamenduak erabat euskaraz egitea. Hitz egin aurretik gaztelaniaz pentsatzen dut, baina ea, poliki-poliki, ametsak euskaraz izatera iristen naizen...".

Hirugarrenez hartuko du parte Euskaraldian: "Euskara eta euskal kultura guztion artean babestu behar ditugu; bestela, orain arte lortutako guztia galdu egingo da. Hortaz, herritarrek animatzen ditut euskara erabiltzera".



Euskaraz, etorkizuna hobetzeko lanean





MIKEL ORTUETA

'AHOBIZI' ESKORIATZARRA

"Euskara sustatu behar dugu; galtzen ari da, eta merezi duen hizkuntza da"

Eskoriatzan berezitasunak izango dira hirugarren edizioan. Izan ere, lehenengo edizioan *hamaikakoa* osatu zuten Eskoriatzako Euskaraldia Batzordeko kideek *ahobizi*-ekin eta *belarriprest*-ekin, eta, ariketa honen espiritua pixka bat gehiago egitea denez, *hamaika* gehi bat, *hamabikoa*, osatuko dute aurtengo edizioan. Hamabi pertsona horietako bat da Mikel Ortueta, eta herrian eragingo duen enbaxadoreetako bat izango da euskararen erabileraren normalizazioan. Hark egin du hautua: *ahobizi* izango da.



Herrian eragin beharra

"Beti izan dut harreman handia euskararekin, etxean, lagunekin... Ahal dudan guztietan erabiltzen dut eta hala jarraitu nahi dut, pauso berriak emanez. Eskoriatzan euskara ulertzen dela esan daiteke, baina erabilpena handitu egin beharko litzatekeela uste dut. Euskara sustatu beharra dago, galtzen ari da, eta hizkuntza honek merezi du".



ONINTZA LEGORBURU

'AHOBIZI' ANTZUOLARRA

"Elkarrizketa elebidunetan kosta egiten da euskarari eustea; entrenamendu ona da"

Ama hizkuntza euskara du 29 urteko Onintza Legorburu antzuolarrak. "Ahal dudan neurrian, euskaraz bizi naiz. Gero eta zailagoa da, ordea, 24 orduz euskaraz bizitzea, beti dago-eta norbait euskaraz ez dakiena, edo egoeraren batean euskarak ez dauka hainbesteko prestigiorik, eta hizkuntza aldatu behar izaten da. Euskaraz bizi eta lan egiten dugunok burbuila batean bizi gara; baina burbuila txiki-txiki horretatik irtetea, edozein lekutan norma gaztelera dela konturatzen zara".



Entrenamendu "polita"

Legorburuk gaineratu du zenbait egoeratan kosta egiten dela euskarari eustea: "Nahiz eta ulertu, kosta egiten zaigu euskarari eustea; besteak gaztelaniara tira egiten badu ere, askotan erortzen gara joko horretan. Elkarrizketa elebidunak mantentzea ezinezkotzat jotzen dugu maiz, eta nik uste dut entrenamendu kontua dela. Beraz, Euskaraldia entrenamendu polita izan daiteke horretarako".



JANET GRIMALDO

'BELARRIPREST' ARAMAIOARRA

"Egunero nago prest euskaraz entzuteko eta dakidan euskara gutxia hitz egiteko"

Kolonbiarra da jaiotzez Janet Grimaldo, eta Aramaion bizi da azken bost urteetan. Euskaraldiko oraingo ekitaldian ere parte hartuko du. Euskara ikasten dihardu, etxe giroan; Xabi eta Josu semeekin euskaraz egiten ahalegintzen da, eta hala dihardu, poliki-poliki, euskara hobetzen.



Etxeko hizkuntza, euskara

Esperientzia honen onena zera da, Grimaldoren esanetan: "Jendeak euskaraz egiteko aukera badu eurak euren hizkuntzan aritu daitezkeela, egunerokoan familian egiten duten moduan".

Etxeko hizkuntza euskara izatea nahiko lukeela azaldu zuen orain dela bi urte; bada, bide onean doazela dio. Semearekin liburuak euskaraz irakurtzen ditu, eta horrek asko laguntzen dio euskara hobetzen. Ingurukoendako mezua ere badu: "Egunero nago prest eurak euskaraz entzuteko eta dakidan gutxia hitz egiteko".

**Hitzak eta ekinak
bereizten gaitu.
Gu ere Euskaraldiarekin!**

arteman

KOMUNIKAZIOAREN ARTISAUAK

arteman.eus

**IRAKASLEON MINTZOA,
IKASLEEN JARIOA**



**MARIAREN
LAGUNDIA
IKASTOLA**

Espolonia 1
BERGARA
943 76 25 40
www.mlagundia.org



CRISTINA BARRIOS GOMEZ
'AHOBIZI' ELGETARRA

"Euskara erronka gogorra eta polita izan da niretzat; gaur egun, nire hizkuntza ere bada"

Algortan jaioa, 9 urte dira Elgetan bizi dela. 19 bat urterekin hasi zen euskara ikasten. Lehenengo, Algortako euskaltegian, eta Lazkaokoko barnetegian hilabeteko egonaldia egindakoa da. Aurreko bi Euskaraldietan parte hartutakoa da. "Lehen urtean *belarriprest* izatea erabaki nuen, ez nengoelako eroso. Hala ere, hurrengo bi Euskaraldietan *ahobizi* izan naiz. Neukan beldur hori gaingaitzea lortu dut, eta orain, edozeinekin euskaraz aritzeko gai naiz".

Euskararekiko konpromiso argia du, eta ingurukoak lagun ditu. "Hasieran ez nuen hemengo euskara ulertzen eta lehen urteetan lotsa ematen zidan jendearekin euskaraz hitz egiteak. Hala ere, aitaginarrebak beti hitz egiten zidan euskaraz eta, poliki-poliki, erosoago sentitzen hasi nintzen".

Berbalagun taldean ere bai

"Argi genuen alabari euskaraz hitz egin nahi geniola, eta orduan erabaki nuen falta zitzaidan pausoa ematea. Elgetako Berbalagun taldean eman nuen izena. Lagun artean sentitu nintzen eta hanka sartzeko beldurra kendu nuen. Elgetan bizi izateak asko lagundu dit euskalduna izateko. Uste dut gaur egun gehiago aritzen naizela euskaraz gazteleraz baino. Senarrarekin eta alabarekin beti egiten dut euskaraz. Lanean ere bai. Klean zein familiako kide



batzuekin erdaraz egiten dut, noizbehinka; batez ere, euskara ez dakitelako. Euskara niretzat erronka gogorra eta polita izan da. Gaur egun, nire hizkuntza ere bada eta familian argi daukagu maite eta zaindu egin behar dugula hurrengo, belaunaldiek ere goza dezaten".

Euskaraldia

"Euskaraldia ekimen polita eta aberasgarria da. Euskaldunak elkartzen ditu, eta berdin dio euskaldun berria edo zaharra zaren eta hitz egiteko jartotasuna duzun edo ez. Euskaraldi bakoitzak gogorarazten dit ibilitako bideaz harro sentitu behar dudala eta oraindik ere asko egin dezakedala".



ROBERTO OTAZU
'BELARRIPREST' GATZAGARRA

"Euskaraldiarekin kontzientzia hartzen dugu, eta ariketa sozial positiboa da"

Euskaraldiaren ariketa sozialeko edizio guztietan hartu du parte Roberto Otazu gatzagarrak. Bi rolak probatu ditu eta esperientziarekin pozik agertu da. Aurtan, *belarriprest* rola aukeratu du, eta gogoz dago ariketarako.

"Hirugarren edizioa izango da parte hartuko dudana. Euskara erabiltzeko kontzientzia hartzen dugu ariketa honekin eta positiboa da. Paper batean aritzea edo bestean berdin da, kontua parte hartzea da. Hori horrela, herritarrei Euskaraldian parte hartzeko gonbidapena egiten diet".

Herria, osasuntsu

"Leintz Gatzagako herritarren artean euskara osasuntsu dagoela uste dut. Ehuneko handi bat euskalduna gara herrian eta euskara erabiltzen dugu. Egin dezagun euskaraz! Euskaraldia eta halako ariketak oso ondo daude, egin beharrekoak dira, baina euskararen aldeko bestelako ekintza guztiak ere ongiatorriak dira".





Gualbi

aholkularitza


**ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA**

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48
onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

AZAROAK 18**EUSKARALDIAREN
IREKIERA****Arrasate Euskaraldia, lau haizetara**

Furgonetarekin girotuko dituzte kaleak.

Kalerik kale, 10:00etan hasita.

Antzuola Koreografia

Euskaraldiaren kantuarekin egingo dute.

Eskolako patioan, 16:00etan.

Antzuola Puzgarriak eta txokolate-jana

Herritar guztiendako.

Eskolako patioan, 16:15ean.

Eskoriatza Musika Eskolako emanaldia

Santa Zeziliaren omenezkoa.

Fernando Eskoriatza plazan, 17:00etan.

Aretxabaleta Argazki erraldoia

Ahobizi eta belarriprest guztiendako.

Herriko Plazan, 17:30ean.

Aretxabaleta Dantza herrikoia

Pirritxen eta Porrotxen Euskaraldiko koreografia dantzatuko dute.

Herriko Plazan, 17:45ean.

EUSKARALDIA

EGUNEZ EGUN

Oñati Kalejira

Erraldoiekin eta Jose de Azpiazu musika eskolako kideekin.

Kalerik kale, 18:00etan.

Arrasate Talo tailerra

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik.

Ekinen lokalean, 18:00etan.

Aramaio Ipuin kontaketa

ELHko eta HHko umeendako saioak Maider Alcelay kontalari arrasatearrarekin.

Kultura etxean, 17:00etan.

Oñati Gaztaina-jana

Herritar guztiek izango dute gaztaina erreak jateko aukera.

Tarte horretan, txapak banatzeko eta materiala saltzeko postua egongo da.

Foruen plazan, 19:30ean.

Eskoriatza Mintzodromoa

Irekia, herritar guztiendako.

Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.

Eskoriatza Bandaren kontzertua

Santa Zeziliaren omenezkoa.

Zaldibar antzokian, 20:00etan.

Oñati Sega Sound Killers eta Lotura taldeak

Sarrerak: zortzi euro lana dutenek eta hiru langabeek.

Gaztetxean, 22:00etan.

AZAROAK 19**EUSKARALDIAREN
HERRI EGUNA****Eskoriatza Frontenis txapelketa**

Binakako txapelketa. Izenak Inkernu eta Aldatz tabernetan.

Pilotalekuan, 09:00etan.

Antzuola Euskararen

esanahiaren gaineko hitzaldia

Euskaigintzako kartelen

irakurketa, genero perspektibatik

(1960-2018) izeneko berbaldia

egingo du Onintza Legorburuk.

Olaranen, 11:30ean.

Eskoriatza Herri bazkaria

Bazkalostean, frontenis txapelketako sari banaketa eta musika Julenerekin eta Unairekin.

Karpan, 15:00etan.

Aretxabaleta 'Orkestra lurtarra' ikus-entzunezkoa

Umeendako.

Zaraia aretoan, 17:00etan.

Aretxabaleta 'Gamer' gela

Gaztetxoendako.

Gazte txokoan, 17:00etan.

Eskoriatza Triki-poteoa

Herritar guztiendako.

Herriko tabernetan, 19:00etan.

Eskoriatza Eten eta Banana

Shake taldeak

Kontzertua egingo dute.

Karpan, 22:30ean.

Eskoriatza Jotatxo DJa

Irekia.

Inkernu tabernan, 00:00etan.

AZAROAK 20**Elgeta Bakarrizketa umoretsua**

Garazi San Martinen eskutik.

Debalde.

Espaloian, 18:30ean.

Euskararen taupadak!



ARRASATEKO UDALA

CITROËN C5 X BERRIA

HIBRIDO ENTXUFAGARRIA EDO GASOLINA

Berlina baten dotorezia,
familiar baten dinamismoa
eta SUV baten altuera.



Hitzoz ekiteko garaia da



CHAPIME TAILERRAK

Deiala: 943 79 45 22

SAN ANDRÉS AJOA S. ARRASATE / Tel. 943 79 45 22

AZAROAK 22

Bergara 'Sare sozialen erabilera' tailerra

Hausnarketa egingo dute Klak!
Gazte Ahotsa taldekoek,
hedabideko kideen laguntzarekin.
Euskaraldiko lokalean, 17:30ean.

AZAROAK 24

Antzuola Bertso-poteoa

Herriko tabernetan egingo dute.
Herrian, 19:00etan.

AZAROAK 25

Aretxabaleta Murala margotzea

Herritar guztiendako irekia.
Gernika plazan, 16:30ean.

AZAROAK 26

Oñati Mintzodromoa

Herritar guztiendako.
Foruen plazan, 11:30ean.

Aretxabaleta 'Supermaskoten liga' pelikula

Umeendako.
Zaraia aretoan, 17:00etan.

Antzuola Antzerki-tailerra

Gaztetxoendako.
Gazte txokoan, 17:00etan.

Aramaio Antzerkia

Gaztetxoendako.
Untzillako elkartean, 18:00etan.

AZAROAK 27

Aretxabaleta 'Sorginak eta sorginkeriak' emanaldia

Toti Martinez de Lezearekin,
Gorka Mendozarekin eta Edurne Zabalorekin.
Zaraia aretoan, 19:00etan.

AZAROAK 29

Aretxabaleta 'Mikrotik...' bakarrizketa

Herritar guztiendako.
Zaraia aretoan, 18:00etan.

AZAROAK 30

Bergara Film laburrak eta solasaldia

Anti film laburra eta Bizipenen bilduma bideoa emango dituzte,
eta ostean, solasaldia, Itziar



GOIENA

Eskoriatza Banana Shake eta Eten taldeak

Euskaraldiaren Herri Egunean kontzertuak egingo dituzte biek ala biek. Dantza egiteko doinuekin beteko dute Euskaraldiko karpa.
Azaroaren 19an, karpan, 22:30ean.

Usandizagarekin eta Lupe Olabarriarekin.
Irizar jauregian, 19:00etan.

ABENDUAK 2

EUSKARALDIARI AGURRA

Aramaio Herria kantuan

Alaia abesbatzakoez eta eskolako umeek kantu-kalejira egingo dute.
Herriko kaleetan, 11:00etan.

Oñati Jolasak

Umeendako.
Gaztetxean, 17:00etan.

Oñati Jolasak

Umeendako.
Gaztetxean, 17:00etan.

Arrasate Kalejira eta topa

DJ Goikorekin egingo dute kalejira, eta, ostean, Seber Altuben elkartu, topa egin eta Euskaraldiko koreografia dantzatuko dute.
Seber Altuben, 19:00etan.

Oñati Jatekoa eta edatekoa

Herritar guztiendako mokadutxo.
Gaztetxean, 20:00etan.

ABENDUAK 3

Oñati Potemkin, Rodeo eta John

Dealer & The Coconuts taldeak
Sarrerak, hamar euro.
Gaztelekuan, 22:00etan.




Ojanburen
funeraria - ehorztetxea

Kalitatezko zerbitzuak



Debagoiendar
guztiondako
zerbitzua



943 79 16 82



Ignacio Zuloaga 2. • Arrasate


Euskaraldiaren podcasta, lau ataletan entzungai

Hizkuntza ohiturak aldatzeko gida izango den programak lau atal ditu eta Monika Belastegi eta Juan Kruz Lakastak gidatzen dute saioa. Estres linguistikoa, sumisio linguistikoa, asertibotasuna eta hizkuntzarentzako gune babestuak lantzen dira

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA

Euskaraldiak bere hirugarren edizioan zenbait berrikuntza dakartza. Ariketa sozialari bul-tzada emateko bidean, horietako bat *Zapla!* podcasta da, eta *ahobizi* eta *belarriprest* izango diren herriarrentzako baliabideak eskaintzea du helburu.

Topaguneak ekoitzi du lana, eta, lau ataletan banatuta, hainbat egoera zehatz irudikatzen dira, adituen aholkuekin. Euskaraldiaren baitan sortutakoa den arren, ostean erabilgarria izatea espero dute egileek, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko baliabideak eskaintzea da podcastaren helburu nagusia.



Zapla! podcastaren logoa.

Adituekin elkarriketak

Azaroaren leian, EITB Podcast plataforman Euskaraldiaren inguruan ekoiztako *Zapla!* podcastaren lehen atala argitaratu zen. Monika Belastegi eta Juan Kruz Lakasta adituek egin dituzten elkarriketak dira programaren ardatza, eta aurreneko atalean Gemma Sangines psikologo bilbotarra elkarriketatatu dute. TELP tailerren sortzaileetako bat izan zen Sangines –hizkuntza espazio pertsonalei buruzko lantegia–, eta stres linguistikoaz, hizkuntza sumisioaz eta asertibitateaz mintzatzen da. Horrekin batera, Juan Ignacio Perez Iglesias EHUKo Kultura Zientifikoko Katedraren zuzendari eta Jakiundeko presidenteak bere bizitzan zehar egindako hizkuntza hautuak azaltzen ditu. Bigarren atalean, berriz, hizkuntza bidaia egiten lagungarri izan daitezkeen ahalduentze taldeak eta euskaldunon ahalduentze eskolak izan dituzte hizpide protagonistek. Tolosaldean egindako lehen bi esperientzien gainean ari da Imanol Artola *Felix* elkarriketa nagusian.

Mikel Martinez aktoreak bere hizkuntza bidaia kontatu du, eta bidaia horretan zehar egindako hizkuntza hautuak azaldu, bide batez. Aste honetan argitaratu dute hirugarren atala, eta bertan, Inaxio Usarralde Euskal Filologian lizentziatua eta Emun kooperatibako hizkuntza aholkularia elkarriketatatu dute, besteak beste. Eta oraindik argitaratu ez den laugarren atalean, Maddi Etxeberria Elhuyarren hizkuntza aholkularia elkarriketatatu dute.

Azken atalaren zain

Azaroaren lehen hiru martitzenean argitaratu dituzte saioak EITBren gunean, eta, azken atalaren faltan –datorren martitzenean argitaratuko da, hilaren 22an–, Google Podcast, Apple Podcast, Ivoox eta Spotify plataformetan ere agertuko dira. Euskaraldia izan da proiektu horren sortzailea, eta ekoizpena, berriz, On Time-k egin du. Kapitulu bakoitzak 30 minutu inguru irauten du, eta, gainera, hizkuntza ohiturak aldatzeko gida entzuteko aukera hor dute herriarrek.

BIDALI EUSKARALDIKO ZURE ARGAZKIAK!

DEBAGOIENKO 'BELARRIPREST'-AK, 'AHOBIZI'-AK ZEIN ARIGUNEAK ERAKUTSI NAHI DITUGU. BIDALI ZURE ARGAZKIAK ETA IRABAZI ERRIGORAKO OTARRE EDER BAT.

LAGUNTZAILEA: **ERRIGORA**

688 69 00 07

Parte hartzeko azken eguna: **abenduak 4.** Irabazlea zozketa bidez aukeratuko da abenduaren 5ean.

goiena

Zu hemen zaude.

EUSKARALDIA

Hitzez ekiteko garaia

EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30

"Estres linguistikoak alde kognitiboan, fisiologikoan eta jokaeran eragiten du"

GEMMA SANGINES PSIKOLOGOA

Psikologo bilbotarrak estres linguistikoa zer den, zein egoeratan agertzen den eta nola eragiten dien herritarrei adierazten du. "Buruan eztabaida sistematikoa dugu; egoera bakoitzean erabaki behar dugu zein hizkuntzatan hitz egingo dugun, aukeratzeko gaitasuna dugulako. Aukeratzeko gaitasunik ez dutenek ez dute arazo hau, eta gaitasun izan beharko lukeena oztopo bihurtzen da, lasai egoteko edo osasuntsu sentitzeko. Edozein solasetan, hizkuntz gutxituok, kasu honetan, euskaraz edo gazteleraz hitz egitea erabakitzen dugu. Orduan, erabakitzen dugun bakoitzean nekatu egiten gara, eta, beraz, neke hori estres linguistikoaren ondorio nagusia litzateke".

Eguneroko portaeretan eragina

Estres linguistikoaren estresa, antsietatea, edozein egoeretan gerta daitekeela dio Sanginesek. Psikologoak hiru mailatan azaltzen du jokaera: "Alde kognitiboan, zein hizkuntzatan hitz



TOPAGUNEA

egingo dut, zein gauza esaten diogun geure buruari. Esaterako, euskaraz aurkezten badut neure burua, bestea gaizki sentituko da; alde fisiologikoan ere estresa sentitzen dugu, eta aldagai fisikoak nabaritu. Giharretako tentsioa... Eta jokaera moduan ere eragiten du. Urduriago gaude, zalantzekin. Hori horrela, gure hizkuntza ohituretan eragina zuzena da, eta, jokaera neutro baten alde egin dezakegunez, erosoago egoteko gaztelerara pasatzen gara eta euskararen presentzia murriztu egiten dugu".

"Norberak duen hori besteekin partekatuz, identifikatuta sentitzen dira kide asko"

IMANOL ARTOLA "FELIX" GALTZAUNDI EUSKARA ELKARTEKO ERAGILEA

Euskaldunen ahaluntze eskolak martxan jartzea proposatu zuen Artolak, 2020. urtean Tolosaldean egindako esperientzian oinarrituta. Horrelako eskola batek hizkuntza ohiturak aldatzeko erabakia hartu duen hiztunari parean jartzen dizkion erronkak izan ditu hizpide: "Estres linguistikoa pairatzen badugu, eta ahaluntzeko beharra baldin badugu, estres hori gainetik kentzen baduzu hobeto bizitzeko erreminta bat izan daiteke".

Ahaluntzean, lau fase

"Ahaluntze fasean lau fase daudela esaten da: mina sentitzea; min hori ez dela justua jakitea, hau da, kolektibo honetakoa naizelako edo beste honetakoa naizelako gertatzen zait hori; hirugarrena, ahaluntzea litzateke, nolabait esateko, erreminta batzuk ikastea sumisio horretatik ateratzeko; eta laugarrena, norbanako mailan, boteretzea. Kasu honetan, legea sartuko litzateke...".




TOPAGUNEA

Tolosaldean egindako ikerketan sei asteko prozesua egin zuen Euskahalduntze taldeak. Euskaldunon ahaluntze eskolek, berriz, hamar saioko proposamena egin dute. Dinamikaren bueltan galdetuta, honako hau dio Artolak: "Tolosaldean egindakoan ahalik eta eduki teoriko gutxien sartzen saiatu ginen. Norberak duen hori besteekin partekatuz. Besteari entzunez eta dituen ezin horiek entzun eta nik lehenago bizi izan ditudan esperientzia batzuekin lotzeak zenbat balio izan dien adierazi izan dute partaideek".


ausolan



Hitzez ekiteko garaia



"TELP tailerretan hizkuntza portaerak indartzera bideratutako lanketak egiten dira"

INAXIO USARRALDE, EMUN KOOPERATIBAN HIZKUNTZA AHOLKULARIA

Hizkuntza portaeren eremuan ari da lanean Inaxio Usarralde, TELP tailerretan gidari (Taller d'Espai Lingüístic Personal), eta saio horietan hiztunei baliabideak ematen dizkiete hainbat egoeratan hizkuntza hautuari eusteko. "Esperientziak diosku beharra duela jendeak hizkuntza ohiturez hitz egiteko, gutxienez. Bi motatako jendea inguratzen zaigu: batetik, gutxieneko kontzientzia duen jendea. Hau da, euskaraz bizi nahi du, baina, maiz, haren hautua aurrera eraman ezinik aurkitzen du bere burua; eta bigarren multzo bat bada: hark nahiko ez lituzkeen hizkuntza ohiturak hain barneratuta dauzka, ohituraren poderioz, eta haren ueste sendoa euskaraz bizi denekoa da, baina ez. Ez da ohartzen beharrik izan gabe zenbat aldiz euskara alboan utzi eta erdarara jotzen duen".

Gogoeta bultzatuz

TELP saioetan, gogoeta bultzatzen dute nagusiki. "Tailerrak zuk nahi duzun



TOPAGUNEA

hizkuntza hautu horri eusteko gonbitea egiten dizu, ahalik eta modu erosoenean, progresibotasuna kontuan hartuz eta asertibitatean oinarrituta. Hainbat egoeretan ez dagoela zertan aldatu behar hizkuntzaz adierazi nahi da, hori ikusarazten dizu, nolabait, eta bide horretatik aholkatuko zaituzte tailerretan". Horrekin batera, portaerak indartzeko kontziente izatea dela lehenengo urratsa dio Usarralde: "Estres egoerak nigan eragina duela konturatu behar dugu, lehenbizi. Nola ahaldundu pentsatu beharko genuke".

"Aldaketak ez dira egun batetik bestera egiten; antolatu beharra dago"

MADDI ETXEBARRIA HIZKUNTZA AHOLKULARIA ELHUYARREN

Norbanako modura hizkuntza ohiturak aldatzeko dauden aukerez eta baliabideez gain, antolatutako erakundeak lagungarri edo oztopo izan daitezke, hartzen dituzten neurrien arabera. Hau da, hiztunon harreman asko antolatutako eremuetan gertatzen dira. Lanean, dendatan, kirol elkarteetan edo osasun zentroan izan daitezke. Eta gune horiek euskararen erabilerarako gune abegikorak izan daitezke, edo ez. Hori dio Maddi Etxebarriak, Elhuyarreko hizkuntza aholkulariak: "Erakunde edo entitate antolatu batek, euskaraz naturaltasunez erabiltzeko erabakia hartu behar du. Erabakia hartu, eta gero, eredugarritasunez jardun behar du. Espazioak eskaini beharko ditu horretarako, eta, erakundeak berak sinistu egin behar du".

Aldaketarako neurri zehatzak

Enpresa, erakunde edo entitate batean aldaketak ez dira egun batetik bestera egiten, eta antolatu egin behar dela dio



ELHUYAR

Etxebarriak: "Erakundearen ezaugarrien arabera antolatu behar da; ez da berdina enpresa batean edo elkarte batean. Arduradunek lidergo bat erakutsi beharko dute, beraiek eredu izan beharko dira, eta langileak ahaldundu egin beharko dira. Azken finean, hainbat baldintza jarri beharko ditu martxan, hiztunentzako lagungarri izan dadin leku hori euskara erabiltzeko. Gutxieneko gaitasun bat behar dugu; erakundeak konforme egon behar da; gune horretan egongo diren kideak bestearen lekuan ere jarri behar dira...".


Bergaran, Hitzez ekiteko garaia



BERGARA
izan, bizi, ekin



Jarraittu degigun
euskeriaren etorkizuna
idazten



OÑATI
dabilen herria

KUTXABANK EUSKARALDIAREKIN

HITZEZ EKITEKO
GARAIA

Euskaraz egunero
2022ko azaroaren 18tik, abenduaren 2ra

HEMENDIK.



Eraikina sendotu, kultura sormena ere sendotzeko

Etorkizuneko kultura ekipamendu nagusia izango den Arrizuriaga jauregia egonkortzeko lanak "martxa onean" doaz eta Udal Gobernuaren asmoa da 2023an barrutik hornitzen hastea; betiere, faseka, askotariko kultura diziplinak batuko dituen eraikina izan dadin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Arrizuriagaren etorkizunera begirako bigarren bilera irekia egin zuten eguazten arratsaldean udaletzeko osoko bilkuren aretoan, kultura ekipamendu berriaren kudeaketa ereduaz hausnartzeko. Herritarren batzordeko arduradun-zinegotzi Ekaitz Aranberriren arabera, herritarren eta eragileen prestutasuna eta iritzia jasotzeko antolatutako zuten bilera: "Kudeaketa eredu ezberdinak ezagutzen ditugu Bergaratik kanpo, zeharo autogestionatuak direnetatik hasita Udalak edo beste erakunde publiko batek erabat kudeatzen dituen ereduera arte. Bilera honekin jakin nahi izan dugu herritarren prestutasuna norainokoa den Arrizuriagaren kudeaketan parte hartzeko; behin hori jasota, proposamen bat egingo dugu Udal Gobernutik".

2023an erabiltzen hasi nahi

Eguazteneko bilera irekia bigarrena izan zen -iraileko azken asteen egindako saioan erabileraz aritu ziren, bereziki- eta, hasiera baten, hor bukatuko da prozesu parte-hartzailea. "Jaso beharrekoak jasota ditugunean eta jauregia egonkortzeko lanak amaitu ostean, kultura ekipamendu izan dadin hornitzen



Arrizuriaga eguazten arratsaldean; lanak "aurreikusitako moduan" doaz. JOKIN BEREZIARTUA




VALEN MOÑUX MUSIKALETAKO ESZENA ZUZENDARIA

"Arautegi aldetik muga handiak ditu babestuta dagoelako, eta ez nuen espero. Askok murriztu dira aukerak, baina beti da albiste ona kultura jardunerako inbertsioa".



NEKANE GABILONDO MUSIKA ESKOLAKO IDAZKARIA

"Arrizuriaga gune bizia izatea nahi nuke, eragile bakoitzaren lanaz harago sormena lantzeko balioko lukeena. Ondo landuz gero, aukera handiak eman ditzake".



IOSU AGIRRE KOKOXA ANTZERKI TALDEKO KIDEA

"Lorategia aprobetxatu beharko litzateke. Eraikinak dinamikoa izan beharko luke barrutik, modu antolatuan betiere edozein herritarrek erabili ahal izateko".

hasiko gara. Faseka garatuko dugu, eta gure asmoa da 2023an erabilgarri egotea".

Lanak "martxa onean" doaz

Arrizuriaga egonkortzeko lanak, Aranberrik dioenez, "aurreikusi moduan" doaz, nahiz eta prozesuaren hasieran espero ez zuten eragozpen bat izan zuten: "Ondare ikuspegitik Eusko Jaurlaritzak babestua dauka Arrizuriaga, eta, horregatik, fatxadaren konponketa lan oso berezi batzuk egin behar dira; lan horietan murgilduta daude orain bertan". Goitu Eraikuntzak SL enpresa ari da lanok gauzatzen, 547.964 euroko aurrekontuarekin -BEZa barne-; eraikina sendotzeko obren barruan, arbelezko estalki osoa berrituko dute eta, fatxadari dagokionez, finkatze, konpontze eta garbitze lanak egiteaz gain, egoera txarrean dauden arotzeriak eta hondatutako beirak ordezkatuko dituzte.

Barrualdean, egoera txarrean dauden zeramikazko estradosatuak eraitsi egingo dituzte, eta euskarri ez diren banaketa guztiak nahiz zoladura arinak kendu egingo dituzte solairu guztie-

tan. Hala, solairu bakoitzean espazio huts bana sortuko dute; betiere, askotariko erabilerak emango zaiela aurreikusita.

Etorkizunerako "estrategikoa"

Kultura arloan bereziki aberatsa den herria da Bergara eta horrek horrela izaten jarraitu dezan "estrategikoa" izango da Arrizuriaga. "Kultura arloko askotariko diziplinak batzeko lekua izatea nahi dugu. Eta sormena lantzeko espazioa izateaz gain, sortutako hori erakusteko plaza izatea ere gustatuko litzazuke; horretarako bileretan aipatu izan da agertoki bat, erakusketarako areto bat eta hitzaldi edo bestelako saioetarako gune bat izan beharko litzazkeela, besteak beste, Arrizuriagak. Hau da, kulturara bideratutako askotariko erabilerak aurreikusten ditugu. Izan ere, uste dugu hurrengo hamarkadetarako estrategikoa izango dela eraikina; hori horrela izan dadin prest gaude beharrezko baliabideak jartzeko", dio Aranberrik.

Emakumeendako txokoa bertan

Aranberrik gogora ekarri duenez, Arrizuriagan kokatuko da etorkizuneko emakumeendako txokoa: "Espazio bat gordeko da emakumeendako izango dena. Aurrerago, modu paraleloan, beste prozesu bat zabalduko dugu mugimendu feministarekin, zehazteko nolako espazioa beharko den eta nolako kudeaketa izango duen".

EMAKUMEENDAKO GUNE BAT GORDEKO DUTE, MUGIMENDU FEMINISTAREKIN LANDUKO DUTENA

Herriko talde hasiberriekin disko bat grabatzeko asmoa du Udalak

Taldeek hilaren 27rako bete behar dute galdetegia; gaur egun "talde pila bat" daudela baliatu nahi du Udalak

J.B.L. BERGARA

Herriko musika taldeekin disko bat grabatu nahi du Udalak, Bergaran "talde pila bat" daudela aprobetxatuz. "Ekimenak ahalbidetuko du talde hasiberriek estudio bat ezagutzea, eta aur-

kezpen modura ere erabili ahaliko dute kantua", dio Herritarren batzordeko arduradun-zinegotzi Ekaitz Aranberrik. Grabatzeko gertu egongo liratekeenendako galdetegi bat prestatu dute, azaroaren 27rako bete behar dena.

Honako baldintza hauek zehaztu ditu Udalak, aldaketak egon daitezkeen arren: abestiak originala izan beharko du, eta aurretik argitaratu gabea; taldeak gaur egun martxan egon beharko du; abestien hitzak ez dira izango kolektibo zaurgarri edo norbanakoentzat iraingarriak; estudioak ezarritako baldintzak bete beharko dira; taldeek behar besteko profesionaltasuna eta prestutasuna adierazi beharko dute; eta taldekideen erdiek, gutxienez, bergararrak izan beharko dute.

Ortu komunitarioak: 91 lursailak esleitu ere, eskaerei zabalik

San Joxepeko ortu komunitarioetarako lursail guztiak esleitu ditu Udalak: 96, guztira. 75 ortu urriaren 5ean egindako zozketan esleitu zituzten. Lursail bat jaso zuten haiek, eta, urriaren 22an eta 29an ikastaroa egin ostean, lanean hasita daude dagoeneko. Esleitzeke geratu ziren 21 lursaillekin, berriz, beste zozketa bat egin zuten azaroaren

10ean, eta, ondorioz, lursail guztiak esleitu zituzte; azken 21 horiek behin-behinean, eta eskaera bat itxarote-zerrendan gelditu da. Izan ere, esleipena behin betikoa izateko, eskatzailak bi baldintza bete beharko zituzte: 50 euroko fidantza ordaintzea eta Udalak antolatutako baratze-gintza ekologikoari buruzko ikastaroa egitea. Lursail guztiak esleitu badaude ere, herritarrek eskaera egin dezakete (943 77 91 63), eta itxarote-zerrendan sartuko ditu Udalak.

Protestetan erretirorik ez, pentsio duinak lortu arte

Bergarako pentsiodunen mugimenduak eta San Joxepe erretiratu elkarteak bailara mailako autobusa antolatu dute bihar, zapatua, Donostiako Alderdi Ederretik irtengo den manifestaziorako (17:30); beste hainbat kolektibok ere egin dute bat mobilizazioarekin



Bergarako pentsiodunen eta San Joxeperen prentsaurrekoa, astelehenean. H.LARREA

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergarako pentsiodunen mugimenduko eta San Joxepe erretiratu elkarteak kideek astelehenero San Martin plazan egiten duten elkarretaratzea baliatu zuten asteburura begirako ekin-tzen berri emateko. Gaur, egubakoitza, Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduaren bigarren asanblada egingo dute Gasteizko Ignacio Aldecoa kultura etxean (10:30), eta Bergaratik 09:00etan irtengo da autobusa. Izena emateko, San Joxeperen egoitzara jo beharra dago. Bi-har, zapatua, manifestazioak egingo dituzte Hego Euskal Herriko hiriburuetan, euren alda-

rrikapenak ahalik eta ozenen entzun daitezen.

"Olatu handi bat" sortu nahi dute Gipuzkoako pentsiodunen manifestazioa Donostiako Alderdi Edertik irtengo da, 17:30ean, eta Bergaratik bailara mailako autobusa antolatu dute; Donostiarako autobuserako ere San Joxeperen egoitzan eman behar da izena. Mobilizazioetan, Madrilgo, EAeko eta Nafarroako gobernuei eskatuko diete, besteak beste, pentsio publiko duinak bermatzeko lan egiteko; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa osatzeko neurriak hartzeko; erosteko ahalmena bermatzeko lan egiteko urteko KPIaren arabera eguneratuz pentsio eta soldatak; genero arrakala amaitzeko soldata eta pentsioetan; eta gizartean zerbitzu unibertsalak hobetzeko eta bermatzeko.

Pentsiodunek nabarmendu dute hitzordu garrantzitsua izango dela, kolektibo askok egin dutelako bat deialdiarekin, eta dei egin diete herritar guztiei bertaratu daitezen. "Ea denon artean olatu handi bat osatzen dugun Donostian", adierazi dute.

Celia Santos idazleak jaioterrian aurkeztuko du 'La niña de Rusia'

Celia Santos idazle ezagunak (Bergara, 1972) *La niña de Rusia* liburua aurkeztuko du azaroaren 24an, Seminarixoa (18:30). Liburuak Teresa Santosen istorioa kontatzen du, 36ko gerrak eraginda Errusiara ihes egin behar izan zuen umearen kasua.

"Oso pozik" dago Santos liburua jaioterrian aurkeztuko delako. "Bergara nire jaioterria da, eta ezin diot joateari utzi. Duela hiru urte izan nintzen azken aldiz, *La maleta de Ana* liburua aurkezteko. Oso bero eta abegitsu hartu ninduten eta maitasun bera eskaini nahi diet oraingoan; nire herrikideek ez dute gutxiago merezi. Aurkeztu-pena ez da ohikoa izango: Angel Petisme kantautore eta poeta izango dut ondoan, konprometitua eta solidarioa; haren abesti aldarrikatzaileak eskainiko ditu; gainera, Teresa Santosi eskainitako abesti bat konposatu du eta egun horretan primizian abestuko du", adierazi du. Liburua erosteko aukera egongo da.

Manso Optika

Gure
'BLACK FRIDAY'
TXUNDITU
 egingo zaitu

INDO

Azaroaren 21etik 30era,

ODOLA IZOZTUKO
BEHERAPENAK
 dizuten
 Maxvita*, UniMax* eta Pottencia*

%80 DESKONTUA
 ko lente progresiboetan eta okupazionaletan

* Hauetan bakarrik aplikagarria: Maxvita, UniMax eta Pottencia 1.5 eta 1.6 indizeetan, zuria, kolorea, BLS Natural IR tratamenduarekin, eENERGY BLUE IR eta Natural SuperClear.

WWW.OPTICAMANSO.COM • 943 76 27 86 • IRIZAR PASEALEKUA 2, BERGARA

RFPS 30/118

Zuzeneko kontzertuekin omenduko dute zaindaria

Azaroaren 22ko Santa Zezilia eguna ospatzeko ekintzak izango dira datozen egunotan, Txistulari Bandaren, Musika Eskolaren eta aurten 190 urte bete dituen Bandaren eskutik; Orkestra Sinfonikoak hilaren 12an eman zuen musikarien zaindaria omentzeko kontzertua

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Azaroaren 22a da Santa Zezilia eguna, musikarien zaindariaren eguna. Egun bereziaren bueltako ekitaldiak joan den asteburuan hasi ziren; horren adibide da Orkestra Sinfonikoak Mariaren Lagundiko elizan eman zuen kontzertua. Eliza bete egin zen, eta txiki gelditu ere bai; izan ere, asko izan ziren kontzertua entzutera bertaratu zirenak. Bandako zuzendari ere baden Enrike Txurrukaren zuzendaritzapean, Christoph Willibald Gluck-en *Alcerte*, Jesus Guridi maisuaren hiru obra, Aram Khatchaturianen *Adagioa*, Txurrukak berak moldatutako *Hiru suediar polska* eta Leroy Andersonen *Blue Tango* piezak eskaini zituen Orkestrak.

Banda: 190. urteurrenari keinua
Musika Bandak ere ez du hutsik egingo Santa Zezilia omentzeko hitzorduarekin. Kontzertua domekan izango da, frontoian (12:00); sarrera doakoa izango da. Eguraldiak laguntzen badu, kalejira egingo dute kontzertuaren aurretik (11:30).

Gaur egun aktibo jarraitzen duen Bergarako eragile zaharrena da Banda, 2022an 190 urte beteko ditu-eta hari buruzko lehen idatziak -1832an sortu zen Udal Musika Banda-. "Ordutik, etenik gabeko bidea izan du. Ez dugu ospakizun berezirik antolatatu, baina urteko kontzertu berezienean urteurrenari keinu txiki egingo diogu. Hala, kontzertua Alfredo Gonzalez Chirilaqueren 1832 obrarekin hasiko dugu, 2007an 175. urteurrena ospatzeko konposatu zuena. Historian zehar Bandaren ibilbidea islatzen du obrak: fanfarre biziak, urteurrenaren poza; martxak, bandek kalean izan duten presentzia; eta bukaerako dantzagarriak, historian zehar bandek izan duten beste eginkizun garrantzitsuenetako bat izan zena",



Orkestra Sinfonikoaren Santa Zeziliaren omenezko kontzertua, azaroaren 12an. GOIENA

MIZPIRUALDE EGOITZAKO KULTURA ASTEAN ERE HARTUKO DUTE PARTE MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEK

aurreratu du Txurrukak. Hau izango da egitaraua: Ernesto Perez Rosilloren *La granjera de Arles*; Jan de Haan-en *Music for a solemnity*; Brian Balmages-en *Three Celtic Dances*; eta, amaitzeko, Victoriano Valencianen *Porro*. Txurrukak piezen deskribapen labur bat egin du: "Rosillo maisuaren zarzuela oso ohikoa da banden errepertorioan, baina zarzueletan nahiko ezohikoa da; Provenzako (Frantzia) doinueta dago oinarritua. Jan de Haanen pieza aproposa da domekarako, ospakizun musika baita. Hurrengo pieza koloretsua eta bizia izango da eta azkenak, berri, Karibeko erritmo dantzagarriak ekarriko ditu".

Musika Bandaren aurretik, Txistulari Bandak Santa Zeziliaren omenezko kalejira egingo du, San Martin plazatik abiatuta (11:00).

Musika Eskolak, hilaren 24an
Bestalde, Musika Eskolak azaroaren 24an ospatuko du Santa Zezilia. Hain zuzen ere, Gazte Banda kalejiran irtengo da eskolatik plazara (17:30), ikasleekin batera; Mizpirualde egoitzaren atarian geldialdia egin eta pare bat pieza joko dituzte. Trikitilariak eta dantzariak ere arituko dira kalejiran, eta gero, denak elkartuko dira plazan. Bertan, Musika Tailerreko, Dantzako, abesbatzetako eta Hizkuntza Musikaleko ikasleek, Gazte Bandak lagunduta, abesti batzuk kantatuko dituzte. "Euskaraldia dela eta, *Ahobizi* eta *Belarriprest* gurekin izango ditugu kalejiran eta baita plazan bertan ere, eta denok elkarrekin *Euskal Herrian euskaraz* jo eta abestuko dugu", gaineratu dute.

Gainera, azaroaren 21etik 27ra Kultura Astea ospatuko dute Mizpirualden, Musika Eskolako ikasleen parte hartzearekin: hilaren 21ean, hari-taldeak joko du; hilaren 22an, Hasiberrien Abesbatza izango dute; eta hilaren 23an, trikiti, pandero eta gitarra ikasleen txanda izango da.



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Euskaraldia zurekin, amama

Berriz ere hemen da Euskaraldia, azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean hirugarren aldiz egingo den ariketa erraldoia. Bi urtez zain egon eta gero, heldu da berrirori, hizkuntza ohiturak aldatzen eta estres linguistikoa gutxitzen laguntzeko. Parte hartzaileok, euskararekiko jarrera uzkurra dutenei euskaraz egitean, nor ez da sentitu babestuta jertseari lotutako *ahobizi* edo *belarriprest* txaparekin? Nor ez du indarrez betetzen kalera irten eta horrenbeste *ahobizi* nahiz *belarriprest* ikusteak? Euskaraldiak nori ez dio eskaini momentu berezirik?

Niri horrelako momentu nahiz sorpresa asko eman izan dizkit, baina bada bat gainerako sorpresak baino bereziagoa. Parte hartzeko izena ematen hasi nintzenean, bigarren parte hartzaile baten izen-ematea berrets nezakeen: Felisa Garitano Elkoroiribe. Nire bihotzeko Felisa, nire bihotzeko amama. Beti izan zara horren euskaltzalea... Duela urtebete utzi gintuzun, baina Euskaraldia bera ere zutaz gogoratzen da. Zin dagit, amama: hemendik aurrera ilusio bikoitzarekin hartuko dut Euskaraldi bakoitza eta are *ahobizi*-agoa izango naiz. Zurekin. Zuretzat.

BKE: Gabonetako kanpaina martxan, zozketa bereziarekin

Gabonetako zozketa berezia abiatuko du Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak datozen egunotan. Sariak Bidekurutzeta kaleko erakusleihoan egongo dira ikusgai, Depor tabernaren ondoan, eta txartelak salgai egongo dira jokalarien artean eta ondorengo tabernetan: Depor, Irrintzi, Agorrosin eta Labegaraia. Zozketa abenduaren 31n

egingo da, 20:00etan, eta, 30 egun ez bada irabazlerik agertzen, erreserba zenbakira pasatuko da saria; sari nagusia da Gabonetako otarre erraldoia; bigarren saria, patinete elektrikoa; hirugarrena, asteburu baterako opari-txartela; laugarrena, telebista bat; eta bosgarrena, BKEko kirol materiala. Era berean, askotariko kirol materiala jarri dute salgai (www.latiendademilub.com/bergarake/eu), eta eskatu dute eskaerak garaiz egitea, pilaketak ekiditeko.

OHARRAK

Txapa Irratiko 'Haus of beats' saioaren festa

Festa berezia egingo dute bihar kartzela zaharrean. Bi emanalditan banatu dute festa: 18:00etan hasita, Massa Confusa eta Amsia taldeen kontzertuak; eta, 23:00etatik aurrera, klub gaua izango dute A-Tweed-ekin eta *Haus of beats*-eko DJ diren Balza, Keep_A eta Balzarekin. Sarreraren prezioa: kontzertua, bost euro; klub gaua, bost euro; bi emanaldietarako sarrera, zortzi euro.

Aurkezpena Angiolillo liburutegiaren eskutik

Euskal Herriko antimilitarista taldeak idatzitako *La sapa de los Aperribay. La guerra empieza aquí* liburua aurkeztuko dute gaur, azaroak 18, kartzela zaharrean (19:00).

Ndank Ndank: Senegal ezagutzeko bidaia

2023ko otsailaren 14tik 24ra izango da bidaia; Somone, Dionewar, Saint Louis, Lago Rosa eta Dakar ezagutuko dituzte, gidari senegaldarrekin. 15 lagunekoko taldea osatu arte eman ahalgo da izena: 636 16 30 10 edo ndank.ndank.elkartea@gmail.com.

1944an jaiotako bergararren ospakizuna

Azaroaren 27an batzokian bazkalduko dute (14:30). Izena emateko azken eguna, hilaren 20a: 666 36 49 74 edo 943 76 50 22.



KTARSIA • ILUMINATIZZ ERROMINTXELAK • ETXEPE

Bergarako Seminarixoa | **Azaroaren 25ean, egubakoitza** | 21:30

Chill out gunea, 20:00etatik aurrera, San Martin plazan (Errege Seminarioaren arkupeetan), DOAN
Artista gonbidatua: Ion Arteaga 'Buda' (musika elektronikoa)

Sarrera arrunta **4€** • Goiena app-ean alta ematen dutenek **2€** • Goienakideek, Goiena txartela erakutsita **0€**

Abenduak 16

**ARRAGOA • ISLABAT
ORHI • SINDY BERBENAS**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideetza, Gasteria
eta Kirol Departamentua



BABESLEAK

Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deporte



Bergarako Udala

LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA

goiena[™]
KOMUNITARIO TALDEA





Antzerkigintzaren inguruko solasaldia Olananen. M.A.

Antzerkigintza, herriaren kultura sortzaile

Edurne Azkarate, Eneritz Artetxe eta Iñaki Ziarrusta antzerkigileek, besteak beste, antzerkiak barnebiltzen dituen sinergiezt jardun eta hausnartu dute. Mahai-ingurua Debagoieneko antzerki jaialdiaren (Karo) baitan egin da asteon Olarango aretoan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Zergatik antzerki talde bat herrian? galderaren bueltan hausnartu dute sektoreko profesionalak. Debagoieneko Antzerki Plataformak (DAP) antolatuta, asteon egin dute Olananen mahai-ingurua, Karo antzerki jaialdiaren baitan.

Bertan izan dira, besteak beste, *Irati* filmeko aktore Edurne

Azkarate, Eneritz Artetxe eta Iñaki Ziarrusta antzerkigileak eta Irazan antzerki taldeko kide Josu Zubia aktorea.

Guztiak ados daude herrian edozein kultura talde izateak onurak dakartzala adierazteko orduan. Eneritz Artetxe antzerkigileak, esaterako, talde horiek –antzerki nahiz bestelako kultura taldeak– herriko kultura sor-

tzeko oinarri direla dio. "Herri baten kulturaren adierazgarri dira herrian sortzen diren antzerki zein bestelako kultura taldeak. Antzerki taldearen barruan kokatuko nituzke antzerkiaren bueltan aktiboki parte hartzen dutenak: ikusleak, aktoreak, herritarrak... Antzerki-sarea, alegia". Baina hezkuntza gakoa dela dio: "Antzerki pro-

dukzioan jartzen da fokua, baina jende dena arduratuta dago zergatik ez diren herritarrak antzerkia ikustera joaten. Horregatik, uste dut herritarrek erraztasun gehiago izan beharko luketela antzerkian edo bestelako kultura esparruetan aktiboki parte hartzeko". Ildo beretik, Edurne Azkarate aktoreak dio antzerkiak herriari onura dakarkiola: "Antzerkiak herri bati eman diezazkiokeen gauza guztiak positiboak eta onuragarriak izango dira. Ekintza bat eskaintzen die herritarrei, eta askotariko adinetako hainbat herritarri parte hartzeko aukera ere ematen die antzerkiak. Publikoa sortzen ere laguntzen du eta herriko dinamiketan –ekitaldietan edo ikasitakoa erakusten – parte hartzen laguntzen du".

Kultura sortzaile

Antzerkia, kultura sortzailea ez ezik, diziiplina asko batzen dituen artea da, eta horrek aukerak zabaltzen dituela herritarren artean dio: "Antzerkiak diziiplina ugari batzen ditu eta beste gauza asko barnebiltzeko gaitasuna dauka. Eta hor sortzen dira sinergiak. Herri askotan daude musika taldeak, abesbatzak, marrazketa taldeak, musika bandak... Uste dut oso onuragarria dela herriarendako; baita norbanakoendako ere. Osasun publikoak psikologia bermatzen ez duen garai honetan, alternatiba da antzerkira joatea norbera ezagutzeko eta bestearekin harremanetan jartzeko. Ikaske-ta pertsonala izateko ere baliagarria dela uste dut".

Azkarateri antzerkigintzak eman dionak asko balio izan dio *Irati* moduko produkzio handi bati aurre egiteko: "Oso ondo moldatua naiz, urtebete pasa da

filma errodatu genuenetik. Gogorra izan zen, baina oroitzapen onak ditut. Helburuak betetzen genituela ikustea pozgarria izan da. Pertsonalki, nire karrerari sekulako bultzada eman dio film honek, opari bat izan da".

Sormena sustatzeko

DAPeko kide Josu Zubiak Karo jaialdiaren balorazio ona egin du eta helburua askotariko ekintzak antolatzea izan dela esan du: "Denondako eskaintzak antolatu nahi izan ditugu, eta ez soilik ikuskizunetan zentratzea. Hala, formakuntzak eta ekintza bereziak antolatu ditugu –mahai-ingurua, esaterako–. Era berean, sormena azpimarratu nahi izan dute, eta, horretarako, beka bat martxan jarri dute. "Gorputza zentroan duen Eider Sanzen ikerketak eskuratu du beka; oso berezia da proiektua. Antzuolan egingo da egonaldia eta herritarren eta ingurukoen parte hartzea eskatuko du".

Gorputza erdigunean jarrita antzerkia emozioak kanalizatzeko bidea ere badela gaineratu du Zubiak. Hori praktikan jartzeko aukera izango dute Antzuolako gazte txokoko neska-mutilek azaroaren 26an egingo duten kale antzerki tailerrean. "Adierazteko modua da, zeure burua ezagutu behar duzu. Batzuek terapia da; beste batzuek, aldiz, politika egiteko modua. Norberak nahi duen erabilera eman diezaiok gorputzari".

DIZIPLINA UGARI BARNEBILTZEN DITU ANTZERKIAK ETA JENDE ASKORENGANA IRISTEN DA

Udal artxiboa gertu-gertutik

Landaxope erretiratu elkarteko hogeiki kide izan ziren Antzuolako udaletxeko artxiboaren historia bertatik bertara ezagutzen eta bertan gordetzen diren dokumentu esanguratsuenak ikusten. Hain zuzen ere, Lourdes Odriozola eta Iñigo Ramirez de Okariz historialarien eskutik egin zuten bisita gidatua. Herritarrek interes biziarekin jarraitu zuten.



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

OHARRAK

Bisita gidatuak

Amatxo gaztandegira bisita gidatuak egingo dira bihar eta etzi, 11:00etan. Doakoa da, baina aurrez erreserba egin behar da, 943 79 64 63 telefonora deituta.

Gaztaina erre jana

Bi urteko etenaldiaren ostean, Udalak herritarrendako Gaztaina Erre Eguna antolatu du. Domekan 19:00etan Herriko Plazan egingo dute.

'Gamer gela'

Game Erauntsia Elkartearen eskutik euskarazko bideojokoez gozatuko dute gazte txokoa bihar, 17:00etan hasita.



Martitzenean abiatu zuten karta txapelketa Landatxopen. M.A.

41 bikote Landatxoeko karta txapelketa arrakastatsuan

Puntuari, briskan eta tutean egin dute erretiratuek; txapelketari amaiera gaurko mus saioak emango dio

M.A. ANTZUOLA

Bi urteko etenaldiaren ostean, asteen "gogotsu" ekin diote Landatxoeko erretiratu elkarteak antolatutako karta txapelketari. "Erretiratuek bazeukaten gogo berriro batu eta karta jokoa jarduteko elkartearen. Harremanak indartzeko eta buruari eragiteko aukera aparta da, eta txapelketa berriro martxan jarri behar genuela argi geneukan elkarte-kideok", azaldu du Lorentxo Iturbek, Landatxoeko batzorde kideak.

Hala, bikote askok parte hartu dute orain arte egin diren

lehiaketetan. "Puntuari hamar bikote izan ditugu lehiatzen, briskan zazpi eta tutean, aldiz, zortzi. Gaur, musean zortzi bikote jardungo dute, arratsaldeko lauretan hasita", gaineratu du Iturbek.

Domeketan bingoa

Karta txapelketa ez ezik, berriro berreskuratu dute domekeroko bingo-jokoa ere. Arratsaldeko bostetatik zazpietara bitartean erretiratu ugari parte hartzen dute, gainera. Hala, etzi arratsaldean bingoaz gozatzeko aukera izango da.



IMANOL BELOKI

Mahai-jolasekin gozatzen

Jolasenea elkartearen eskutik, mahai-jolasak ezagutzeko aukera izan dute herritarrek. Adin guztientzako jolasak eraman dituzte, baina, batez ere, gaztetxoak animatu dira bertara. Lagunartean, aurrez ezagutzen zituzten jolasetan aritu dira ondo pasatzen, baina berriak ezagutzeko tarte ere hartu dute Olarango kultura etxean.

Mendizabal eta Balerdi, txapeldunorde etxean

Antzuolako pilotariek 22-14 galdu dute Gipuzkoako eskuz binakako senior txapelketa, etxeko pilotalekuan. Hernaniko Ojuel eta Lizeaga bikotearen jokoa ezin izan dute menderatu. Bigarren mailako finala Lazkaora joan da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gipuzkoako eskuz binakako txapelketako senior mailako bi final jokatu ziren asteburuan Antzuolako pilotalekuan; bigarren mailakoa jokatu zen lehenengo, eta lehen mailakoa jarraian.

Hala, bigarren norgehiagoka horretan lehiatu ziren Aitor Mendizabal eta Manex Balerdi pilotari antzuolarrak. Ez zen izan, ordea, Manex Balerdiren egunik onena. Atzelariak hutsegite asko egin zituen, eta Hernaniko pilotariek jakin izan zuten partiduari etekina ateratzen. Aurreko koadroetan, aldiz, hobeto ibili zen Aitor Mendizabal. Partiduaren gidaritza eta zama hartu zituen behin baino gehiagotan, baina Mendizabalek ere egin zituen hutsegiteak, eta ondo baliatu zuen hori Ojuele eta Lizeaga bikoteak.

"Gaur ez dut batere egun ona izan", azaldu zuen norgehiagokaren amaieran Manex Balerdik. "Beti ezin da, baina gaur pena handia dut, herrian izan delako finaleko partidua".

Guztira, 51 minutu iraun zuen norgehiagokak. Hasieran, antzuolarrak jarri ziren aurretik, eta etxekoek egin zituzten partiduko lehenengo hiru tantoak. Hurrengo hirurak, berriz, her-



Sari banaketa Antzuolako frontoian. GOIENA

nariarrek egin zituzten, eta lauko berdinketaren ostean zazpi tantoko alde atera zuten Ojuelek eta Lizeagak.

Antzuolakoez ez zuten, aldiz, amorerik eman, eta, batez ere, Mendizabalen jokoari esker lau tanto egin zituzten, eta markagailua 12-9an utzi. Ez zen nahikoa izan, ordea, partiduari buelta emateko. Handik gutxira beste sei tanto egin zituzten jarraian Hernanikoez, eta 20-12ra heldu zen markagailua. Beste bi tanto ere egin zituzten etxekoek, baina gehiago izan ziren

Ojuel eta Lizeaga. 22-14 amaitu zen Gipuzkoako eskuz binakako senior txapelketako finala.

Bigarren mailako finalak

Bigarren mailako finalean, Lazkaora joan da txapela; izan ere, Otxoa eta Garmendipe 17-22 nagusitu ziren Zegamako Sukia-Galdos bikotearen aurkako norgehiagokan.

Horrenbestez, amaierara iritsi da Gipuzkoako eskuz binakako txapelketa. Oiertzunen eta Alegian jokatu dira kategoria txikiak.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuak, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

MUJKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

lazko odol emaile onek ere jaso dute saria

Herri bakoitzak berean egiten ditu ekitaldiak odola askotan eman duten emaileei esker onak emateko, baina baliteke hemendik aurrera Gipuzkoako ekitaldi bakarra egitea berriz ere. Oñatin, azaroko odol ematean omendu dituzte 2021ekoak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Azaroko odol emate eguna aprobetxatu du Oñatiko Odol Emaileen elkarteak odol ateratze asko egin dituzten herritarrei esker oneko ekitaldia egiteko. 25, 50, 75 edo 100 aldiz odola eman duten hamaika herritar zeuden deituta eta horietatik zortzi joan ziren. Odola emateak ez diela inolako lanik ematen aipatu zuten guztiek.

Txanda aurrez hartuta

Odola emateak duen garrantzia handia dela gogorarazten dute sarri Gipuzkoako zein Oñatiko odol emaileen elkarteek, eta askotan eman dutenei ekarpen hori errekonozitzeko ohitura dute. Odol emaileen agiria emateko ekitaldi bakarra antolatu ohi izan dute urteetan, eta hara deitu errekonozimendua jaso behar zuten gipuzkoar guztiak. Pandemiatatik, baina, ezin izan dute horrelakorik egin azken bi urteetan eta herri



Azaroko ekitaldian esker onak jaso zituzten odol emaileak. O.E.G.

banatu dituzte esker oneko agiri edo oroigarriak. Otsailean, 2020an omendu behar zituztenekin egin zuten ekitaldia; eta joan den egubakoitzean, 2021ekoekin. "Egoera beste bat da gaur eta baliteke aurtengoak

omentzeko Gipuzkoa osoko ekitaldi bakarra egitea berriz ere hurrengo urtean", aurreratu du elkarte Pili Irazabalek. Araban eta Bizkaian bestelako funtzionamendua dutela diote Oñatiko elkarte kideek, eta lurralde horietan ez dutela modu honetako esker oneko ekitaldirik egiten.

Pandemiak aldatu zuen beste ohitura bat odola emateko ordua hartzearena da. Lehen, ilaran jartzen zen jendea odola emateko txanda heldu arte. Egun, aurretik hartu behar da ordua, eta sistema honekin gustura daude odol emaileak. "Batetik, ondo datorkien ordua aukeratzen dute, eta, bestetik, ez dute askorik itxaron beharrik; hiru ordu laurdenean kanpoan dira berriz".

60 bat odol emate aldiro

Txanda aurrez hartuta, odola emateko 60 bat hitzordu ematen dituzte aldiro Oñatin. Hilabete guzietan ez dira ordu guztiak betetzen, baina udatik hona kopurua mantendu egin dela adierazi dute herriko odol emaileen elkarteok, pozik; azarokoan ere hitzordu guztiak lotu dituzte: 60, hain zuzen ere.



Martzelino Zelaia kalea. O.E.G.

Martzelino Zelaia kalea irisgarriagoa izango da gero

Altuera berean egongo da kalea, eta argiteria eta ur hornidura sarea hobetu egingo dituzte

O.E.G. OÑATI

"Gipuzkoako Urak-ek esku-hartze beharra zuen Martzelino Zelaia kalean. Esku-hartzeak obrak zekartzan. Bada, bertan segurtasunari eta irisgarritasunari loturik identifikaturik genituen arazoak ikusita, hobekuntza-lanak egiteko une egokia zela ikusi genuen. Hobekuntza-lanak eginda, gune segurua goa eta irisgarriagoa izango da", azaldu du Xabier Igartuak, Zerbizuetako eta Landa Garapeneko batzordeburuak.


Plataforma bakarra egingo dute, oinezkoen eta ibilgailuen

guneak kota berean jarrita. Aparkalekuak kenduko dituzte eta zamalanetarako guneak markatuko. Argiteria ere egokituko dute. Astelehena da proposamenak aurkezteko azken eguna.

Lezesarriko obrak, hasita

Lezesarri auzoan, bestalde, hasita daude oinezkoendako bidea egokitze lanak, auzotarrek eskatuta. Bi metro izango ditu zabaleran bidegorriak, ezkerrean edo eskuman, eta, haren parean errepidea estuagoa izango denez, ibilgailuen abiadura moteltzea ere lortuko du.

Esker ona jaso dute



JOXE MARI LERTXUNDI
UGARTEMENDIA 100 ALDIZ

"Odola behar da eta gauza on bat egitea da odola ematea. 1984an eman nuen nik lehendabiziko aldiz, beharra zegoela entzunda. Harrezkero, nahiko fin ibili naiz. 70 urte beteko ditut laster eta adinagatik eten beharko dut, baina ez beste ezergatik. Ez zait batere kostatzen".



JOXE RAMON AXPE
EZPELETA 75 ALDIZ

"Amaren bidea jarraituta hasi nintzen odola ematen, 18 urterekin. Ez dut inoiz momentu txarrik pasa. Asko kulturalen edo kirolean ibiltzen dira lanean, laguntzen. Nik ez dut horrelakorik egiten eta gizarteari egiten diodan ekarpen moduan ere ikusten dut ahalegin hau".

OHARRAK

Aurrekontuak

Domeka, azaroak 20, da azken eguna aurrekontu parte-hartzaileetako proposamenak bozkatzeko: www.oñati.eus.

Parrokia, zabalik

Bukatu dituzte sitsak egindako kalteak tratatzeko lanak eta zapatutik aurrera parrokian egingo dituzte hango elizkizunak. Baita hiletak ere.

Pentsiodunak

Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduko emakumeen bigarren asanblada egingo da ostiralean eta pentsiodunen manifestazioa larunbatean, eta ekitaldi biek egingo dute bat Oñatiko pentsiodunek.



Eguazten arratsaldean Santa Anan egindako aurkezpenean. MIREIA BIKUÑA

Jasangarriagoak izateko tresna dendariendako

Dendatu du izena tresnak, eta komertzio bakoitzean lortutako diagnostikoa lehen urratsa izango da ekonomia zirkularreko irizpideetan duen egoera ezagutzeko eta trantsizio ekologikoa erraztuko duten eguneroko praktikan aldaketak egiten hasteko

Oihana Elortza Gorostizan OÑATI

Jasangarritasun eta garapen iraunkorreko helburuak lortzeko komertzioek zer egiten duten eta zer egin ahal duten jakiteko erreminta bat aurkeztu die aste honetan Aldundiak herriko merkatariei. Dendatu du izena, eta helburuak lortzen laguntzeko abiapuntua dela azaldu dute eguaztenean egindako aurkezpenean; alegia, lehen pausoa.

2032an kokatzen da

Aplikazioa jaitsi eta hamabost bat minutuan bete ahal izan duten autodiagnosi txosten bat osatu dute aurkezpenera joandako herriko dendariak. "Negozioiko area ezberdinetan zein puntutan zauden erakusten du autodiagnosi horrek, eta Gipuzkoako batez bestekoaren gaitik edo azpitik zauden adierazten du. Datu horiekin, Aldundiak proposatzen dizkizu egiteko ekintza ezberdinak", azaldu du tresna hori ezartzeaz arduratzen den Sinnple enpresako Maria

Rodriguezek. Esaterako, saltokietako hondakinen kudeaketa, bilgarriak, argiaren faktura, aireztapena eta produktuen trazabilitatea nola betetzen duten neurtuko dute tresna hori erabilita.

Abendura bitartean Gipuzkoako 200 komertziotara heldu gura dute, Gipuzkoako mailako *argazki* bat ateratzeko eta, ahulguneak eta indarguneak identifikatuta, laguntzak eskaintzeko. "Lau helburu proposatzen zaizkie eta norberak erabakitzen du zer egin dezakeen. Adibidez, energia berriztagarrian aurten negozioan barneratu edo aurrera eraman ahal duten edo ez. Aldundiak helburu horiek lortzen lagunduko die gero". Euren lanari

**ALDUNDIAK
LAGUNTZAK EMANGO
DIZKIE EUREN
HELBURUAK
LORTZEKO**

balioa emateko eta egiten duten lan hori bezeroekin partekatze-ko eta eurei eskaintzeko ere balioko diela ekimen honek gaineratu du Rodriguezek.

Herriko bederatzi komertzio

Eguazten arratsaldean egin zuten Dendatu ekimenaren aurkezpena, Santa Ana antzokian. Karmelo Guridi eta Unai Kortabarria Oñatiko Udaleko Sozioekonomiako batzordeburuak eta teknikariak, Enrique Ramos Aldundiko Obra Hidraulikoetako zuzendariak, Gipuzkoako Merkataritza Federazioko eta Oñatiko merkataritzako ordezkariak hartu zuten parte, Sinnple enpresako kideaz gain. Herriko bederatzi komertzio egon ziren ekitaldian eta han bertan egin zuten autodiagnosi, behin aplikazioa jaitzita. Guztira, hemezortzi galdera erantzun zituzten, lau arlo ezberdinetan banatuta. Herriko komertzioei laguntzearen alde agertu ziren guztiak.

Kalera aterako dira musikariak Santa Zezilia egunean

Martitzenean da Santa Zezilia eguna, azaroak 22, eta Oñatiko musikariak kalera aterako dira euren egunari keinua egitera. Oñatiko Musika Bandak, esaterako, kalejira egingo du kaleetan barrena, 19:00etan, Aitor Biain zuzendariaren gidaritzapean.

Aurretik, 17:00etan, Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak izango dira musika instrumentuak hartu eta kalez kale ibiliko direnak; Etxaluze-tik Berdura plazaraino joango dira musika joz. Eta azokara heldutakoan, emanaldia egingo dute; 17:30ean izango da ekitaldia. Horren ondoren, txokolate beroa eskainiko diete musika ikasleei.

Abentura berriarekin dator Tomax pailazoa domekan Oñatira

Adi, grabatzen, ekin... ikuskizunarekin dator Tomax pailazoa domekan Oñatira, Urgain-Errekaldeko ikasleen Guraso Elkar-teak antolatuta. Bi saio egingo ditu Oñati institutuko aretoan: 16:30ean eta 18:00etan. Herriar guztiei dago zuzenduta eta sar-rrerak aurrez eros daitezke Txokolateixan, bost eurotan -2 urte artekoak, doan-.

Gaztaina jana eta Petti hilaren 26an Araotzen

Auzotarrek antolatuta, gaztaina jana egingo dute Araotzen urtero, eta ekitaldi hori kultura hitzordu batekin osatuko dute, gainera. Aurten izango da lehen aldia, azaroaren 26an. 18:00etan, gaztaina jana egongo da, eta, ondoren, 19:30ean, Pettiren kontzertua.

Elizako aterpean egingo du kontzertua Pettik eta gaztaina jana ere plazaratxoaren bueltan izango da, kanpoan ateri bada eta frontoian euria bada. Ekitaldi biak doan izango dira, eta urteroko agendako lehendabizikoa. Gabonen aurretik urtero egingo dute gaztaina jana eta kultur hitzordua batuko dituen ekitaldia Araotzen.

Arabako mugarriak ezagutzeko laugarren mendi irteera

Herriko mugarriak ezagutzeko laugarren mendi irteera egingo dute domekan, Aloña Mendiko mendi sailak gidatuta. Oñatiko Arabako mendietara joango dira, Urkilla Mendikatera. Iturrigorriko bidea hartuta, Artzanegin hartuko dute Oñatiko muga, Asparrenarekin, ibilbidea Artasoraino helduta. Sei bat ordukoa eta zailtasun teknikorik ez.

GORA ETA BEHERA



Ezkerreko erreitik autobusa Zubillagan

"Sarri" gertatzen da argazkian ikusten den egoera Zubillagan, herriar batek bidali duenez: "Autobusak ezkerreko erreitik joaten dira, lasai asko, arriskua sortuz". Hori konpontzeko neurriak hartu behar direla gaineratu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Mikel Velasco, domekan Behobian. B/SS



Ainhua Aranburu, Bulebarreko zuzenean. B/SS

Indartsu datoz ondorengoak

ATLETISMOA Domekan egindako 57. Behobia-Donostia lasterketan bi arrasatear nabarmendu ziren: Mikel Velasco (1.09.47) eta Ainhua Aranburu (1.24.13). Debagoiendar azkarrenak izan ziren eta eurek ere espero ez zuten marka egin zuten

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE Behobia-Donostia herri mailako lasterkari *popularrak* batzen dituen kirol jaia da, eta domekan 303 debagoiendarrek lortu zuten helmuga gurutzatzea. Denak ez ziren, noski, erritmo berean joan, eta batzuek lasterketa ederra egin zuten. Esate baterako, bailarako azkarrenak izan ziren Mikel Velascok (Arrasate, 2000) eta Ainhua Aranburuk (Arrasate, 1997). Gertuagotik ezagutzeko helburuarekin, GOIENA eurekin izan da aste barruan.

Korrika egitea, zaletasun

Mikel Velascorenako eta Ainhua Aranbururenako korrika egiteko zapatilak jantzi eta kalera entrenatzera irtetea zaletasuna baino ez da: "Nire kontura ibiltzen naiz korrika egiten, baina ez dut entrenatzailerik eta halakorik. Duela bi hilabete hasi

nintzen Behobia-Donostiako prestatzen, nire hirugarren edizioa izan da eta aurretik neukan marka [1.14] hobetzea zen helburua. Uste nuen pare bat minutu hobetzeko moduan banengoela, baina ez nire iazko markari bost minutuko tartea jango

VELASCO ETA ARANBURURENDAKO KORRIKA EGITEA ZALETASUNA DA, EZ GEHIAGO

DOMKAN 303 DEBAGOIENDARREK LORTU ZUTEN LASTERKETA AMAITZEA

niola [1.09.47]", dio Mikel Velascok.

Arrasatekoak domekan bertan *Goiena.eus*-atarian ikusi zuen bailarako azkarrena izan zela, eta ez zuen sinisten: "Beste urte batzuetan bigarren taldetxo batean izan naiz; hau da, gure aurretik egon izan dira Debagoieneko beste atleta batzuk, koska bat gorago daudenak [Beñat Arnaizek, esaterako, iaz 1.06.24ko denbora egin zuen], baina aurtan ez dira lasterketan egon eta sorpresa hartu nuen azkarrena ni izan nintzela ikusita".

Ainhua Aranbururenako ere atletismoa zaletasun hutsa da: "Mutil-lagunarekin ibiltzen naiz korrika egiten, harekin joan izan naiz lasterketaren batera, eta turismo apur bat egiteko ere aprobetxatu izan dugu. Esaterako, duela hilabete Logroñon

izan ginen lasterketa batean parte hartzen, eta inguruak bisitatzeko aprobetxatu genuen". Hasi ere lagun artean hasi zen lasterketetan esku hartzen: "Duela urte batzuk egin nuen lehen proba, WOP Bilbao delakoan; lagunekin erreleboka egiten zen lasterketa zen. Ederto ibili ginen, eta orduan hasi nintzen lasterketetan esku hartzen, baina aparteko seriotasun barik". Domkakoa, esaterako, Aranbururen bigarren Behobia-Donostia izan zen: "Iaz, erlojurik gabe irten ginen; proba ezagutu eta ondo pasatzera joan ginen. Aurtan, berriz, erritmo jakin batzuetan egin nahi nuen korrika, erlojuarekin eta helburu batekin. Hala, lehenengo 17 kilometroetan gustura ibili nintzen, baina aitortu behar dut handik aurrera sufritzea tokatu zela. Zorionez, gogorrena eginda neukan, eta eustea zen kontua".

Uste baino marka hobeak

Bada, Ainhua Aranburuk 4.13an egin zuen kilometroa: "Ni oso pozik geratu nintzen, bai, kon-tuan hartuta Behobia-Donostia lasterketa gorabeheratsua dela. Presiorik gabe irten nintzen, ondo nindoan eta uste baino gehiago estutu nuen. Nire gus-turako, eguraldi ona egiten zuen; gu 10:00etan irten ginen eta oraindik ez zuen halako berorik egiten. Ez nuen espero halako markarik egitea".

Velascoren kasuan, kilometroa 3.29an egin zuen: "Astebete lehenago Antxintxika kro-sean izan nintzen eta pozik geratu nintzen egindako lanarekin. Seigarren sailkatu nintzen eta aurreikusi baino erritmo azkarragoetan ibili nintzen. Eta domekan ere gauza antzerako samarra gertatu zitzaidan, aurreikusi baino azkarrago egin nuen korrika". Ondoan izan zuen beste arrasatear bat, amateur mailan ziklistismoan lehiatzen ibili den Asier Azkarate (1.10.25): "Aspaldi ezagutzen dugu elkar, eta elkarrekin egin genituen lehenengo 15 kilometroak. Gero, une batean, apur bat atzean geratu zen, baina segituan iritsi zen helmugara". Orain, Velascok aste batzuk atsean hartzeko hartuko ditu, baina urtea amaitu aurretik erronka bat dauka buruan: "10.000 metroko lasterketa bat egin nahi dut ahalik eta azkarren; uste dut 33.30 inguruan ibil naitekeela".

Domekan ondo estutu zituzten euren gorputzak, baina horrek ez zien eragotzi arratsalde-pasa ederra egitea gero: "Eguraldi txarra egin izan balu etxera bueltatuko ginen, baina sekulako giroa zegoen Donostian, eta han geratu ginen egun-pasa. Gainera, momentuan bertan ondo erreku-peratu nintzen. Gero bai, astelehenean igarri nuen nekea gorputzean", dio Aranburuk. Hala, biek adierazi dute Santamas kro-sean esku hartuko dutela.

Herriz herri, bailarako azkarrenak

Antzuola

- Iker Larrea (1.10.50).
- Amaia Arana (1.54.28)

Aramaio

- Iker R. de Azua (1.19.29).

Arrasate

- Mikel Velasco (1.09.47).
- Ainhua Aranburu (1.24.12).

Aretxabaleta

- Iker Agirregab. (1.15.30).
- Garazi Abasolo (1.33.31).

Bergara

- Andoni Gomez (1.10.38).
- Maider Uribe (1.34.48).

Elgeta

- Odei Zenitagoia (1.22.48).
- Ione Elgoro (1.45.21).

Esakoriatza

- Iñaki Salaberria (1.16.42).
- Ane Etxabe (2.02.28).

Oñati

- Xabier Luis Urzelai (1.10.05).
- Amaia Bernal (1.34.31).

Patinetako sailkapena:

- Joxu Arana. (40.08)
 - Maddi Mujika (47.13)
- asas as asas a



Ainara Urrutia, argazkiaren erdian, Urduñan nabarmendu ziren gainontzeko lasterkariekin batera. EMF

Kopa irabazita borobildu du Urrutiak denboraldia

MENDI LASTERKETAK Joan den domekan Urduñan jokatu zuten EMFk antolatzen duen Euskal Koparako puntuagarria zen azken proba: Urduñako V. mendi lasterketa. Ainara Urrutia izan zen emakumezkoetan onena, eta Euskal Kopa poltsikoratu du horrela

Xabier Urzelai Atxa ARETXABALETA Urte borobila egin du Ainara Urrutiak (Aretxabaleta, 1981), eta domekan Urduñan jarri zion ginga, Euskal Kopako lineako azken lasterketa irabazita. Urrutiak egutegi bete izan du aurten, nazioarteko eta gertuko lasterketetan nabarmendu da, baina aretxabaletarrak EMF Kopako zirkuituko onena izan nahi zuen, eta helburu horrekin aurkeztu zen Urduñako lasterketako irteera puntura.

Bada, Aiaramendi Korrikalariak taldeko atleta lehen igoera gainditu ondoren hasi zen kontrarioak atzean uzten, eta alde hori handituz joan zen helmuga zeharkatu zuen arte. Urrutiak

3.24.04ko denbora egin zuen 18 kilometro eta 1.750 metroko desnibela zuen lasterketan, eta probaren errekorra ezarri zuen, bigarren sailkatu zen Irati Ortiz de Andari bost minutuko tartea aterata. Oihana Zubillaga izan zen podiuma osatu zuen hirugarren lasterkaria.

Kopa, poltsikora

Garaipen horrekin, eta lineako Euskal Kopako bost lasterketetan batutako puntuei esker –Kolazino Mendi Eguna, Kilimon Trail, Amurrio Trail, Labastida Trail eta Urduñako Mendi Lasterketa–, Urrutiak Kopa poltsikoratu du, eta beterranoen kategorian ere Aretxabaletakoaren

dako izan da garaikurra. Gizezkoetan, berriz, Urduñan ere lehenengo sailkatu zen Asier Larruzearendako izan da Kopa.

Mendiko lasterketen denboraldiari ezin zaio gehiagorik eskatu; orain, atsedean hartzearekin batera asfaltozko lasterketa batzuk egiteko gogoz da-goela aitortu du aretxabaletarrak.

Malen Osa 'Harmailatik' saioan Bestalde, astelehenean *Harmailatik* saioan Malen Osa izango da (21:30, 23:00, Goiena telebista). Salomon etxeko atleta duela hilabete Madeiran (Portugal) egin zuten Golden Trail Series-etako finalean nabarmendu zen, bost etapak irabazita.

SASKIBALOIA Grupo Santiagoren bisita izango du MUK etzi

Fundacion Bilbao Basketen kantuan lortutako garaipen ederrak (71-85) arnasa eman dio talde arrasatearrari, eta jokalariek errekuperatzen dabilten neurrian gora egingo du taldeak –Atxak ekarpena egin zuen Bilbao–. Domekan, sailkapenaren seigarren postuan dagoen Grupo Santiagoren kontra jokatu dute (18:30).

FUTBOLA Aloña Mendik Lagun Onak hartuko du domekan etxean

Oñatiarrak dira etxean jokatu dute bakarrak (domeka, 16:30). Zapatuan Zumarragan jokatu du Mondrak (16:00), Mutrikun Bergarak (16:30), eta UDak Lesakan jokatu du domekan (16:30). Emakumezkoetan, Leintz Arizmendik Intxaurdi hartuko du zapatuan (11:30, Azkoagain); Bergarak Hernanin jokatu du bihar (12:30).

ARETO FUTBOLA Mondrate eta Eskoriatza: biek etxean jokatu dute

Maila nazionaleko hirugarren mailan dauden Mondratek eta Eskoriatzak etxean jokatu dute. Arrasatekoek Gora taldearen kontra jokatu dute zapatuan (16:30) Musakolan eta Eskoriatzakoek, berriz, domekan jokatu dute, Gasteizko Aurrearen kontra (18:00). Sailkapenean seigarren daude eskoriatzarrak eta zazpigarren arrasatearrak.

Goienakideen txokoa

AZAROKO SARIAK



Errigorako saskia
Parte hartzeko sariaren izena: errigora

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTATIKO DAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harmamendia.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Informazio gehiago: 09/15/2019 legearen arabera, jabetza erantsita dagoen datu pertsonalaren Goiena komunikazio Zirkuituaren fitxategi automatizatutako datuak dira. Datu bakoitzaren helburu bakarra da indararen dagokien datuak jabetza. Erabakia onartzen duzula adierazten du, beraz, zozketari edo zozketari helburu bakoitzari. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuak aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: azaroak 22

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jabetza
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

BAZKIDETZA KUOTA: 15€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Oñatiko Broken Legacyko abeslaria publikoarekin jolasean. IMANOL SORIANO



Balarrasa taldeko baxu-jolea eta satoka eta gelditu barik ibili zen abeslaria. BITTOR MUNARRIZ



Oñatiko Sukena boskotea Seminarixoko agertoki gainean. IMANOL SORIANO



Aiert bakarlariak emanaldi intimoa egin zuen. BITTOR MUNARRIZ

Goxo hasi, burua astintzen bukatu

Oñatiko Aiert bakarlariak, Sukena eta Broken Legacy taldeek eta Aramaioko Balarrasa laukoteak, nork bere jarraitzaileen babesarekin, onena emateko jarrera erakutsi zuten



XABIER GOROSTIDI

Konturatu orduko, Danbaka lehiaketa heldu da edizio berriko ekuatorera. Bariku iluntzean hirugarren bala jaurti zuen, eta, aurreko bietan bezala, zuzeneko musikaren xarmaz bete zituen Seminarixoa eta Bergarako San Martin plaza. Azaroak berez duen hoztasuna behingoz bazetorrela zirudien arren, eguraldia lagun izan zuen oraingoan ere, eta Seminarixoko kanpoaldean giro ederra sortu zen, beste behin

ere. Sanprubusaren terrazako mahaiak beteta, eta chill out gunean batu ziren ikusleak musika egarria asetzeko prest.

Lehen tragoxka musikala Olatz Ugarte bergararraren eta Cristian Coello arrasatearraren eskutik etorri zen, chill out gunean. Eta ez zen nolanahikoa izan. Coello gitarra-jole fina da, talentua eta pasioa soberan dituen, eta argi utzi zuen gitarra akustikoarekin elektrikoarekin bezain ongi moldatzen dela. Eta zer esan Olatz Ugarteri buruz: ahots bikaina du, eta, soul estiloko damek egiten duten eran,

goxo zein indartsu aritzeko kapazitate itzela erakutsi zuen.

Sarrerei dagokionez, 200 lagun inguru joan ziren ziren barikuko hirugarren kontzertura. Bigarren kontzertuan batutako jendetza ikusita zaila zirudien zifra horietara hurbiltzea, baina kopuru txukuna izan zuen hirugarren saioak ere.

Bi abiadurako emanaldia

Musika eskaintzari dagokionez, beste behin, tutti-frutti musikal zapoetsua dastatu zuten Seminarixora joandako ikusleek. Gaueko kartela eta taldeen or-

dena ikusita, aurreikusi zitekeen bi abiadurako lasterketa izango zela, eta halaxe izan zen: lehen bi kontzertuak suabe antzean, abiadura mugak errespetatuz, eta azken bietan, radarretako zinemometroak lehertzeko moduko erritmoan.

Aiert Alberdi izan zen oholtzara igotzen lehena. Igarri zitzaion taula gainean seguru sentitzen dela, eta ahots erre-gistroak bikain dominatzen dakiela erakutsi zuen. Zortzi kantuko saio intimoa josi zuen, maileguan hartutako kanten presentzia handiarekin. Horien artean zeuden Benito Lertxundiren *Loretzxo*, Doctor Deseoren *Corazón de tango* eta Olatz Salvadorren *Korapilatzen*. Azken hori Salvadorrek berak partekatu zuen sare sozialetan, "ze polita" hitzak erabilita.

Jarraian, Sukena taldeak hartu zion lekukoa. Urduri taula-

ratu ziren, eta gitarra baten afinazioarekin ez zuten asmatu. Bigarren kantan jendea lehen ilarara hurbiltzea lortu zuten, eta zaleen berotasun horri esker segurtasun handiagoarekin jardun zuten.

Geldialdiaren ostean, azelera-gailua zapaltzeko ardura hartu zuten Balarrasa taldekoek. Amorrutik eta distortsioz betetako kantak taularatu zituzten, Kuraia eta Anestesia taldeen bertsio bana egiteaz gain.

Eta azken kolpea Broken Legacyren eskutik etorri zen. Hardcore eta metal erritmo indartsuak zipriztindu zituzten oholtzatik, eta energia deskarga itzela egin zuten. Seminarixoan zaila da hardcore kontzertu batean dagoen musikarien eta ikusleen arteko konexio izerditsu hori lortzea, baina Oñatiko musikariek dena eman zuten atsedetik gabeko emanaldian.

**ABIADURA, ERRITMO
ETA FORMAZIO
EZBERDINEKO LAU
PROPOSAMEN
HIRUGARRENEAN**

**SEMINARIKO
BARRUKO EMANALDI
GUZTIAK, GOIENA
TELEBISTAN ETA
SAREAN IKUSGAI**



Cristian Coello eta Olatz Ugarte, chill out gunean. B.M.



Olatz Ugarte, abeslaria. BITTOR MUNARRIZ



Epaimahaikideak, chill out gunean. IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

Aiert | Oñati

Txikitatik oholtzarekin konexioa duela argi erakutsi zuen bakarleri oñatiarrak. Ahotsarekin nahieran jokatzeko gaitasuna du, eta bere buruarengan konfiantza ere bai. Talentua du, baina kanta propio gehiago jotzea falta izan zitzaien.



IMANOL SORIANO

Balarrasa | Aramaio-Eskoriatza

Jarrera zirikatzailea da euren bereizgarria; doinu distortsionatu eta gogorren babespean, betiere. Arlo teknikoan fin aritu ziren, gitarrista eta baxu-jolea, batez ere, eta *frontman*-a une oro aritu zen publikoa mugiarazten eta xaxatzen.



IMANOL SORIANO

Sukena | Oñati

Oholtzaren gainean esperientzia handirik pilatu ez duen taldea da, eta urduritasun zantzuak igarri zitzaizkion; hasieran, batez ere. Bi ahotsetan abesten trebeak direla erakutsi zuten, eta azken txanpan publikoarekin berotasuna jaso zuten.



IMANOL SORIANO

Broken Legacy | Oñati

Doinu eta jarrera agresiboz osatutako emanaldia egin zuten, euren onena emanez. Abeslariak Donostia-Behobia lasterketan baino kilometro gehiago egin zituen ordu erdian, eta gainontzeko taldekideak teknikoki trebe aritu ziren.

Aretoan jasotako iritziak

AITOR ALDANONDO
EPAIMAHAIKO KIDEA

"Nire ustez, ez da gaurik onena izan, afinazio eta soka apurketek eragindako arazoak izan dituztelako batzuek, baina, orokorrean, ondo egon da. Orain artekoen artean badaude batzuk gailentzen direnak, baina hankaz gora jarri daiteke dena oraindik".

MADDI LARRALDE
IKUS-ENTZULEA

"Bereziki, Sukena ikustera etorri gara gu, lagunak gara eta; hasieran urduri samar zeudela sumatu dugun arren, emanaldiak aurrera egin ahala hobeto ikusi ditugu eta asko gustatu zaigu egin dutena. Orokorrean, lehiaketaren formatua gustatu zaigu".

HAIZEA ARANTZABAL
IKUS-ENTZULEA

"Laguna dudan Aiert ikustera etortzeko asmoa nuen, baina, azkenean, ez naiz heldu; beraz, zer giro dagoen ikustera etorri gara, eta gustatu zaigu. Formatu polita du Danbakak, musikari eta talde berriak ezagutzeko aproposa iruditzen zait".

MIREN IBABE
GOIENAKO LANGILEA

"Hiru kontzertuetan izan naiz sarrerak saltzen; orokorrean, ikusleak gogotsu sartu eta pozik ateratzen dira. Goienaren *app*-a deskargatuz gero sarrera merkeagoa da, eta jendea prest egoten da hori jaisteko. Guretako ona da hori".

HURRENGO KONTZERTUA

Azaroak 25, egubakoitza, 21:30. Bergarako Seminarixoa.

- Ktarsia
- Iluminatizz
- Erromintxelak
- Etxepe

Publikoaren Sariaren sailkapena

- | | |
|----|--|
| 1 | AIERT
Oñati
Botoen %26,8 |
| 2 | SUKENA
Oñati
Botoen %18 |
| 3 | KIIMAK
Antzuola
Botoen %15,5 |
| 4 | BROKEN LEGACY
Oñati
Botoen %8,2 |
| 5 | 112
Arrasate
Botoen %6,8 |
| 6 | KTARSIA
Bergara
Botoen %4,6 |
| 7 | THE CLAYTON
Aramaio
Botoen %4,5 |
| 8 | ILUMINATIZZ
Aretxabaleta-Otxandio
Botoen %4,4 |
| 9 | INGUMA
Oñati-Bergara
Botoen %3 |
| 10 | JASAN
Aretxabaleta-Eskoriatza
Botoen %2,4 |
| 11 | LEMAK
Bergara-Antzuola
Botoen %2,2 |
| 12 | LETAGIN
Oñati
Botoen %1 |
| 13 | BALARRASA
Aramaio-Eskoriatza
Botoen %0,9 |
| 14 | ETXEPE
Arrasate
Botoen %0,5 |
| 15 | ORHI
Bergara
Botoen %0,5 |
| 16 | EYHARTS
Bergara
Botoen %0,4 |
| 17 | SINDY BERBENAS
Arrasate
Botoen %0,2 |
| 18 | ARRAGOA
Bergara
Botoen %0,1 |
| 19 | ERROMINTXELAK
Arrasate-Bergara
Botoen %0,1 |
| 20 | ISLABAT
Bergara-Elgoibar
Botoen %00,0 |

BOTOA EMATEKO

Danbaka.eus webgunean edo Goiena.eus webgunearen Danbaka izeneko kanalean eman daiteke botoa, 2023ko urtarilaren 10era bitartean.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta edo Arrasate. 30 urteko mutil gazte bat naiz, lanarekin, eta etxebizitza txiki baten bila nabil neretako. 688 89 91 25

Basarri billa. Errentan hartzeko basarri billa nabill Bergara, Osintxu, Plazentzia. inguruetan. Hutsik ta zahartuta dauan basarri baten zaintza ta ondo jartzeko tratua eitzeko prest be eongo nintzan. Badakat basarrixa maneijatzeko habilidadia. 688 64 27 61 (Asier)

Oñati. Gela bateko edo biko etxea errentan hartu gura nuke. Interesatuok deitu telefono honetara. 697 83 56 89

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Bi oheko logela ematen da errentan. Partekatua izan daiteke. Nahiago dugu emakume langileendako bada. 632 83 32 44

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Ume zainzaileak. Oñatiko baserri baterako pertsona euskalduna behar da, umeak eskolatik jasotzeko eguerdian, pare bat ordutarako. Autoa izatea beharrezkoa. 679 55 60 15 edo 943 78 20 42

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Zaintza lanetan jardun nahi dut. 637 56 89 56

Arrasate. 0-12 urte bitarteko haurrak zaintzeko gertu. 662 47 28 88 edo 615 04 60 45

Arrasate. Arrasateko neska arduratsu eta atsegina umeak zaintzeko gertu, baita pertsona nagusiei laguntza eman eta kalera laguntzeko ere. Ondo moldatzen naiz haurrekin zein helduekin. 695 73 87 95

Arrasate. Gizona gertu nagusiei paseatzera laguntzeko edota ospitalean daudenei gauetan laguntza emateko. Telefonoa: 631 37 49 04

Bergara. 32 urteko mutila prest pertsona nagusiak zaintzeko, margotzen edota eraikuntzan laguntzaile bezala lan egiteko. 631 73 15 66

Bergara. Emakumea prest haur zein helduak zaintzeko, etxeak garbitzeko edo zerbitzari lanak eta sukaldar laguntzaile

bezala lanean aritzeko. 631 73 15 66

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. 611 20 36 82

Debagoiena. Egunean zehar, baita orduka ere, zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 632 42 84 38

Debagoiena. Emakumea prest gauze lan egiteko pertsona nagusiak zaintzen. Legezko agiriekin eta soziosanitario ikastaroa. 688 72 58 12

Debagoiena. Emakumezkoa gertu haurrak zein nagusiak zaintzeko eta baita garbiketa lanak egiteko. Astean zehar eta asteburuetan. Telefonoa: 747 42 79 07 (Marta)

Debagoiena. Emakumezkoa gertu ostalaritzan lan egiteko, barran edo sukaldean. Astean zehar eta igandetan gertu lana egiteko. 632 10 79 78 (Joana)

Debagoiena. Erizain laguntzaile naiz eta nagusiak edo laguntza behar duten pertsonak zainduko nituzke. Arduratsua naiz. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Legezko agiri guztiak eta erreferentzia onak aurkez ditzaket. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Esperientziadun emakumea zaharren egoitzetan lan egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. Soziosanitario ikastaroa. Telefonoa: 641 97 29 77

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo gaue-tan zaintza lanetarako gertu nago. Erreferentzia onak eta soziosanitario agiria. 631 12 51 27

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682 40 53 38

Debagoiena. Garbiketa industrial kurtsoa duen neska lan bila, baita pertsonen zaintzarako ere. 624 524 376

Debagoiena. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusien zaintzan lan egin nahi dut. 631 60 10 94

Debagoiena. Garbiketa lanetan edota pertsona nagusien zaintzan lan egiteko prest nago. Telefonoa: 643 65 28 27

Debagoiena. Garbiketan lan egingo nuke: etxeak, lantegiak eta abar. Telefonoa: 612 20 31 28

Debagoiena. Garbiketan, umeak zaintzen edo laguntza behar duten nagusiekin egoten lan egiteko gertu nago. Telefonoa: 688 71 08 09

Debagoiena. Garbiketan, zaintza lanetan edota ospitalean daudenei laguntzen lan egingo nuke. Soziosanitario titulazioa eta esperientzia. Telefonoa: 641 51 13 06

Debagoiena. Gertu nago nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako edo nagusiak zaindu eta laguntzeko. 613 69 28 34

Debagoiena. Gertu nago nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako edo nagusiak zaindu eta laguntzeko. 612 27 68 33

Debagoiena. Gertu nago nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako edo nagusiak zaindu eta laguntzeko. 677 14 64 29

Debagoiena. Gidari, garbitzaile edo margolari lan bila nabil. Gainera, elikagaiak manipulatzeko kurtsu ere badut. Telefonoa: 640 662 499

Debagoiena. Lan egingo nuke eraikuntzan, margotzen, nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten edo antzeko lanetan. Telefonoa: 643 04 25 23

Debagoiena. Lan egingo nuke eraikuntzan, margotzen, nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten, jostinkintan edo antzeko lanetan. 612 28 05 29

Debagoiena. Lanean hasi nahi dut pertsona nagusiak zaintzen. Telefonoa: 672 55 67 35

Debagoiena. Lanean hasteko gertu nago; pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan eta abar. 631 12 51 27

Debagoiena. Mutila gertu baserriko lanetan, garbiketan edota nagusiak zaintzen jarduteko. Berehala hasteko moduan. 643 08 15 23

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen eta garbiketarako egiten lan egingo nuke. Telefonoa: 641 09 15 58

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Soziosanitario titulazioarekin. Telefonoa: 653 36 85 80

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko gertu nago, baita etxean bertan bizi izaten edo asteburuetan

ere. Soziosanitario titulazioa. 631 25 26 67

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako gertu nago. Telefonoa: 623 16 31 84

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izaten. Baita egunka ere. 651 54 74 71 (Leonardo)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ordutegi eta egutegi arazo barik. 674 53 64 71

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketan, eraikuntzan edota banaketan lan egingo nuke. 641 36 01 32

Debagoiena. Neska arduratsu eta langilea nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Esperientzia dut. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Telefonoa: 613 72 59 43

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako gertu. 943 78 06 76

Oñati. Arratsaldetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiri guzkiekin. 631 70 57 63

Lan bila. Seme/alaba eskolara eroateko arazoe-kin? Egun bat gaixorik jarri dela? Edozer behar izanda, lan egiteko gogoe-kin dagoen pertsona

zaintzen edo garbiketan. 612 56 12 39

Debagoiena. Persona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut orduka edota etxean bertan bizi izaten. 747 49 34 04

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan jarduteko prest nago. Gomen-dio gutuna aurkez dezaket. 659 57 93 89

Debagoiena. Umeak eta pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanak egiten jardun nahi dut. 641 09 15 58

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke orduka. Legezko agiriak eta beharrezko formazioarekin. 662 02 45 80

gazte eta langilea naiz. 688 62 14 42

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. DBH 3. mailako ikasle bati matematika eta teknologia eskolak eman-go dizkion norbait behar dugu. Asteazken eta ostiraletan, 18:30etik aurrera. 650 40 19 95

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katua. Kalean bizi den katu batentzat jabe bila gabilta, negua datorre-la-eta. 642 72 69 10

8. DENETARIK

801. SALDU

Egurra. Sutarako egurra salgai. 688 69 73 14

Pianoa. Schimmel 1885 Especial pianoa salgai. Renner makinariarekin, guztia Alemanian egindakoa. 322-291 pianoa. Egoera ezin hobean. Telefonoa: 669 52 69 62

807. AURKITU

Bizikleta Bergaran. Santa Marinatik San Martzialerako bidearen tartean bizikleta tolesgarri bat aurkitu dugu. Zurea bada, Bergarako udaltzaingoa galdetu. 943 77 91 06

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

EUSKARALDIAREN HASIERA

Kike Amonarrizi elkarrizketa eta Aitor Agirianoren *Zirikatzan* tartea *Hemen Debagoiena* saioan.

'Hemen Debagoiena'

Egubakoitza, 18:00, 20:00

eta 22:00



MALEN OSARI ELKARRIZKETA

Golden Trail Series finaleko Open kategoria irabazi zuen korrikalari oñatiarrak Madeiran (Portugal).


'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30



BEROTEGIAK ARDATZ

Berotegien ezaugarriak zeintzuk diren ezagutu eta haien onurak landuko ditu Txomin Madinak.


'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GASTRONOMIA BERBAGAI

Iñigo Arrazola oñatiarrarekin eta Arritxu Barruso bergararrarekin, Austriako eta Arubako gastronomiaz.

'Mundutik binaka' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00



MARI JOSE TELLERIARI ELKARRIZKETA

Goiatz Aranaren galderak erantzungo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendariak.

'Harira' Martitzena, 21:30

eta 23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: **goiena.eus/telebista**

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

HILDAKOAK

Matxelin Dorronsoro Etxeberria. Oñatin, hilaren 10ean.

Javier Mugarza Arrue. Oñatin, hilaren 11n. 77 urte.

Antonio Ibarra Azkarate. Bergaran, hilaren 13an. 91 urte.

Florentina Martinez Trapote.Oñatin, hilaren 13an. 76 urte.

M. Teresa Tena Carmona. Bergaran, hilaren 13an. 73 urte.

Matilde Vara Ballesteros. Bergaran, hilaren 14an. 94 urte.

M. Sol Errasti Larrea. Arrasaten, hilaren 15ean. 74 urte.

Jesus Maria Sainz Ortigosa. Bergaran, hilaren 15ean, 89 urte.

Ascension Garcia Ahedo. Arrasaten, hilaren 16an. 90 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 18 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

Zapatua, 19 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Domeka, 20 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

Astelehena, 21 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Martitzena, 22 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

Eguaztena, 23 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Eguena, 24 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 18 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Zapatua, 19 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Domeka, 20 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Astelehena, 21 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74

Martitzena, 22 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Eguaztena, 23 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

Eguena, 24 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 18 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Zapatua, 19 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Domeka, 20 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Astelehena, 21 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Martitzena, 22 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 23 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguena, 24 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2022 bukatu arte: AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2022 osoan: URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA

Javier Mugarza Arrue

2022ko azaroaren 11n hil zen.

Oinarriko lagunak.

Oñatin, 2022ko azaroaren 18an.

ESKER ONA

Matxelin Dorronsoro Etxeberria

2022ko azaroaren 10ean hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 19an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Aldez aurretik eskerrik asko bertaratuko zaretenoi.

Oñatin, 2022ko azaroaren 18an.

URTEURRENA

Teresa Zabaleta Ortubay

Juan Unzueta Oteizaren alarguna

2021eko azaroaren 20an hil zen, 95 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 20an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2022ko azaroaren 18an.

OROIGARRIA

Javier Mugarza Arrue

Marisol Ayastuyren alarguna

2022ko azaroaren 11n hil zen, 77 urte zituela.

Zure betiko kuadrillak ez zaitu ahaztuko.

Zure kuadrillako lagunak.

Oñatin, 2022ko azaroaren 18an.

ESKER ONA

Juanita Alzelai Alzelai

2022ko azaroaren 4an hil zen.

Eskerrik asko egun hauen gure ondoan egon zareten guztioi.

Besarkada bana familiaren partetik.

Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 19an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Aldez aurretik eskerrik asko bertaratuko zaretenoi.

Oñatin, 2022ko azaroaren 18an.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskela@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

BERRI-ZAKUA



1976ko arrasatearrak

Argazkiko 26 lagunak elkartu ziren aurreko zapatuan, kintada egunaren harira. Egun ederra pasa zuten. Tartufon bazkaldu zuten elkarrekin, eta mahaiairen bueltan askotariko bizipenak gogorarazi zituzten. Lepokoaren ordeztu, more koloreko tximeletak jantzi zituzten paparrean. "Beste batzuetan baino lagun gutxiago elkartu gara, baina hori ez da aitzakia izan ondo ez pasatzeko".



Bibotedunak musean

Zortzigarrenez antolatu dute Mondravemberreko kideek prostatako minbiziaren gainean fokua jartzeko hilabetea Arrasaten. Azaroa izaten da gaixotasun horren aldeko dirua batzeko hilabetea. Ekintza ugari antolatu dituzte, eta aurreko zapatuan mus txapelketa jokatu zuten Uarkapen. 22 bikotek eman zuten izena eta arratsalde-pasa ederra egin zuten, hordago artean. Muslari guztiak bibote ederrekin ibili ziren.



Atzo ezkondu ziren

Maialen Martin eta Jon Souto atzo, azaroak 17, ezkondu ziren. Biharamunean, mezua bidali diete Arrasateko eta Bilboko familiek: "Zorionak, bikote! Familia ederra osatzen hasi zarete. Zorionak horregatik ere. Eta etorriko direnak. Atzokoaren ostean, segi zoriontsu izaten eta etxeakoak zoriontsu egiten. Maite zaituztegu".

Arrasatetik Gatzagara

Hutsik egin barik, San Milixan jaiak aitzakia hartuta, Arrasatetik Leintz Gatzagara joan zen argazkiko kuadrilla, antxintxika. Kirolerako grinak eta umore onak elkartu zituen, beste urte batez, eta, ohi baino korrikalari gutxiago animatu arren, gozatu egin zuten ibilaldiarekin. Zati batzuetan korrika eta beste batzuetan oinez.

Kontatu, kontatu!

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu uzuen.
Edo: Otalora 31, Arrasate; 943 25 05 05.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik argitaratuko ditugu; hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean.

50 urte ezkondu

Julia Horrillo eta Antonio Deogracias antzuolarrak zorioneko daude: bihar, azaroak 19, 50 urte beteko dira ezkondu zirenetik. Urrezko ezteiak ospatuko dituzte. "50 urte elkarrekin. Aupa zuek! Zorionak etxeko guztien partetik. Ondo ospatu eta disfrutatu. Segi elkarrekin urte askoan. Maite zaituztegu".





Sanmilixanak

Sanmilixanak ospatu zituzten aurreko domekan Leintz Gatzagan. Ekitaldi nagusia artisau azoka izan zen. Herritarrek askotariko produktuak erosteko aukera izan zuten. Besteak beste, argazkian ikusten den moduan, belarritakoak eta lepokoak. Sorginak Emakume Taldeko kideek ez zuten hutsik egin eta talo goxoak prestatu zituzten.



Elkartasun azoka

Euskal Herrian Emakume Musulmanen Integraziorako Elkarateak bigarren eskuko arropa, bisuteria eta etxean prestaturiko janari eta pintxo azoka solidarioa egin zuen aurreko zapatuan Arrasaten. Produktuek prezio sinbolikoak izan zituzten. Era berean, Peruko dantzen erakustaldia egin zuten.



Familian basora

Ekogunearekin elkarlanean *Naturan hezten* proiektua abiatu dute aurten Aretxabaletako Arizmendiko Almen gunean. Aurreko domekan, Amaia Agoteren adituaren laguntzarekin *Familian basora* hitzaldi-irteera egin zuten, familiei erakusteko basoak ekar ditzakeen onurak. Ikastolako lurretan dagoen basoa ikasgela bilakatu dute.

ZORION AGURRAK



HERNANI
DANEL GALLEGO JODAR
Azaroaren 24an, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat, aitarien eta amamaren partetik. Oso ondo pasatu eguna!



ARRASATE
Nora Axpe Pacios
Azaroaren 23an, 6 urte. Zorionak maitia! Ondo pasa zure egunean! Infinitura arte maite zaitugu. Patxo potoloak, muak!



ARRASATE
Karina Rivera Zumba
Azaroaren 22an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Oso ondo ospatu zure eguna. AMZ.



OÑATI
Lucca Ochotorena Mendiola
Azaroaren 22an, 4 urte. Zorionak, 'bitxito'! Muxu handi bat etxeko guztien partetik. Bereziki Chloe, Skye eta Tiagotxo.



ARRASATE
Eki, Beñat eta Xabier
Ekik, azaroaren 22an, Beñatek 25ean eta Xabierrek 26an. Zorionak, hirukote! Zazpi urte! Ondo pasau zuen urtebetetzeetan.



ARRASATE
Iñaki Aranzabal Martin
Azaroaren 21ean, 40 urte. Zorionak etxeko "morenazoari"! Aurten hamarkadaz aldatzen dozu! Elkarrekin ospatuko dogu bazkari batekin!



ARETXABALETA
Iratxe Arbulo Ramos
Azaroaren 21ean, 38 urte. Zorionak, "sister"! Muxu handi bat etxeko danen partetik. Bereziki, Alaitz, Gari, Ibai eta Maddi! Ederto ospatuko dugu!



BERGARA
Julene Agirre Gonzalo
Azaroaren 20an, 8 urte. Zorionak, ama eta amama maitia! Ahaleginak egingo ditugu egun polit bat pasatzeko. Muxu potolo bat familiakoen partetik.



BERGARA
Isabel Igartua Orbea
Azaroaren 19an, 94 urte. Zorionak, ama eta amama maitia! Ahaleginak egingo ditugu egun polit bat pasatzeko. Muxu potolo bat familiakoen partetik.



ARRASATE
Lia Jodar Viguri
Azaroaren 19an, 12 urte. Zorionak eta patxo handi bat, aitarien eta amamaren partetik. Oso ondo pasatu eguna!



ARETXABALETA
Gari Martinez Arbulo
Azaroaren 19an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Hiru urtetxo, ze haundia gure etxeko mutila. Muxu handi bat danon partetik! Ederto ospatuko dugu!



ARRASATE
Amaia Zubillaga
Azaroaren 18an, 39 urte. Zorionak Garagartzako rubixa martxosiari!



OÑATI
Nora San Miguel Billar
Azaroaren 18an, 5 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasau zure eguna eta patxo erraldoi bat etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
Ainhoa Biteri Sopelana
Azaroaren 17an, 7 urte. Zorionak eta urte askotako etxeko danen partetik. Batez ere Leirek. Muxu pila bat eta ondo pasau.



ANTZUOLA
Jare Iparragirre Etxeberria
Azaroaren 17an, 8 urte. Zorionak, poxpolin! Patxo erraldoi bat etxeko danon partetik!



OÑATI
Garazi Aitzelai Navarro
Azaroaren 16an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Azkenian iritsi da horrenbeste espero izan duzun eguna. Etxeko guztien partetik patxo haundia!



BERGARA
Uxue Iñurrategi Altuna
Azaroaren 15ean, 8 urte. Azkenian heldu da eguna. Zorionak, Uxue! Ondo pasau zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat.



ARRASATE
Goiatz eta Maddi Belategi Galdos
Azaroaren 15ean, 12 urte. Zorionak, bikote! Gozatu ezazue horrenbeste espero izan duzun eguna, lagun eta familiartekoen artean. Jaso ezazue patxo handi eta bero bat guztien partetik.



BERGARA
Maju Uriarte Sebal
Azaroaren 15ean, 7 urte. Zorionak, Maju! Ondo pasau zure eguna. Patxo pilo bat etxekuen partetik.



ARRASATE
Lucia Alonso Gonzalez
Azaroaren 14an, 6 urte. Zorionak, Lucia, 6 urte! Aita-amak eta Adarak muxu erraldoi bat bidaltzen dizugu. Ez ahaztu asko maite zaitugula.



BERGARA
Garazi Aretxaga Arabaolaza
Azaroaren 14an, 8 urte. Zorionak, Garazi! 8 urte jadanik! Oso ondo ospatuko zure eguna. Etxeko guztien partetik patxo handi bat!



ZORIONTEKO HIRU BIDE
• Goiiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.
• Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
• Zatoz Golenara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



ARRASATE
Maren Alonso Lopez
Azaroaren 13an, 16 urte. Zorionak, maitia! 16 urte gure bizitzak alaitzen. Zoriontsu izan beti! Maite zaitugu! Etxekoak.



BERGARA
Kima Goenetxea Garcia
Azaroaren 12an, 4 urte. Zorionak, printzesa. Zure eguna fenomeno pasa izana espero dugu. Familiakoon partetik, patxo potolo pila bat.



OÑATI
Beñat Sarriegi Derteano
Azaroaren 11n, 3 urte. Zorionak, Beñat! Merezki dozun moduan ospatuko dogu zure eguna! Askotako maitte zaitugu!



ARETXABALETA
Jürgen Agirre Calleja Gabilondo
Azaroaren 11n, 6 urte. Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure egunean lagun eta familiaz inguratuta! Muxu potolo bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Ander Axpe Gabilondo
Azaroaren 20n, 7 urte. Zorionak, Ander! Patxo potolo bat eta zure eguna ederto ospatu! Maitxe zaitxugu!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 18

OÑATI 'Gizonak feminismorantz'
Jabetze Eskolaren baitan, Hiruki Larroxa taldeko kide Joseba Gabilondorekin.
Kultura etxean, 17:00etan.

BERGARA Ikasturte hasiera ekitaldia Uned-en
2022-2023 ikasturtearen hasiera ofiziala.
Uned-en, 18:00etan.

ELGETA Baobeer garagardo dastatzea
Bost gazta eta ogi ezberdinekin. Aurrez eman behar da izena.
Ozkarbi elkartean, 19:00etan.

BERGARA 'La sapa de los Aperribay, la guerra empieza aquí' liburuaren aurkezpena
Irekia.
Kartzela zaharrean, 19:00etan.

ESKORIATZA Bandaren emanaldia
Santa Zezilia eguneko bandaren kontzertua izango da.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ZAPATUA 19

OÑATI Apilaizko proiektua ikusteko irteera
Gaztainari aitortza egiteko antolatut den ekintza.
Autobus geltokian, 09:00etan.

OÑATI Elkoro baserrira bisita eta produktuen dastatzea
Elikadura ohiturez, ingurumenaz eta nekazaritzaren etorkizunaz gogoeta egiteko.
Autobus geltokian, 10:00etan.

ARRASATE 'Xango mango, literatura jolasak' ipuin kontaketa
1-3 urte artekoendako, Saroa Bikandirekin. Izenak, aurrez.
Kulturaten, 11:00etan.

ARAMAIO Hiru txirlo txapelketako azken saioa
Euskal Herriko 32. hiru txirlo txapelketako azkeneko saioa.
Etxaguenen, 12:00etan.

DEBAGOIENA Bailerako Movember taldeen topaketa
12:30ean, Elorregin elkartuko dira; 19:00etan, Arantza Otaduyren bisita gidatua Arrasateko erdigunean, *Querer es poder* leloarekin; eta, 21:00etan, afaria Taxka tabernan.
Elorregin.

ARRASATE Makillaje eta ile-apainketa ikastaroa
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'Ganbara' antzezlan
Markeliñe taldearen lana, umeendako. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

BERGARA 'Haus of beats. Zazpi urte uhinetan' jaialdia
18:00etan, Massa Confusa eta Amsia taldeen kontzertua; eta, 23:00etan, *Klub Gaua*. Sarrerak: kontzertua edo *Klub Gaua*, bost euro; eta bi ekitaldiak, zortzi.
Kartzela zaharrean.

ARAMAIO 'Xokolat' ikuskizuna
Haziaraba in the mapping jaialdiaren baitan, 2 eta 5 urte bitarteko umeendako.
Kultura etxean, 18:00etan.

ELGETA Bolo txapelketa
Hiru txirlo bola tiraldi irekia. Izen-ematea, egunean bertan. Prezioa, hamar euro.
Bolatoki tabernan, 19:00etan.

ARRASATE Aba Taano gospel taldea
Harremanek eta Mundukidek antolatuta. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE Rap kontzertuak
Tatta, Mutiko, Denso, Janda, Txandal Vandals, Hofe eta 4:40 taldeak. Sarrerak, bost euro.
Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 20

ELGETA Mendi irteera eta bazkaria
Lehen orduan Irukurutzetara igoko dira. Ostean, baba-jana.
Mendizaleen plazan, 08:00etan.

ESKORIATZA Axtrokiko eremura bisita eta museoko erakusketa
Eremua ezagutu ondoren, *Axtroki, urrearen magia* erakusketa ikusteko azken aukera.
Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.

BERGARA Txistulari Bandaren emanaldia
Santa Zeziliaren omenezko kontzertua.
Osoko bilkuren aretoan, 11:30ean.

ARRASATE Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARAMAIO Animazioko film laburrak
2 eta 6 urte bitarteko umeendako *Minimach* film laburrak, 3D formatukoak.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA Imanol eta Larrañaga bikotearekin dantzaldia
Pasodobleak, rantxerak, balsak...
Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Me quiere, no me hiere' antzezlan
El Terral konpainiarekin. Lan horrek tratu txarretatik tratu onetara bidaiatzen du, modu batera edo bestera genero indarkeria bizi eta pairatzen duten hainbat pertsonaiaren bizitzan barrena ibilbidea eginez.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI Gloria de Piante Vicin pianista italiarra
Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrena gogora ekartzeko. Sarrerak, bost euro.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 21

ARRASATE 'Psikologia, errendimendua eta ongizatea' hitzaldia
Kirol psikologo Uxue Otxoak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.



BERGARA 'Ganbara doinuak' antzezlan, umeendako
Baserri mundu baten oroitzapenak berreskuratu nahi ditu Markeliñek, antzerkiaren ikuspegitik. Emakumeak baserriko ezinbesteko zutabe gisa duen balioa nabarmenduko dute. Sarrerak, lau euro.
Bihar, zapatua, Seminarixoan, 18:00etan.

BERGARA 'Hezkuntza ekintzaile berritzailea' hitzaldia
Egoitz Etxeandiak egingo du berba, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldien baitan.
Seminarixoan, 10:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA Odol-ateratzea
Herriar guztien eskura.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

BERGARA Mizpirualderen Astea
17:00etan, akordeoilari baten emanaldia; eta 18:15ean, Musika Eskolako soka taldearen saioa.
Mizpirualde egoitzan.

BERGARA Erakusketa
32. Kirola Argazki Lehiaketako lanak ikusgai abenduaren 4ra arte.
Aroztegin, 18:00etan.

MARTITZENA 22

BERGARA Mizpirualderen Astea
17:00etan, Eibarko erretiratuen dantza taldea; eta 18:15ean, musika eskolako umeen abesbatza.
Mizpirualde egoitzan.

ARETXABALETA 'Matematika etxean' hitzaldia
Leire Aranarekin, Arizmendi Ikastolak gonbidatuta. Izenak emateko: 943-77 20 25.
Almenen, 17:30ean.

OÑATI Santa Zezilia eguneko kalejira
Oñatiko Musika Bandaren kalejira, musikarien zaindariaren omenez.
Herriko kaleetan, 19:00etan.

ARRASATE Santa Zezilia eguneko kalejira
Goikobalu abesbatzaren, AGAren, Goikobalu Txikiren, Txorbela Otxotearen eta Portaloi elkartekoen kalejira.
Herriko kaleetan, 19:00etan.

ARRASATE 'El perdón' pelikula
Martitzenetako emanaldia.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 23

BERGARA 'Futuro energético del País Vasco' hitzaldia
Enrique Monasteriok egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoan, 10:00etan.

BERGARA Mizpirualderen Astea 17:00etan, magia ikuskizuna; eta 18:15ean, Musika Eskolako trikitilariak, perkusionistak eta gitarristak.
Mizpirualden, 17:00etan.

ARAMAIO Maskulinitate tailerra Gizonei zuzendutakoa.
Osoko bilkuren aretoan, 17:30ean.

ARRASATE 'Las residencias del futuro' hitzaldia Juanjo Calvok eta Olatz Etxabek egingo dute berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.
Kulturaten, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Coreografías de la transgresión' dokumentala Ostein, solasaldia eta afari-merienda.
Arkupa, 18:00etan.

OÑATI Gaztainondoaren eskultura inauguratuko dute Bertsolariak eta gaztaina-jana egongo dira.
Eltzian, 18:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Kontzientzia eguna feminismotik' hitzaldia Indarkeria zuzenean jasaten ari diren hainbat emakumek egingo dute berba.
Kultura etxean, 18:30ean.

BERGARA 'Un año, una noche' pelikula Zineklubean eta jatorrizko bertsioan. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 24

ARRASATE Sasoibide Bixi-bixi tailerra egingo dute.
Ferixalekuan, 10:00etan.

ELGETA Adimen kognitiboa lantzeko tailerra Lehenengo saioa egingo dute gaur. Izena eman daiteke hilaren 21era arte: 943-76 80 22 telefonoan edo gizarte@elgeta.eus helbidean.
Kultura etxean, 10:30ean.

ARETXABALETA 'Zarata' erakusketa LGBTI+ kolektiboaren inguruan kontzientzia sortzeko erakusketa. Hamar istorio ezagutu ahal izango dira entzumenaren bidez; hamar aktorek parte hartu dute. Hodei Arrastoaren proiektua, Hiruki Larroxa elkartearekin elkarlanean.
Arkupeko bigarren solairuan, 16:00etan.

OÑATI Ostegun Kontalariak Maite Frankoren saiok, 4-5 urteko umeendako: 17:30ean eta 18:15ean.
Kultura etxean.

ESKORIATZA Ardo dastatze ikastaroa Sukaldari eta ardoetan aditu Joxemi Ayerbek emango du. Prezioa: bost euro.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* liburuaren gaineko saioa.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA 'La niña de Rusia' liburuaren aurkezpen musikatua Celia Santosen liburua oinarri hartuta.
Seminarixoa, 18:30ean.

ELGETA Eztabaidagune feminista *Zer da genero indarkeria?* gaia landuko dute.
Liburutegian, 18:30ean.

ARRASATE Iragana Astintzen zikloko hitzaldia Justo Martinek egingo du berba, *Mondragón, baluarte de Gipuzkoa y sus fueros frente a los franceses en la guerra de la convención* gaiari buruz.
Kulturaten, 19:00etan.

OÑATI 'El acusado' filma Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitu-luekin. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Liher taldea Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Mira como corren Domeka eta astelehena: 19:30.
Izurde mutikoa Domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

El agua Domeka eta astelehena: 19:30.
Hopper oilasko-erbia Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El cuarto pasajero Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.
Lilo, mi amigo el cocodrilo Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

El cuarto pasajero Egubakoitza, 22:00. Zapatua: 19:30. Astelehena: 16:30. Orkestra lurtarra Zapatua: 17:00.

EIBAR

COLISEO

La maternal Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.
Black panther Zapatua: 16:00, 19:15, 22:30. Domeka: 16:30, 20:00. Astelehena: 20:30.
Vasil Zapatua: 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Tadeo Jones 3 Egubakoitza: 17:00. Zapatua: 16:15. Domeka: 12:00,

16:15.
Black Adam Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:25. Zapatua: 17:00. Domeka: 11:45, 16:30.

Lilo, mi amigo el cocodrilo Egubakoitza: 17:20. Zapatua: 16:45. Domeka: 12:00, 16:20.

El cuarto pasajero Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 16:15. Astelehenetik eguenera: 17:25.

Hopper, el pollo-liebre Egubakoitza: 17:30. Zapatua: 16:15. Domeka: 12:00, 16:10.

No mires a los ojos Egubakoitza eta zapatua: 22:05. Astelehenetik eguenera: 19:45.

Black phanter Egubakoitza: 17:05, 18:00, 20:15, 21:10. Zapatua: 17:00, 18:15, 20:15,

21:25. Domeka: 11:30, 17:00, 18:15, 20:15. Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:00, 20:10. Egubakoitzetik eguenera: 19:00.

Nire zirkua Zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 16:15.

El atracador perfecto Egubakoitza: 19:15, 21:50. Zapatua: 19:10, 21:45. Domeka: 12:00, 18:05, 20:35. Astelehenetik eguenera: 19:35.

Cariño, cuanto de odio Egubakoitza: 19:35, 21:45. Zapatua: 18:10, 20:20, 22:30. Domeka: 18:25, 20:35. Astelehenetik eguenera: 17:30.

Reyes contra Santa Egubakoitza: 17:00, 19:15. Zapatua: 18:25, 20:35. Domeka: 16:15,

18:25, 20:35. Astelehenetik eguenera: 17:25.

As bestas Egubakoitza: 17:00, 19:45, 21:30. Zapatua: 16:30, 19:15, 21:35. Domekatik eguenera: 17:00, 19:45.

Cliff walker Egubakoitza: 19:35, 22:00. Zapatua: 19:15, 21:45. Domeka: 18:20, 20:45. Astelehenetik eguenera: 19:45.

Monstruos Egubakoitza: 20:00, 22:00. Zapatua: 19:35, 22:00. Domeka: 12:00, m18:35, 20:35. Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

FLORIDA

Armageddon time Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:45, 22:15. Domeka: 17:15, 19:45. Astelehenetik eguaztenera: 19:30.

17:30, 20:00.
As bestas Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka, astelehena eta eguaztena: 17:15, 20:00. Martitzena: 17:15, 20:15.

Black panther Egubakoitza: 17:30, 21:00. Zapatua: 11:30, 17:30, 21:00. Domeka: 11:30, 17:00, 20:30. Astelehena eta martitzena: 20:00. Eguaztena: 17:00, 20:15.

El cuarto pasajero Egubakoitza: 19:30, 22:00. Zapatua: 12:30, 19:30, 22:00. Domeka: 12:00, 19:15, 21:15. Astelehena eta martitzena: 17:15. Eguaztena: 20:00.

La maternal Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00. Domekatik eguaztenera: 19:30.

KRITIKA

La maternal **Zuz.:** Pilar Palomero. **Herr.:** Espainia (2022). **Aktoreak:** Carla Quilez, Angela Cervantes. ★★★★★

Ama eta alaba

ANTONIO ZABALA Carla haurdun dagoen 14 urteko nerabea da. Amarekin bizi da —ama ikusita, antzeman dezakegu hura ere oso gaztea zela Carla jaio zenean—. Amak bikotkidea du. Ama gazteegia izateak asko aldatzen dizu bizitza, eta asko aldatzen du seme-alabena ere. Carlaren kasuan, harrera-zentro batera joango da eta han ezagutuko du haren kasu berean dauden edo egon diren beste neska batzuk. Pilar Palomerok indibidualtasunarekin eta kolektibitatearekin jokatzten du. Carla istorioaren protagonista izanda ere, zuzendariak fikzioa geratzen du dokumentalera hurbiltzeko, harrera-zentroko beste neskek beraien kasuak azal ditzaten. Gidoi aldetik badaude aukera zalantzarri batzuk: Carlaren ibilbidea pauso pauso jarraitzen ari garenean,



jaiotzarekin lotutako momentuak salto egiten ditu, eta oso une garrantzitsuak dira. Haurra jaio eta gero, ematen du arazo bakarra dela haurrak negar egiteari lagatzen ez diola. Istorioa motz samar geratzen dela esango nuke. Filmaren momentu onenak amaren eta alabaren arteko

harremanean daude. Filmatzeko modua eta aktoreen interpretazioak sinesgarriak dira. Carla Quilez aktoreak ederki azaltzen ditu pertsonaiaren sentimenduak: barruko indarra, sentitzen duen amorrua eta, horrekin batera, egoeraren aurrean duen ezintasuna eta babes beharra.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Edukazioa edo

Ikasi dugu euskaraz ez dakien pertsona gurekin badago euskaraz egitea edukazio txarrekoa dela.

Laneko kontuengatik, hainbatean, kanpoko pertsonekin izaten naiz. Behin, korear batzuekin afaldu nuen eta beraien artean korearrez aritu ziren ni mahai berean nengoela. Ingelese berba egin ahal zuten ni ere parte sentitzeko, baina ez, edukazio kaskarra korearrek. Beste batean, bazkaria Sudango bisitari batzuekin izan zen. Lankide bat eta ni geunden mahaiaren bueltan sudandarren artean, bakoitza mutur batean, eta haien arteko hizkuntza arabiera izan zen. Sudandarrek ere ohitura eskasa. Hau da hau! Kontinente diferenteak, baina bietan jokaera negargarria. Egia esan, izan ditut antzerako esperientziak beste kontinenteetako lagun askorekin ere, eta beti berdin. Jesus! Munduan nonahi portaera txarreko jendea.

Ezin ulertuta nenbilen nola egon zitekeen hainbeste pertsona bihozgabe planeta honetan. Azkenean, zer pentsatu eman didan erantzun bat aurkitu dut: ez dago edukazio txarrik, kolonizatutako herrietan urteetan eragindako sentipena baizik.

Sorioneku-ak sentimendu hori alde batera utzi dutenak.

GOIENA OKM GIDA

"Pribilegioa da inguru hauetan bizi izatea"

ASIER UGARTE SORMEN DESIGN-EKO ARDURADUNA

Aretxabaletarra da eta Bartzelonan bizi izan zen, ikasketengatik, eta halako esperientziak bizi behar direla dio; argi zeukan itzuliko zela: Gatzagan ditu bizitokia nahiz lantokia

Idoia Aranbarri LEINTZ-GATZAGA

Aretxabaletarra da Asier Ugarte, eta, Industria Diseinu ikasketak Donostian eta Bartzelonan egin ondoren, 2001ean sortu zuen gaur egun Leintz Gatzagan kokatzen den Sormen Design.

Nolatan aukeratu zenuen diseinatzaileria industrial izatea?

18 urterekin ez nekien ze bide hartu. Diseinu ikasketak egiten hasi nintzen; lehenengo urtea berdina da Diseinu Industrialean, Grafikoan eta Interiorismoan. Orduan ikusi duen gustatzen zitzaidana industrial zela.

Bulegoa Gatzagan duzue. Zergatik?

Arrasaten hasi ginen lanean, Saiolanen bulegoetan, baina bi urterako zen. Epe ertain-luzerako zerbait nahi nuen. Gatzagako alkate Eugenio Otxoari bota nion proposamena, eta Udalak utzi zigun lehenengo lokala, jarduera erakarri nahian baitzebiltzan. 2005ean gaur egungo bulegora etorri ginen eta harrezkero hemen gaude, nahiz eta Arrasaten ere baditugun beste instalazio batzuk ere.

Ze zerbitzu eskaintzen dituzue?

Produktuen diseinua eta garapen zerbitzua. Gure bereizgarria da produktuen diseinuen zerbitzu integrala. Proiektua diseinatu,



Asier Ugarte, martitzenean, bulegoan egindako elkarrizketan. I.A.A.

GPSa duten zintzarriak

"Hego Amerikarako den proiektu bat daukagu esku artean. Ganaduarentzat zintzarri elektronikoak ari gara garatzen; abereak non dabilzan kontrolatzeko da. Baserritarrek eremua mugatzen du GPS bidez. Animalia eremu horretara hurbiltzen bada, zintzarriak soinu egiten du; jarritako muga pasatuz gero, kalanbrea ematen dio. Hortaz, animaliak ikasi egiten du zintzarriak soinu ateratzen duenean ez duela hortik pasa behar".

3Dn garatu eta prototipo muntaia ere kudeatzen dugu. Une honetan, gure bezeroak Euskal Herriko enpresak dira, baina proiektuak internazionalak izan daitezke.

Nola aldatu da lan egiteko era 21 urte hauetan?

Nire ikasketa garaian, 3D softwareak hasten zebiltzan, eta gu hala hasi ginen; beraz, hasieratik lan egin dugu teknologia hauekin. Komunikazioaren abiaduran egon da aldaketa nabarmena, eta horrek dakar proiektuen kudeaketan abiadura. Gaur egungo proiektuetan daukagun abiadura sinestezina litzateke urte batzuk lehenago. Errealitate birtualarekin ere egiten dugu lan; hori, prototipatze teknologiek uztartuta.

Zure lanetik zer gustatzen zaizu gehien?

Harreman pertsonala. Bezeroak pertsonak dira eta 21 urteotan jende pila ezagutu dut; lagun bihurtu dira asko.

Hiri handi batean amaitu zenituen ikasketak: Bartzelonan. Gaur egun, Leintz Gatzagan bizi zara.

Profesionalki eta pertsonalki aberasgarria izan zen Bartzelonako esperientzia, baina argi neukan itzuli egingo nintzela. Hala ere, kanpora joan egin behar da. Ez dugu baloratzen, baina pribilegioa da Debagoieneko paraje hauetan bizi izatea. Altxorra da gure ingurunea.

Aretxabaletako eta Gatzagako leku bana aukeratzekotan, zeintzuk?

Aretxabaletan, Degurixa; Gatzagan, berriz, Tantauidi.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala
zure mugikorrean

ASTE HONETAN

Goiatz Urkijo

Euskaraldiaren koordinatzailea

**"Ekin,
gugatik eta ingurukoengatik"**

